




Tolosaldea  
Historia  
Bilduma

# GIZARTE TRADIZIONALA ZIZURKILEN (1615-1800)





Tolosaldea  
Historia  
Bilduma

## **Tolosaldea Historia Bilduma**

- 1 Intxur. Burdin Aroko herrixka / Intxur poblado de la Edad del Hierro. 2002.
- 2 Altzotik Altzora. Ibilaldi historikoa Altzon zehar. 2003.
- 3 Irurako historia / Historia de Irura. 2003.
- 4 Aduna 1856-1965. Bilakaera baten kronika. 2003.
- 5 Tolosaldea bere testamentuetan / Tolosaldea en sus testamentos. 2004.
- 6 Tolosa Bordon-dantzaren ikuspegitik / Tolosa desde la Bordon-dantza. 2004.
- 7 Anoetako baserriak / Caseríos de Anoeta. 2005.
- 8 Zizurkilgo historia bailaratik hiribildura (1186-1615) / Historia de Zizurkil del valle a la villa (1186-1615). 2005.
- 9 Tolosa aro modernoan / Tolosa en la edad moderna. 2005.

*Vir, zureztat*



**ARANZADI**

zientzi elkarteak . society of sciences  
sociedad de ciencias . société de sciences

Babesleak / Patrocinadores:

Papeleira del Oria, S. A.



Laguntzaileak / Colaboradores:



GIZARTE TRADIZIONALA ZIZURKILEN  
(1615-1800)

LA SOCIEDAD TRADICIONAL EN ZIZURKIL  
(1615-1800)

Juan Carlos Mora Afán



Zizurkil 2006

<p><b>MORA AFÁN, Juan Carlos</b></p> <p>Gizarte tradizionala Zizurkilen (1615-1800) = La Sociedad tradicional en Zizurkil (1615-1800) / Juan Carlos Mora Afán. – [Tolosa] : Lizardi Kultur Elkartea, 2006.</p> <p>164 or. : ir. Kol. – (Tolosaldea historia bilduma, ISSN 1579-6299 ; 11)</p> <p>L.G. SS-144/06. – ISBN 84-933211-8-4</p> <p>1. Zizurkil – Historia – s. XVII-XVIII CDU 946.015.4 Zizurkil</p> <p style="text-align: center;">○</p>
---



**Tolosaldea Historia Bilduma 08**

Zuzendaria: Juantxo Agirre-Mauleon

Maketazioa: Eustotem Multimedia S.L.

Inprimatzen du: Gráficas Lizarra

bihur enpresak euskaratuta

bihurnet@euskalnet.net

ISSN: 1579-6299

ISBN: 84-933211-8-4

Lege gordailua: SS-144/06



**Eskerrak:** Zizurkilgo Udala

Papelera del Oria S.A.

Marie Brizard

Zizurkilgo Udalaren Kultura Batzordea

Fototeka Kutxa

Gipuzkoako Artxibo Orokorra

Euskomedia Fundazioa

Zizurkilgo Udal Artxiboa

Alfredo Moraza

Argazkiak: Joxin Azkue

Argazkiak: Bartolome Auzmendi



Zuzendu gutunak helbide honetara:

Dirijase toda la correspondencia a:

**ARANZADI zientzi elkarte**

Zorroagagaina 11

20014 Donostia - San Sebastián

Tel.: 943466142 Fax: 943455811

e-mail: [idazkaritza@aranzadi-zientziak.org](mailto:idazkaritza@aranzadi-zientziak.org)

[www.aranzadi-zientziak.org](http://www.aranzadi-zientziak.org)



## Aurkezpena

2005ean kaleratu genuen Zizurkilgo Historia bilduma osatuko duten hiru liburuetako lehenengoa.

Bilduma osatzeko arrazoiak agerikoak dira; argi dugu merezi duela herritarrei eta interesa izan dezakeen orori gure herriaren sorrera eta historiaren berri ematea.

Informazio hori guztia lortzeko ez da nahikoa Udaleko artxiboak arakatzea, herriari buruzko datuak jasotzen dituen edozein agiri bilaka daiteke funtsezko.

Lan hori egin ahal izateko Udala Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera ari da lanean; lankidetzat horren emaitza izan dira Baileratik Hiribildura (1186-1615) I Zizurkilgo Historia liburua eta Zizurkilgo Gizarte Tradizionala (1615-1800) II historia liburu hau.

Hain zuzen ere, horixe da bigarren liburuaren izenburua: Zizurkilgo Gizarte Tradizionala Aro Modernoan (1615-1800).

XVI eta XVIII mende artean Zizurkilgo gizartea nolakoa zen adieraztea da gure helburua eta horretarako garai hartako gizartean oinarritutakoak ziren etxea eta familia, eliza, kontzejua eta herritar eta biztanleen arteko botere harremanak aztertu ditugu. Herritar haien bizitza osatzen zuten gertaera garrantzitsuenen berri aurkituko duzu: ezkontza eta heriotza, udalerriko partehartzea, katolizismoaren indarra, ohorea eta ondra, soziabilitate mailak...

Jakizue hurrengo urtean argitaratuko dugula bilduma honen hirugarren liburua eta lehenengo biak bezain erakargarri egiten saiatuko gara.

Azkenik, hau guztia gauza dadin laguntza eskaintzen diguzuen guztiei eskerrak ematea besterik ez zait geratzen. Eskerrik asko gainontzeko instituzioei eta eskerrik asko Papelele del Oria eta Maria Brizard Españari.

Irakurri lasai eta zuen jakinmina apur bat bederen asetzeko gai izango ahal gara!

Agur bero bat eskuartean liburu hau hartzen duzuen guztioi.

## Introducción

El año pasado publicamos el primer libro de los tres que van a componer la colección Historia de Zizurkil.

Las razones que nos han llevado a realizar esta colección son evidentes: merece la pena, sin duda, dar a conocer el origen y la historia de nuestro municipio.

Para poder acceder a toda esa información no es suficiente indagar en los archivos municipales, cualquier documento que contenga la más mínima información sobre Zizurkil puede resultar imprescindible.

Esa es la razón por la que el Ayuntamiento de Zizurkil cuenta con la colaboración de la Sociedad de Ciencias Aranzadi; fruto del esfuerzo de ambos son el primer libro de la colección Del Valle a la Villa (1186-1615) y este segundo La Organización Social de Zizurkil (1615-1800).

Ese es, precisamente, el título de este segundo libro: La Organización Social de Zizurkil en la Edad Moderna (S.XVI-XVIII).

En el presente volumen pretendemos indagar en el modelo de sociedad que conoce Zizurkil en época moderna, es decir, entre los siglos XVI y XVIII. Para ellos se desentrañarán las claves explicativas de su organización social, cuyos elementos principales son la casa y la familia, el concejo, la iglesia y las relaciones de poder que se tejen entre sus vecinos y moradores. Así, a lo largo del texto desfilarán los acontecimientos más significativos en la vida de aquellos individuos: el matrimonio y la muerte, su participación en el ámbito municipal, el peso del catolicismo, el honor y la honra, las esferas de sociabilidad...

Tal y como sabéis el año que viene publicaremos el tercer volumen y esperamos que sea tan interesante como los dos anteriores.

Por último, no me queda más que dar las gracias a todos aquellos que han hecho posible este proyecto, a las instituciones y especialmente a la Papelera del Oria y a María Brizard-España.

Esperemos que poco a poco vayamos dando respuesta a la curiosidad que puedan tener los ciudadanos en torno a la historia de Zizurkil.

Un cordial saludo a todo aquel que coja entre sus manos este libro.

M<sup>a</sup> ANGELES LAZKANO LARRAÑAGA  
Zizurkilgo Alkatea  
Alcaldesa de Zizurkil





## AURKIBIDEA

or./pag.

<b>0. SARRERA / INTRODUCCION</b>	<b>11</b>
<b>1. HIRIBILDUAREN GOBERNUA / EL GOBIERNO DE LA VILLA</b>	<b>15</b>
1.1. LEHEN URRATSAK: BAT EGITEAK/ PRIMEROS PASOS: LAS UNIONES	16
1.2. UDAL-ORDENANTZAK/ LAS ORDENANZAS MUNICIPALES	21
1.3. KONTZEJUAREN JARDUERARI BURUZKO ALDERDI BATZUK/ ALGUNOS ASPECTOS DE LA ACTUACION CONCEJIL	36
1.4. UDAL-KONTUAK/ LAS CUENTAS MUNICIPALES	51
1.5. KONTZEJUKO HAUTESKUNDEAK/ LAS ELECCIONES CONCEJILES	65
1.6. ARMARRIA / EL ESCUDO DE ARMAS	76
<b>2. HIRIBILDUAREN EKONOMIA / LA ECONOMIA DE LA VILLA</b>	<b>79</b>
<b>3. ETXEA ETA FAMILIA / CASA Y FAMILIA</b>	<b>103</b>
3.1. EZKONTZA / EL MATRIMONIO	105
3.2. TESTAMENTUA / EL TESTAMENTO	127
<b>4. OHOREARI ETA GATAZKARI BURUZ / DE HONOR Y CONFLICTIVIDAD</b>	<b>137</b>
<b>5. ITURRI DOKUMENTALAK / FUENTES DOCUMENTALES</b>	<b>159</b>



Alkatearen makila / Vara de alcalde





**Sarrera**  
Introducción



## O. SARRERA

Zizurkilek 1615ean eskuratu zuen hiribildu-titulua. Honen ondorioz, bukatu egin ziren Tolosarekiko mendekotasun judiziala, eta horrekin batera, zizurkildarrek behin eta berriz salatutako eragozpenak. Handik aurrera, lehen auzialdiko kausa prozesalak herrian bertan eta herriko alkatearen edo alkateordearen aurrean konponduko ziren.

Titulu hau lortu aurretik, zizurkildarrek lana utzi eta hainbat kilometro egin behar izaten zituzten, bide iraganezinetatik askotan, Tolosako alkatearen aurrean beren kezak aurkezteko. Hara iristerakoan, haien txanda patxadaz itxaron eta ezezagun baten aurrean egin behar izaten zuten salaketa. Dena den, urruntasun eta ezjakintasun hau onuragarri izan zitekeen, izan ere, epailearen eta auzijartzailearen edo mandatatuaren artean loturarik ez egoteak bermatu egiten zuen nolabait ere epaia ekitatez ematea.

1615etik aurrera, salaketak Zizurkilgo alkatearen aurrean –auzotarra, eta askotan herriko familia nagusietako baten burua dena– egin beharko ziren. Azterlan honek barne hartzen duen garaian, nahiko erraza da topatzea aurrez aurre ipinitako herri bereko familiak, herriko botere eta baliabideen kontrola edo interes ekonomikoen inguruko desadostasunak zirela eta. Hortaz, egoera hau kontuan hartu beharra dago hiribildu-estatus berri honek biztanleei eskaintzen zizkien onurak aintzat hatzeko orduan.

Hala, desanexioaren bultzatzaile nagusiek beren egoera hobetu nahi zuten bizilagunak eta familiak zirela pentsa dezakegu. Lan honetan ikusiko dugun moduan, Zizurkildarrak, Gipuzkoako edo Europako gainerako herrietan gertatzen zen bezalaxe, hainbat mailatan zeuden antolatuta, gizartean zuten lekuaren arabera (gizonezkoa, emakumezkoa, jabea, maizterra, mirabea, adingabea, alarguna...). Estamentu-banaketa honek galarazi egiten zuen parte-hartze homogenea eta horretako erabakiak hartzeko orduan. Horregatik, soilik gizarte-antolamenduaren goialdean zeuden pertsonak eta familiek esku hartu ahal izan zuten Tolosarekiko independentzia juridikzionala lortzeko saiakeran.

Globala, migrazioa eta egoera berri hauek dakartzaten arrisku eta aukerak guztion ahotan dabiltzan honetan, XVI., XVII. eta XVIII. mendeek kanpora irekitako mundu bat erakusten digute, eta bertan

## O. INTRODUCCIÓN

Zizurkil había conseguido el título de villa en 1615. La consecuencia más importante derivada de este hecho era en la práctica abandonar la anterior dependencia judicial de la villa de Tolosa y con ello, las contrariedades denunciadas reiteradamente por su población, para en adelante ventilar las causas procesales llamadas de primera instancia en el propio pueblo y ante el alcalde del mismo o en su caso, su teniente de alcalde.

Hasta la concesión del citado título, cabe imaginar a sus habitantes molestos por tener que desplazarse varios kilómetros durante caminos a veces intransitables, abandonando sus trabajos y ocupaciones para presentar sus quejas ante el alcalde de Tolosa, esperando pacientemente su turno y formulando sus acusaciones ante un sujeto que en muchas ocasiones les era desconocido. Sin embargo, esta misma lejanía y este mismo desconocimiento no siempre jugaba en su contra. Así, la ausencia de cualquier relación del juez con el demandante o el demandado otorgaba cierta garantía de equidad a su sentencia.

A partir de esta fecha, las denuncias se deberían presentar ante el alcalde de Zizurkil, desde este momento uno de sus vecinos y frecuentemente, cabeza de una de las principales familias de la localidad. En la época que abarca este estudio, era relativamente sencillo encontrar familias y alianzas de familias de una misma localidad enfrentadas a otras por cuestiones de control del poder público y sus recursos, o por cierta disparidad en sus intereses económicos. Por tanto, estas circunstancias tienen que ser tenidas en cuenta a la hora de considerar los beneficios que el nuevo estatus de villa otorgaba a la totalidad de sus habitantes.

En relación con este punto, cabe pensar que los principales impulsores de la desanexión serían aquellos individuos y familias que esperaran obtener una mejora en su situación. Como iremos comprobando a lo largo de este trabajo, la población de Zizurkil, al igual que sucedía en el resto de Gipuzkoa o de Europa, se hallaba articulada en diferentes estados o niveles en función de su posicionamiento social (hombre, mujer, propietario, arrendatario, criado, menor de edad, viuda...), estamentización que impedía una participación homogénea en la toma de decisiones de los diferentes asuntos que conformaban la realidad del momento. Por eso, ante la necesidad de mover los hilos de la localidad para conseguir la independencia jurisdiccional de Tolosa, sólo aquellas personas y aquellas familias situadas en la parte superior del ordenamiento social local contaban con la capacitación suficiente para llevar hasta sus últimas consecuencias esta pretensión.

Ahora que está tan de moda hablar de lo global, de los flujos migratorios y del peligro y oportunidades que se derivan de esta nueva situación, los siglos XVI, XVII y XVIII muestran un mundo abierto al exterior, en el que la defensa de lo propio, de lo comuni-

norberaren eta komunitatearen defentsa guztiz bateragarria da kanpoko alderdi positiboak aprobetxatzeko saiakerarekin. Horrela, ezkontzetatik hasi eta lan-kontuetaraino, asko ziren hiribildu titulua eskuratu berria zuen Zizurkilek kanpoaldearekin harremanetan jartzeko izango zituen aukerak.

Zentzu honetan, liburu honen benetako protagonistak pertsonak dira. Haien bizipen, arazo eta nahiak ardatz hartuta, egungo premisetatik urrun dagoen gizarte antolamendu baten ezkutuko kontuak argitzen saiatuko gara. Komunitarioaren eta familiarraren garrantziaz jabetu eta egun hain nabarmena den individualismoarekin alderatuko dugu. Edota gure identitatearen zati garrantzitsu bat garatzeko behar ditugun espazio pribatuen aldarrikapenaz, garai hartan bizitza publikoan parte hartzeko zegoen beharraren aurrean jarriko duguna. Morala, ohorea, gatazkak eta indarkeria ere aztertuko ditugu. Alderdi hauei esker, gizarte hartako isilpeko kontu dramatikoak ezagutuko ditugu protagonisten ahotik. Azkenik, Zizurkilgo Aro Modernoaren azterketa amaitzeko, hiribilduaren eta biztanleen antolaketari eta ekonomiari buruzko datuak emango ditugu ezagutzera.

Proposatzen dugun ibilbidean atentzioa ematen du gure herri eta hirietan orain dela gutxi arte luzaroan iraun duen izateko eta egoteko moduak. Gure gizarteetan izan diren jokabide-moten bertute eta okerren alderaketa alde batera utzita, iraganaren azterketaren datu zehatzek aukera ematen digute inguruan dugun mundu aldakorrari buruz hausnartzeko, gure nortasunaren osaketa aztertzeko tresna baliagarriak eskura jarritz. Dударik ez dago iragana ezagutzea eta ulertzea lagungarri izan daitekeela gizartearen aurrerapen eta garapen helburuetan hiritarren parte-hartzea bultzatzeko egungo gizarteak duen erronkan. Segur aski, gure ondarearen eta historiaren baloreak ezagutzeak ez gaitu hobek egingo, baina laguntzen badu ingurunearekin adeitsuagoak izaten eta gure arbasoen ondare material eta inmaterialarekiko sentikorragoak izaten, apustu honek mereziko du.

Azterlan hau 1615ean hasi eta 1800. urtean bukatzen da. Zizurkilek 1615ean lortutako hiribildu titulua maila juridikoan inflexio-puntu garrantzitsua dela kontuan hartuta, egokia iruditu zaigu ondorengo urteak aztertzeko. Alabaina, ez ditugu aurreko urteak ahaztu behar. Bestalde, 1800. urteak mende berria dakar, XIX. men-

tarío, es perfectamente compatible con el intento de aprovechar lo positivo del exterior. De esta manera, desde los matrimonios al trabajo, toda una serie de vasos comunicantes ponen en relación el universo zizurkildarra con las oportunidades que se generan fuera de la recién titulada villa.

En este sentido, los verdaderos protagonistas de este libro son las personas. A través de sus vivencias, de sus problemas y de sus aspiraciones, intentaremos desenmarañar los entresijos de un orden social distante de nuestros presupuestos actuales. De este modo, tendremos ocasión de comprobar la importancia y el peso de lo comunitario, de lo familiar, frente al individualismo tan presente hoy en día en nuestras sociedades, o de nuestra reivindicación de espacios privados en los que desarrollar una parte notable de nuestra identidad, opuesta a la necesidad de participar de lo público que existía en aquella época. Otros puntos en los que nos detendremos tienen que ver con materias como la moral y el honor, la conflictividad y la violencia, aspectos que permiten conocer algunos entresijos de aquella sociedad a través de la voz de sus protagonistas y que como veremos, sorprenden por su dramatismo. Finalmente, nuestra visión de la Edad Moderna en Zizurkil se completará con datos relativos a la organización y economía de la villa y de sus habitantes.

Así, a través del recorrido que proponemos cobra especial significado a nuestros ojos una forma de ser y estar que ha perdurado en nuestros pueblos y ciudades hasta hace relativamente poco tiempo. Lejos de compararse las virtudes y defectos de las diferentes formas de comportamiento que han conocido nuestras sociedades, el estudio del pasado contribuye con datos concretos a la reflexión sobre el cambiante mundo que nos rodea, facilitando herramientas de análisis para el estudio de la formación de nuestra identidad que se rebelan de utilidad. Si uno de los principales retos en la sociedad actual es hacer cómplices a los ciudadanos en los objetivos de progreso y desarrollo de la misma, que duda cabe que el conocimiento y comprensión de lo que fue el espacio en el que nos movemos puede ayudar en esta complicada tarea. Probablemente este conocimiento de los valores de nuestro patrimonio y de nuestra historia no nos hará mejores, pero en la medida en que colabore a mejorar nuestra relación con el entorno y a formar personas sensibles hacia el legado material e inmaterial de nuestros antepasados, esta apuesta valdrá la pena.

Antes de finalizar esta breve introducción, creemos necesario apuntar el marco cronológico que abarca este estudio. 1615 constituye su fecha de inicio y 1800 el punto final. La concesión del título de villa a Zizurkil en 1615 supone un punto de inflexión trascendental en su categoría jurídica, pensamos que lo suficientemente importante como para analizar su historia posterior partiendo desde este hito. No obstante, esta circunstancia no debe hacernos pensar en un borrón y cuenta nueva con lo anterior. Por otra parte, 1800 supone inaugurar un nuevo siglo, el XIX, convulso y trepidante, en el que

dea, alegia. Mende nahasia da, orduantxe hasten baita aldatzen ordura arte tradizionaltzat jo dezakegun gizartea.

Bi data hauen arteko aldia nahiko homogenea da eta bertan jokabide-eredu batzuk antzeman daitezke, tentsio eta aldaketei lotuta egon arren, modu bertsuan azter daitezkeenak.

comienzan a ser perceptibles los aires de cambio en una sociedad que hasta entonces podíamos definir como tradicional.

Así, entre ambas fechas se extiende un periodo bastante homogéneo, en el que son reconocibles ciertos patrones de comportamiento, que si bien sujetos a tensiones y cambios, permiten abordar su análisis de manera homogénea.





1



# Hiribilduaren gobernua

El gobierno de la villa



## 1. HIRIBILDUAREN GOBERNUA

### 1.1. Lehen urratsak: bat egiteak

Zizurkilek 1615ean eskuratu zuen Tolosarekiko independentzia judiciala. Gipuzkoako beste herrixka batzuekin batera, aurreko estatus juridikoa aldatu egin zuen, Batzar Nagusietan boterea kontrolatzeko Gipuzkoako hiribildu nagusien arteko –Tolosa, Segura, Donostia, Azpeitia, Azkoitia eta Bergara<sup>1</sup>– borrokari esker. Horrela, zuzenean har zezakeen parte erabakiak hartzeko erakunde politiko nagusian, non probintziako gobernuaren gairik garrantzitsuenak aztertzen eta erabakitzen ziren. Alabaina, Gipuzkoako hiribildu nagusien ikuspegia gailentzen zen oraindik. Halaber, beste arazo bat zegoen: korporazio politiko txiki hauek instituzio probintzial nagusian –Batzar Nagusian– parte-hartzetik sortutako gastu handiei aurre egiteko modua.

Kontuan hartu behar da hiribildu titulua erdiesteko eta desanexio-espediente bideratzeko prozesu luzearen kostua ordaintzeko, Zizurkilek eta gainerako hiribilduek jesapenetara edo maileguetara jo behar izan zutelara, eta horren ondorioz, herrietako ekonomiak luzaroan ahulduta utzi zituzten<sup>2</sup>.

Hiribildu berri batzuk elkartu egin ziren bilera probintzietan parte-hartzeak zekarren dirutzari erantzuteko. Hala, ordezkariak Batzarretara bidaltzearen ondoriozko gastuak elkartutako komunitateen artean ordaintzen zituzten<sup>3</sup>. Partekatutako arazoak ere denon artean konpontzen zituzten. Horretarako, kidesan eta lotura kolektiboak bilatu ziren jardura sozio-ekonomiko komunak zituzten eta espazio bateratu bat osatzen zuten hiribilduen artean.

Zizurkil dugu lehenetarikoa elkartzeko. 1616ko apirilaren 14an gorpuztu zen legez gure hiribilduaren eta Aia, Errezil, Bidania, Goiatz, Asteasu, Larraul eta Usurbilen arteko “senidetasuna eta adiskidetasuna”. Bat egite honen helburua beren eskumenetako lurretan zebiltzan etxe eta abereen lapurrei elkarrekin aurre egitea zen<sup>4</sup>. Abereei zegokionez interes komunak zituzten erakunde hauek mendi batzuk partekatzen zituzten eta, gainera, denek pairatzen zituzten beren barrutietan delituak, komunitate hauen gobernuaren egonezina eragiten zutenak. Hain zuzen ere, abere-zaindariei leporatzen zituzten lapurretak, mendi batetik bestera eramaten baitzituzten aziendak, barrutia ezagutzen zutelara eta hutsune legala zegoela aprobetxatuz.

## 1. EL GOBIERNO DE LA VILLA

### 1.1. Primeros pasos: las uniones

Zizurkil había conseguido la independencia judicial de Tolosa en 1615. Junto a un buen número de aldeas guipuzcoanas había visto modificado su anterior estatus jurídico al beneficiarse de la lucha por el control del poder en las Juntas Generales entre las principales villas de Gipuzkoa (principalmente Tolosa, Segura, Donostia, Azpeitia, Azkoitia y Bergara<sup>1</sup>). De esta forma, conseguía una participación directa en el principal organismo político de decisión, en el que se planteaban y decidían las cuestiones más relevantes del gobierno de la provincia. Sin embargo, otra cosa era cómo hacer valer su voz en unas reuniones en las que continuaban imponiendo su visión las principales villas guipuzcoanas. Asimismo, otro nuevo problema era la manera de hacer frente a los elevados gastos derivados de la participación de estas pequeñas corporaciones políticas en la principal institución provincial, la mencionada Junta General.

Hay que tener en cuenta que para conseguir el título de villa y sufragar los costos económicos del largo proceso que supuso la tramitación del expediente de desanexión, Zizurkil y el resto de nuevas villas habían tenido que recurrir masivamente a empréstitos que dejaron maltrechas las economías locales durante bastantes años<sup>2</sup>.

La forma que una parte de las nuevas villas idearon para hacer frente a los nuevos y onerosos desembolsos que suponía tomar parte regularmente en las reuniones provinciales fue la creación de Uniones entre ellas. De esta manera se repartían entre todas las comunidades que integraban la Unión los gastos resultantes del envío de sus representantes a las Juntas<sup>3</sup>. Igualmente se buscaban soluciones conjuntas para problemas compartidos. Para ello se buscaron afinidades y vinculaciones colectivas derivadas de actividades socio-económicas comunes y de la pertenencia a un espacio unitario.

Una de estas tempranas uniones estará protagonizada por Zizurkil. Ya en 14 de abril de 1616 tomó cuerpo legal una “hermandad y concordia” entre nuestra villa y Aia, Errezil, Bidania, Goiatz, Asteasu, Larraul y Usurbil. El objetivo de esta alianza era proceder de manera conjunta contra los numerosos ladrones de casas y ganados que actuaban en sus jurisdicciones<sup>4</sup>. Todas estas entidades comparti-

<sup>1</sup> S. TRUCHUELO: *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1997 (218). / S. TRUCHUELO: *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII)*. Donostia: Diputación Foral de Gipuzkoa, 1997 (218).

<sup>2</sup> J.C. MORA: *Zizurkigo historia. Bailaratik hiribildura (1186-1615)*. Tolosa: Lizardi Kultur Elkartea, 2005 (119-124). Berta jasotzen da independentzia judiciala lortzeko hasitako prozedura administratiboa dela-eta zor zen azken herenaren ordainketaren banaketa Zizurkilgo auzotar eta biztanleen artean. / J.C. MORA: *Zizurkigo historia. Bailaratik hiribildura (1186-1615)*. Tolosa: Lizardi Kultur Elkartea, 2005 (119-124). Se recoge el reparto entre los vecinos y moradores del pago del último tercio de lo debido por el proceso administrativo incoado para la consecución de la independencia judicial.

<sup>3</sup> S. TRUCHUELO: *La representación...* (251. or. eta hurrengoak.). / S. TRUCHUELO: *La representación...* (251 y sigs.).

<sup>4</sup> Gipuzkoako Artxibo Orokorra. JD IM Sec. 1º/Neg. 18/Leg. 19. / Archivo General de Gipuzkoa. JD IM Sec. 1º/Neg. 18/Leg. 19.





Ariote / Vagabundo

Dirudienez, gainera, herrietako epaileek ez zituzten ebasleak behar bezala zigortzen. Egoera honekin amaitzeko, ahalordea eman zitzaizen herri haue-tako alkate arrunt guztiei beren eskumenetako lurretan osten zuten lapurren kontra gogor aritzeko. Elkartutako hiribilduek hartuko zituzten beren gain gaizkileen aurka hasitako kausa judizialen ondorioz sortutako gastuak.

Horrez gain, herrietako justizien zeregina hobeto kontrolatzeko, bi dipu-tatu izendatu ziren kontzeju bakoitzeko, komunitate hauek onartutako kapitu-luak betearazteko eta alkateek ezarritako zigorrak egokiak zirela ziurtatzeko. Kontuan izan behar da kontzejuek eskumen judizial hauek onartu eta pixka-naka abian jarri bitartean, hutsune bat sortu zela delitua zigortzeko orduan eta, esan bezala, ederki aprobetxatu zen hau.

Batzar Nagusietan parte hartzeko bat egitei dagokienez, Zizurkil 1631n ageri da –Amasa eta Anoetarekin batera– Zubiberria izeneko Elkartean. Hiribildu hauek ordezkari bakarra izendatu zuten batzar probintzietara joa-teko, eta gastuak partekatzeaz gain, beren interesen araberako jarraibide komunak ematen zituzten<sup>5</sup>.

Senidetasun hau 1644. urtera arte luzatu zen. Urte honetan, Zizurkilek Elkartea utzi zuen Batzar Nagusietara bakarrik joateko. Bilera probintzietara joatearen ondoriozko gastu handiak zirela-eta, 1649an, Zizurkilek ez du Asteasuko bailararekin –Adunak eta Alkizak ere osatzen duten Aiztondoko Alkatetza Nagusiaren buruarekin– elkartzea baino beste erremediorik izan-go. Dena den, elkarte hau honako ekintza hauetara mugatuta zegoen: Batzar Nagusietan parte hartzea, altxamendu militarrek egitea eta arma-erakuske-ten prestatzea<sup>6</sup>.

an unos intereses ganaderos comunes y el disfrute colectivo de algunos de sus montes, pero también la comisión de delitos rurales en sus términos que provo-caban inquietud en el gobierno de estas comunidades. En concreto, se acusaba de realizar robos a los propios encargados de custodiar el ganado, quienes tras-ladaban el ganado de un monte a otro aprovechando el conocimiento del tér-mino y el vacío legal. Este escenario se veía agravado por el hecho, según se decía, de que la administración de justicia era aplicada con poco rigor por los jueces locales. Para acabar con esta situación se procedió a dar facultad a todos los alcaldes ordinarios de estos pueblos para que actuaran con dureza contra los ladrones que actuaban en sus jurisdicciones, asumiendo todos los par-ticipes de esta Unión las costas procedentes de las causas judiciales que se abrieran a los malhechores.

Además, para un mayor control del correcto proceder de las justicias locales se nombraron dos diputados por cada concejo, encargados de hacer cumplir los capítulos aprobados por estas comunidades. Su misión era también velar por la adecuada administración de justicia por los alcaldes de las mismas. Hay que tener en cuenta que la reciente asunción por estos concejos de las competencias judiciales y su paulatina implantación abrió un cierto vacío en la represión del delito que como hemos indicado, no tardó en ser aprovechado.

Por lo que se refiere a la formación de uniones para participar en las Juntas Generales, Zizurkil está presente en 1631 en la llamada Unión de Zubiberria, integrada también por Amasa y Anoeta. Estas 3 villas decidieron designar un solo representante que asistiese a las juntas provinciales, compartiendo gastos y dando instrucciones comunes de acuerdo a sus intereses<sup>5</sup>.

Esta hermandad se prolongó hasta 1644, año en el que la villa de Zizurkil dejó de tomar parte en esta Unión para acudir a las Juntas Generales de forma individual. Nuevamente los elevados gastos que suponía asistir privadamente a las reuniones provinciales están en la base de la agregación de Zizurkil al valle de Asteasu en 1649, cabeza de la Alcaldía Mayor de Aiztondo (de la que participaban también Aduna y Alkiza). Esta incorporación estaba limitada a tomar parte en las Juntas Generales, las levantadas militares y la preparación de las muestras de armas<sup>6</sup>.

No puede decirse que las condiciones de esta Unión fueran ventajosas para Zizurkil. Asteasu, principal integrante de la Alcaldía Mayor de Aiztondo, se arro-

<sup>5</sup>P. GOROSABEL: *Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa con un apéndice de las cartas puebla y otros documentos importantes*. Bilbao: Euskal Entziklopedia Nagusia, berrargit. 1972 (644). / P. GOROSABEL: *Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa con un apéndice de las cartas puebla y otros documentos importantes*. Bilbao: Gran Enciclopedia Vasca, reed. 1972 (644).

<sup>6</sup>P. GOROSABEL: *Diccionario...* (644). / P. GOROSABEL: *Diccionario...* (644).

Ezin da esan bat egite honen baldintzak onuragarriak zirenik Zizurkilentzat. Aiztondoko Alkatetza Nagusiaren kide nagusia den Asteasuk beretzat hartzen zuen handik aurrera Zizurkilen izenean joango ziren batzarkideak izendatzeko eta argibide zehatzak emateko ahalordea. Zizurkilek batzarkideak izendatu ezin zituen arren, Asteasuko bailara behartuta zegoen bilera haietan jorratu eta erabakitakoa Zizurkilgo hiribilduari jakinaraztera eta Batzarraren erregistroa bidaltzera.

Botereen lagapen honen azalpena Zizurkilen eta Asteasuko bailararen arteko adiskidetasun-eskrituran jasotzen da; horretarako arrazoi nagusiak, oraintxe ikusiko dugunez, gure hiribilduak garai hartan zituen errenta urriak eta udal-gastuen gehikuntza dira: "por los grandes gastos y costas en las continuas obligaciones del servicio del Rey, nuestro señor, de paz y guerra que a havido y ay, y alojamientos, tránsitos y bagajes de compañías y soldados y su conducción que habían echo y se les abía ofrescido y otros muchos gastos que abía tenido y tienen, de manera que no se les a quedado sustanzia para acudir conforme a sus deseos, y por alibiarse de las dichas obligaciones y para mejor acudir al servicio de Dios, de su magestad y a las obligaciones y cosas de la dicha Provinzia y de la república, havían acordado y ordenado agregarse y unirse la dicha villa de Zizurquil al dicho valle de Asteasu<sup>7</sup>".

Aurreko paragrafoan adierazitako arazo ekonomikoek Hogeita hamar Urteetako Gerraren amaierarekin zuten zerikusia. Gerra hau urtebete lehenago bukatu zen Westfaliako Bakea sinatu ondoren (1648). Gerra hau, azkenean, Richelieu kardinalaren menpeko Frantziaren eta Habsburgotarren arteko liskarra bilakatu zen, eta biek Europako mendealdearen hegemonia eskuratzea bilatzen zuten<sup>8</sup>. Gipuzkoan, borroka honen ondorioz, Hondarribiko Plaza setiatu zuten Condé Printzearen aginduetara zeuden soldaduek 1638an<sup>9</sup>. Lurraldea defendatzeko gipuzkoarrek eskainitako gizonen eta diruak eragina izan zuten hainbat herriren ekonomietan, besteak beste, Zizurkilen.

Gainera, Aiztondoko Alkatetza Nagusiarekin bat egiteko erabakian azaltzen den konpainia militarrei buruzko puntuari dagokionez, hauxe zehazten da: Asteasuri dagokio kapitaina eta gainerako ofizialak izendatzea, Aiztondoko Alkatetza Nagusian zuen lekuari zegokion bezala; Zizurkil, berriz, beste edozein kide bezala, inolako lehentasunik gabe, sartuko da konpainian.

gaba el poder de nombrar los junteros y la capacidad de otorgarles las instrucciones precisas para su intervención en Juntas, quienes acudirían en adelante también en nombre de la villa de Zizurkil. Aunque ésta no participaba en el nombramiento de los junteros, quedó reglamentada la obligación del valle de Asteasu de informar a Zizurkil de lo tratado y decretado en esas reuniones y de remitirle el registro de la Junta.

La explicación de esta cesión de poderes se explicita en la escritura de concordia entre Zizurkil y el valle de Asteasu, que se resume en las escasas rentas con que contaba en estos momentos nuestra villa y el fuerte incremento que habían conocido los gastos municipales en los últimos años. Así, se dice que "por los grandes gastos y costas en las continuas obligaciones del servicio del Rey, nuestro señor, de paz y guerra que a havido y ay, y alojamientos, tránsitos y bagajes de compañías y soldados y su conducción que habían echo y se les abía ofrescido y otros muchos gastos que abía tenido y tienen, de manera que no se les a quedado sustanzia para acudir conforme a sus deseos, y por alibiarse de las dichas obligaciones y para mejor acudir al servicio de Dios, de su magestad y a las obligaciones y cosas de la dicha Provinzia y de la república, havían acordado y ordenado agregarse y unirse la dicha villa de Zizurquil al dicho valle de Asteasu<sup>7</sup>".

Los problemas económicos apuntados en el párrafo anterior estaban relacionados con el hecho de que un año antes había finalizado la llamada Guerra de los Treinta Años tras la firma de la Paz de Westfalia (1648). Esta guerra se había convertido en su fase final en un conflicto entre los Habsburgo y Francia, que bajo el liderazgo del cardenal Richelieu, se disputaban la hegemonía en Europa occidental<sup>8</sup>. En Gipuzkoa, esta contienda tuvo su principal episodio en el asedio de la Plaza de Hondarribia en 1638 por las tropas capitaneadas por el Príncipe de Condé<sup>9</sup>. El socorro que prestaron los guipuzcoanos en hombres y dinero para la defensa de su territorio tuvo su reflejo en el endeudamiento de numerosas economías locales, entre ellas, como se ha puesto de manifiesto, Zizurkil.

Además, sobre el punto relativo a las compañías militares que figura en el acuerdo de agregación a la Alcaldía Mayor de Aiztondo, se precisa que correspondía a Asteasu el nombramiento del capitán y del resto de oficiales, manteniendo sus preeminencias como lugar principal de la Alcaldía Mayor de Aiztondo, mientras que Zizurkil por su parte, se agregaría a la compañía como un integrante más sin ningún tipo de preferencia.

<sup>7</sup> Gipuzkoako Artxibo Orokorra. JD IM Sec. 1º/Neg. 18/ Leg. 36. / Archivo General de Gipuzkoa. JD IM Sec. 1º/Neg. 18/ Leg. 36.

<sup>8</sup> PARKER, G.: *La Guerra de los Treinta Años*. Madrid: A. Machado, 2003; DOMINGUEZ ORTIZ, A.: *La guerra de los Treinta Años*. Madrid: Cuadernos de Historia, nº 16, 1997. / PARKER, G.: *La Guerra de los Treinta Años*. Madrid: A. Machado, 2003; DOMINGUEZ ORTIZ, A.: *La guerra de los Treinta Años*. Madrid: Cuadernos de Historia, nº 16, 1997.

<sup>9</sup> MORA AFAN, J.C. (koor.): *Gerra ilustratua Hondarribian, hiriaren setioa 1719an*. Hondarribia: Udala, 2005. / MORA AFAN, J.C. (arg.): *Gerra ilustratua Hondarribian, hiriaren setioa 1719an*. Hondarribia: Udala, 2005.

Bat egite honek 1664. urtera arte iraun zuen, orduantxe utzi baitzuen Zizurkilek ermandade hau<sup>10</sup>.

Cabe señalar que esta unión se mantuvo hasta 1664, fecha en la que Zizurkil abandonó esta hermandad<sup>10</sup>.

### HIRIBILDU BERRIAK, AUZOTAR-KOPURUA ETA ERRENTAK (1615eko maiatza)

ORDEN DE LOS ASIENTOS DE LAS NUEVAS VILLAS Y AVERIGUACION DE VECINDAD Y RENTAS (Mayo 1615)

HIRIBILDUAK/VILLAS	SUAK/FUEGOS	AUZOTARRAK/VECINOS	ETXEAK/CASAS	ERRENTA (DUK.)/RENTA (DUC.)
Zegama	19	200	160-200	600
Berastegi	24	120-130	120-130	700
Andoain	24	130	130	¿?
Ataun	10,5	200	150-200	50
Idiazabal	21	120-130	110-140	320
Amezqueta	17	150	130	250
Albiztur	24	80	90	120-130
Abaltzisketa	17	90	80	150
Amasa	13	¿?	80	250
Beasain	10,5	100	100	200
Orendain	11	70	40-60	200
Zaldibia	10	90	70	300
Ormaiztegi	10	60	60	¿?
Zizurkil	20	90	60-80	200
Astig.-Gudug.	8	24	24	50
Mutiloa	9	50	40-50	40-200
Anoeta	13	20	26	80
Ikaztegieta	6	16	24	70
Itsasondo	5	50	50	100
Altzaga	5	20	20	60
Altzo	8	30	43	140-150
Elduain	10	¿?	¿?	¿?
Legorreta	11	60-70	60-70	200
Gaintza	10	42-50	47-50	60-70
Urniet	16,66	¿?	¿?	¿?
Ezkio etxea	14	40	40	¿?
Gabiria etxea	6	11	11	140
Zerain	10	70	55-70	40-60
Alegia	8	¿?	90-100	300
Baliarrain	8	16	20	300
Arama	3	11	9-11	60

Iturria: S. TRUCHUELO: *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII) (219. or)*/Fuente: S. TRUCHUELO: *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII) (p. 219)*

<sup>10</sup> P. GOROSABEL: Op. Cit. (644). / P. GOROSABEL: Op. Cit. (644).

Alabaina, Zizurkilek jarraitu zuen antzeko arazoak zituzten beste korporazio batzuen laguntza bilatzen. Hortxe dugu eskualdeko eskumenetan lapurtzen zuten gaizkileak zigortzeko aipatu dugun saiakera. Zentzu honetan, XVII. mendearen 80ko hamarkadaren inguruan, egoerak okerrera egin zuen. Hau dela eta, 1684ko abuztuaren 2an Amasa-Villabonan bildu ziren Andoain, Berastegi, Elduaien, Asteasu, Hernani, Amasa-Villabona, Zizurkil eta Urnieta herriak, beraien barruti menditsuetan bizi zuten delitu boladarekin amaitzeko asmoz. Zizurkilek bi auzotarri –Joanes Zaldúa Fraidesorori eta Francisco Izagirreri– eman zien ahalordea, kontzejuaren izenean, ekimen horretan parte hartzeko<sup>11</sup>.

Hau da bilera horren aktan adierazten dena: “son tan frecuentes y graves los robos y salteamientos que se comenten en los caminos y montes de esta provincia que ya no ay cosa ni persona segura ni ganado en parage que sea despoblado”. Egoeraren larritasunak bultzatuta eta errepublikan justiziek arazoa ezin zutela konpondu ikusita –izan ere, oso garestia zen auziak Valladolideko Kantzileriaz bideratzea–, elkartea eta ermandadea osatuko dute 10 urtez honako baldintzen arabera:

- errepublika bakoitzak esku hartu beharko du bere barruti eta eskumeneko lurretan delitu bat egiten den bakoitzean eta gainerako herriei jakinarazi beharko die. Gaizkileak harrapatzen saiatuko da, eta ezin badu, auzi-ihesari emango dio hasiera.

- delitua jurisdikzio batean eta atxiloketa beste jurisdikzio batean gertatuz gero, delitua egin duen eskumenera bidaliko da gaizkilea, atxiloketa gertatu den lekuko alkateak ordura arte egindako auto originalekin batera. Ebatsitako objektuekin atzemanaz gero, ordea, atxilotu duten lekuko justiziak jarraituko du autoekin.

- presoak itun hau osatzen duten 8 errepubliketatik kanpo egingo balu delitua, delitua egin duen lekura bidaliko da, bertako justiziak hala eskatuz gero. Bestela, ostutako objektuarekin harrapatu izan balute bezala emango zaio kausari hasiera.

- eta azkenik, herri guztiek izan beharko dute kartzela seguru bat eta presoen gastuak berengain hartu. Jarraian, presoak nola zaindu behar diren zehazten da.

Sin embargo, Zizurkil no se resignó a buscar el apoyo de otras corporaciones vecinas con las que compartía problemas semejantes, tal es el caso del anteriormente citado intento de castigo de los ladrones y malhechores que actuaban en las jurisdicciones de la comarca. En este sentido, a la altura de la década de los 80 del siglo XVII, la situación de inseguridad en la zona se había agravado. Por esta causa, en 2 de agosto de 1684 se reunieron en la villa de Amasa-Villabona los pueblos de Andoain, Berastegi, Elduaien, Asteasu, Hernani, Amasa-Villabona, Zizurkil y Urnieta para tratar de poner fin a la oleada de delitos que se cometían en sus montuosos términos. Para ello, la villa de Zizurkil había dado poder a dos de sus vecinos, Joanes de Zaldúa Fraidesoro y Francisco de Izagirre, para que representando al concejo, tomaran parte de esta iniciativa<sup>11</sup>.

Según se especifica en el acta de esta reunión, “son tan frecuentes y graves los robos y salteamientos que se comenten en los caminos y montes de esta provincia que ya no ay cosa ni persona segura ni ganado en parage que sea despoblado”. La gravedad del caso y el hecho de que esta circunstancia no podía ser solventada por las justicias de las repúblicas a causa de los considerables gastos que conllevaba ejecutar las causas en la Chancillería de Valladolid, deciden formar esta unión y hermandad por tiempo de 10 años bajo las siguientes condiciones:

- que cada república intervenga de oficio en su término y jurisdicción cada vez que se cometa un delito, comunicando la noticia al resto de pueblos. Tendrán que intentar prender a los delincuentes, y si no pudieran conseguirlo, acuerdan proseguir la causa en rebeldía

- los presos detenidos en una jurisdicción que hubieran cometido el delito en otra, se remitirán a ésta con los autos originales realizados hasta el momento por el alcalde de la primera, salvo en el caso de que les atraparen con los objetos robados. En tal supuesto se ordena que la justicia del lugar donde hayan sido detenidos continúen con los autos

- si el reo cometiese el delito en otra jurisdicción fuera de las 8 repúblicas integrantes de este pacto, se remitirá a la justicia donde hubiere delinquirido si fuere requerido por ella. En caso contrario, se proseguirá la causa de igual manera que si hubiera sido prendido con el objeto robado

- y finalmente, todos los pueblos tendrán que disponer de cárcel segura y correr con los gastos de los presos, especificándose a continuación cómo se debe proceder con el mantenimiento de los presos.

<sup>11</sup> Asteasuko Udal Agiritegia. A-7-1 / Archivo Municipal de Asteasu. A-7-1

## 1.2. Udal-ordenantzak

Ikusi dugun bezala, hiribildu berriak hasieratik egin behar izan ziren aurre gobernua kontuak kudeatzeko gaitasuna kinka larrian jartzen zuten hainbat jarduerari. Gobernuaren kontu hauek gainditu egiten zituzten Zizurkilek ordura arte zuen erabakitze ahalmena. Gai honen harira, eskumen berriak –bereziki, judizialak– eskuratu ondoren, Zizurkilgo kontzeju tradizionalaren administrazio-organoen egitura zertan aldatu zen galdetuko dio gutako batek baino gehiago bere buruari.

Lehenik eta behin, nobedaderik garrantzitsuena alkate karguaren presentzia izan zen. Aurrerantzean, auzoko bileren buru zen aldetik, udalerriko agintari judizial nagusiak bideratuko zituen jorratu beharreko gaiak. Nolanahi ere, funtsean, barne-gobernuko jarduerak ez ziren ia aldatu. Zizurkil bezalako landa-komunitateetan, jarduera hauek sistema politiko patriarkal-komunitario batean oinarritzen ziren. Zizurkilgo urrun zegoen Probintziako hiribildu nagusietako sistema politikoetatik, non organo administratiboen arrazionalizazioa handia zen<sup>12</sup>. Hala, aipatutako hiribilduek udal-ordenantzak zituzten bitartean, Zizurkilek ez zituen ez eskumenak mugatuta, ez gobernu-organok profesionalizatuta. Hiribildu horietako udal-ordenantzek komunitatearen funtzionamendu kolektiboaren oinarri ziren tokiko ohiturak jaso eta kargu publikoak eta hauen funtzioak zehazten zituzten. Egoera honek, aurrerago ikusiko dugun moduan, bide judizialek konpondu beharreko arazoak sortzen zituen tarteka.

Egoera honekin amaitzeko, Zizurkilgo hiribilduak errege-lizentzia eskatu zuen 1754ko apirilaren 26an bere ordenantzak onartzeko. Bultzatzaileen esanetan, ordenantzen xedea ondo gobernatzea eta justizia administratzea zen: “buen gobierno y administración de justicia<sup>13</sup>”. Harrezkero, auzotarrek nahitaez bete beharko zuten ordenantzen ia 90 puntuetan hitzartutakoa, hemendik aurrera arau hauek mugatu eta arautuko baitzuten herriaren funtzionamendu administratibo eta ekonomikoa.

Interesgarria iruditu zaigu ordenantzen edukia aztertzea, garaikideek kontzejuaren funtzionamendua ulertzeko moduaren testigantza bikaina da eta: gaiak zailtasun edo interesaren arabera daude antola-

## 1.2. Las ordenanzas municipales

Como acabamos de comprobar, la nueva villa tuvo que enfrentarse desde sus comienzos a una serie de actuaciones que ponían a prueba su capacidad para gestionar asuntos de gobierno que excedían a las capacidades decisorias de las que hasta el momento había disfrutado. Al hilo de esta cuestión, cabe preguntarse en qué cambió la estructura de los órganos de administración del tradicional concejo de Zizurkil a raíz de la asunción de las nuevas competencias, en especial, las judiciales.

En principio, la principal novedad fue la presencia entre los diferentes cargos públicos de la figura del alcalde. En adelante máxima autoridad judicial del municipio, encabezaba las reuniones vecinales y como tal, encaminaba los principales asuntos a tratar, aunque en lo fundamental las prácticas de gobierno interno apenas debieron modificarse. En las comunidades rurales como Zizurkil, éstas se llevaban a cabo en base a un sistema político de raíz patriarcal-comunitario bastante alejado del que imperaba en las principales villas de la provincia, cuyo funcionamiento se regía por una elevada racionalización en los órganos administrativos<sup>12</sup>. Así, frente a la existencia en estos pueblos de ordenanzas municipales en las que se recogían las costumbres locales, base del funcionamiento colectivo de la comunidad, y en las que se especificaban los cargos públicos y sus funciones, en Zizurkil no se había producido una delimitación competencial que supusiera una ruptura con el anterior estatus aldeano ni se había llegado a una profesionalización en los órganos de gobierno similar al operado en las principales villas de Gipuzkoa. Esta circunstancia, como veremos más adelante, acarrearba cada cierto tiempo problemas que en ocasiones tenían que ser solucionados por la vía judicial.

Para acabar con esta situación, la villa de Zizurkil solicitó en 26 de abril de 1754 licencia real para aprobar sus ordenanzas municipales, destinadas al “buen gobierno y administración de justicia<sup>13</sup>”, según las propias palabras de sus impulsores. Confirmadas finalmente en 7 de enero de 1756 por el rey Fernando VI, debieron reformarse algunos de sus capítulos para su aprobación definitiva. A partir de este instante, lo estipulado en los casi 90 puntos de que constaban serían de cumplimiento obligado por sus habitantes y vecindario, pasando a delimitar y regular el funcionamiento administrativo y económico de la localidad.

Pensamos que es interesante detenernos en su contenido pues constituyen un magnífico testimonio de la forma en la que los coetáneos entendían la vida concejil, estructurando pormenorizadamente aquellos asuntos que por su complejidad o por su interés necesitaban de mayor atención. Del mismo modo, suponen una fuen-

<sup>12</sup> HESPANHA, A.M.: “Centro y periferia”, *La gracia del derecho. Economía de la cultura en la Edad Moderna*. Madrid: Centro de Estudios Constitucionales, 1993 (127-130). / HESPANHA, A.M.: “Centro y periferia”, en *La gracia del derecho. Economía de la cultura en la Edad Moderna*. Madrid: Centro de Estudios Constitucionales, 1993 (127-130).

<sup>13</sup> Zizurkilgo Udal Agiritegia. 1.1/5. / Archivo Municipal de Zizurkil. 1.1/5.



tuta. Era berean, informazio-iturri ezin hobea eta zehatza eskaintzen dute, eta bertan jasotako alderdi batzuk aurrerago aztertzea saihesten da hala.

Hauek dira udal-ordenantzen kapituluak, jatorrizko ordena errespetatuz:

### 1. Udal-hauteskundeetan urtero izendatu behar diren ofizialak

Alkate arrunta eta bere ordekoa, bi errejidore (herrira iristen diren elikagaiak eta hornigaiak neurtu eta baloratu behar dituztenak), sindiko bat eta kontuen maiordomo (diruzain) bat –bileretan boto eskubiderik izango ez duena–, eskribau leial bat eta bi maiordomo, bat San Millan elizaren kontu eta errententzat eta bestea Andre Maria Arrosariokoaren kofradiarentzat. Azken hauek ez dute bileretan ez hitz eta ez boto eskubiderik izango eta ezin izango dira bileretara joan, baldin eta ez bazaie joateko eskatzen. Eskribauak, aldiz, bileretara joan beharko du erabakitakoaren fede emateko. Halaber bi kontu-ikuskatzaile, Gurutzadako bulda jasotzeko arduradun bat eta bi basozain izendatuko dira.

Kargu hauek San Miguel (irailaren 29an) egunean aukeratuko dira. Hautatua izateko baldintza batzuk bete behar ziren: auzotarra eta kaparea izatea eta kargua betetzeko trebe eta gai izatea. Zizurkil, Probintziako herri nagusietan ez bezala, ez zen beharrezkoa idazten eta irakurtzen jakitea, ezta gaztelaniaz hitz egitea ere. Bestela, aurreko baldintzak betetzen zituzten lagun gehienek ezin izango zuten bertan parte hartu.

te de información excepcional que evita tratar más adelante algunos de los aspectos aquí recogidos al ser suficientemente explícitos al respecto los citados capítulos.

Así, respetando el orden original, los capítulos de que constan las ordenanzas municipales son:

### 1. Oficiales que se han de nombrar en las elecciones municipales anualmente

Estos son alcalde ordinario y su teniente, dos regidores (siendo sus funciones el cuidar de aforar y apreciar los viveres y suministros que llegaren al pueblo), un síndico y un mayordomo (tesorero) de cuentas, éste sin voto en las reuniones, un escribano fiel y dos mayordomos, uno para las cuentas y rentas de la iglesia de San Millán y otro para la cofradía de Nuestra Señora del Rosario, éstos últimos también sin voz y voto y sin poder hallarse presente en las reuniones concejiles a no ser que fueran llamados para ello, salvo el escribano, quien debía tomar testimonio de lo que se acordare. También serían nombrados dos veedores de cuentas, un colector de la bula de la Santa Cruzada y dos guardamontes.

La elección de estos cargos se celebrará el día de San Miguel (29 de septiembre). Para poder participar en la misma había que cumplir varios requisitos: ser vecino e hidalgo, hábil y suficiente para desempeñar el puesto. En Zizurkil, añadimos nosotros, y al contrario que en los principales pueblos de la Provincia, no se especifica la necesidad de saber leer y escribir y conocer el castellano, pues este hecho sin duda hubiera dejado a la mayoría de las personas que cumplían las condiciones anteriores sin posibilidad de tomar parte en las mismas.

Udal Ordenantzak/ Ordenanzas municipales (1756).ZUA, 297,1



Alkatea berrautatzeko 3 urte itxaron behar ziren; errejidore eta gainerako ofizialen kasuan, berriz, 2 urte.

## 2. Udal-hauteskundeak Arguruzeaga kontzejuaren etxean

Horretarako, hainbat ondasun zituzten auzotar, noble eta kapare biltzen ziren San Millan elizan Espiritu Santuaren meza kantatubat egin ondoren: "para que sea servido Nuestro Señor de alumbrar para que los electores de los dichos oficiales acierten a hacer la elección de ellos".

Muga hauen helburua gobernuaren kontuak zuzentzeko arduradun iaioenak aukeratzea zen. Izan ere, ondasunak izateak eta gainerako baldintzak betetzeak erakusten zuten gai izan zirela beste esparru garrantzitsu batean, hau da, familiako etxean. Eta ondorioz, gauza izango ziren komunitatearen kontuak aurrera eramateko.

## 3. Eskribauaren zeregina hauteskundeetan

Eskribauak jaso egingo ditu hauteskundeetan parte hartuko duten auzotar guztien izenak. Izenak txarteletan idatzita daudela, ontzi batean sartuko dira. Nahastu ondoren, morroi batek hiru txartel atera eta alkateari emango dizkio. Eskribauak hautesleen izenak irakurri eta gero, hauek auzotar aproposak aukeratu dituztela zin egingo dute. Jarraian, bilera egin duten kapitulu-gelatik irten eta kontzejuaren etxean bertan dagoen beste gela batean sartuko dira. Bertan, proposatutako auzotarrak izendatuko dira askatasun osoz eta botoen gehiengoa baliatuta.

## 4. Alarde publikoak egiteko modua

Urtero egingo dira alardeak, Zizurkil 5 legoara baitago Behobiatik, armada frantsesaren igarobide tradizionaletik, hain zuzen. Hori dela eta, beharrezkoa zen auzotarrak eta biztanleak armak maneiatzen aldizka trebatzea. Alkatea –eta alkaterik ez dagoenean, alkateordea– izango da udal-armadaren kapitaina; errejidore leiala, berriz, alferiza, eta bigarren errejidorea, sarjentua.

## 5. Erabakien liburua

Alkateak hala eskatuta, erregimentuak emandako ebazpenak erabakien liburuan idatziko ditu eskribauak. Dakitenek sinatu egingo dute, eta bestela, eskribauak izenpetuko du.

Para la reelección del alcalde se debía guardar un espacio de tiempo de 3 años, mientras que para el caso de los regidores y del resto de oficiales este período se estipula en 2 años.

## 2. Celebración de elecciones municipales en la casa concejil de Arguruzeaga

Para ello se reunirán todos los vecinos que cumplan los requisitos de vecindad, posesión de cierto número de bienes, ser nobles e hidalgos, una vez celebrada una misa cantada del Espíritu Santo en la iglesia de San Millán "para que sea servido Nuestro Señor de alumbrar para que los electores de los dichos oficiales acierten a hacer la elección de ellos".

Hay que señalar que con estas limitaciones se pretendía que las personas encargadas de dirigir los asuntos de gobierno fueran los más capaces, pues la posesión de bienes y el resto de condiciones apuntadas pretendían señalar que nos encontramos ante individuos que habían demostrado ya su idoneidad en un ámbito inferior pero sumamente importante, la casa familiar. Por tanto, estarían capacitados para dirigir los asuntos de la comunidad.

## 3. Asistencia a las elecciones del escribano y apuntamiento en el libro de elecciones

El escribano apuntará el nombre de todos los vecinos que concurran a las elecciones, haciéndose con sus nombres charteles que se echarán en un cántaro u olla, revolviéndose y sacando un muchacho hasta 3 charteles, que los entregará al alcalde. Este hará leer al escribano sus nombres, quedando designados como electores y recibiendo juramento de que harán la elección en personas idóneas. A continuación, saldrán de la sala capitular donde estuvieron reunidos y se dirigirán a un aposento separado dentro de la misma casa concejil, en el que procederán a hacer la elección con toda libertad, designando por mayoría las personas propuestas.

## 4. Forma de realizar los alardes públicos

Se celebrarán alardes cada año, pues Zizurkil se halla a 5 leguas de Behobia, lugar tradicional de paso de las tropas francesas, por lo que era conveniente adiestrar regularmente a sus vecinos y moradores en el manejo de las armas. Será capitán de la tropa municipal el alcalde y en su ausencia, el teniente de alcalde; alférez lo sería el regidor fiel y sargento, el segundo regidor.

## 5. Anotación en el libro de acuerdos

Los acuerdos tomados en regimiento a llamamiento del alcalde se escribirán por el escribano en el libro de acuerdos, siendo firmado por los que supieren y si no, por el escribano.



Udaletxea/ Ayuntamiento (1948).

AGG-GAO, I. Ojanguren. OA1101

### 6. Kontzejuaren barrutiak aztertzea

Lau urtean behin kontzejuaren barrutiak bisitatu eta aztertuko dira mugarriren bat aldatu den ikusteko. Hala bada, bere lekuan jarri behar da. Bisita honen gastuak diruzainaren kontura izango dira 300 erreale gainditzen ez dituzten bitartean. Bisitaren hasieratik bukaerara, eskribauaren zeregina izango da guztiaren testigantza ematea. Azterketa hau maiatza aldera egingo da.

### 7. Diruzainaren betebeharra

Ahalordea izango du udal-errenta guztiak kobratzeko eta banatzeko erregimentuaren edo udal-erabakiaren bidez xedatutakoaren arabera. Partida bakoitzaren arrazoia idatzi ezean, ordaindu egin beharko du egoki apuntatuta ez dagon guztia. Ezein ofizialek ezin izango du errentarik kobratu, diruzaina izan ezik, eta 2.000 marabediko isuna ezarriko zaio bestela. Diruzainak 15 dukateko soldata jasoko du urtero.

### 6. Reconocimiento de términos concejiles

Cada 4 años se hará visita y reconocimiento de los términos públicos y concejiles a fin de verificar si se ha modificado algún mojón, debiéndose colocar en su sitio correspondiente si hubieran sido alterados. Los gastos de esta visita correrán a cuenta del tesorero hasta la cantidad de 300 reales, tomando testimonio de todo el escribano, desde el comienzo de la visita hasta el final. Se hará por el mes de mayo.

### 7. Labor del tesorero

Tendrá poder para cobrar todas las rentas municipales así como para su distribución según se acordase en regimiento o acuerdo municipal, asentando la razón de cada partida, pues en caso contrario correrá a su cuenta el pago de todo aquello que no estuviere convenientemente apuntado. Ningún oficial podrá cobrar renta alguna, salvo el tesorero, so pena de multa de 2.000 maravedies. Dispondrá de un salario de 15 ducados anuales para llevar a cabo su labor.



### 8. Kontuak aurkeztea

Behin ekitaldia bukatuta, 30 egun izango ditu, diruzain berria aurrean dela, partida guztien inguruko kontuak aurkezteko. Hiribilduari dirua zor izanez gero, beste 30 egun izango ditu zorrak kitatzeko. Kontrakoa gertatuz gero, ordea, kontzejuaren errenten lehen herenaren kobrantzalik ordainduko zaio zorra.

### 9. Parrokiako maiordomoaren eginkizuna

San Millan elizaren errentak eta limosnak kobratu eta bikarioari eta erregimentuari guztiaren berri emango die. Halaber, ahalordea izango du diruzainaren zorrak ordaintzeko. Kargua utzi ondoren, 40 egun izango ditu kontuak aurkezteko eta 30 egun aldeko edo kontrako zorrak kitatzeko.

### 10. Elikagaiak alokatzea

Urtero hiribildua hornitzeko beharrezkoak diren ardoak, balea-olio gozoa eta beste gai batzuk alokatuko dira enkanteetan. Errematatzaileek kontzejuaren etxeetan edo plazaren ondoan utzi beharko dituzte produktuak.

### 11. Zezen-korridak

Oso aspalditik ospatzen diren Jasokundeko Andre Mariaren jaietan, zezen-korridak egingo dira San Millan elizaren ondoan dagoen plazan edo Arguruzeagako kontzejuaren etxeko atearen ondoan. Eta orobat ohi-koak diren beste musika-ospakizun batzuk ere.

### 12. Zuhaitzak landatzea.

Barruti publikoetako haritz eta gaztainondo sailak Koroaren itsasontzi-zerbitzua hornitzeko erabiliko direnez, arreta berezia jarri behar da haiek zaintzen; hartara, auzotar eta biztanle bakoitzak erregimentuak agindutakoa landatuko du, betiere abereentzako bazka kaltetu gabe.

### 13. Alkateen entzunaldiak

Alkateak eta alkateordeak entzunaldiak emango dituzte kontzejuaren etxeetan ostiralero goizeko 10etatik 11etara, edo arratsaldeko 4etan, aginte-makila eta jantzi egokiak soinean dituztela. Alkate eta alkateordeekin batera zigorrak betearazteaz arduratzen den zinpekoa egongo da eta urtero 12 dukateko soldata jasoko du.

### 14. Errejidoreen eginkizuna

Hornigaien prezioa erregulatzeko, abusuak ekiditeko eta urritasun-garaietan esku hartzeko, hornitzaileek juramentuak egingo dituzte, eta zilegi izango da haiek zigortzea, baldin eta juramentua hausten badute.

### 8. Presentación de cuentas

Una vez finalizado su ejercicio, tendrá 30 días para dar sus cuentas con cargo y data de todas las partidas, hallándose presente el nuevo tesorero. Si fuere deudor a la villa, dispondrá de otros 30 días para liquidar sus deudas, mientras que si se diera el caso contrario, se le pagará del cobro del primer tercio de las rentas concejiles.

### 9. Labor del mayordomo parroquial

Cobrará las rentas y limosnas de la iglesia de San Millán, notificando todo al vicario y al regimiento, teniendo poder para pagar las deudas como está apuntado para el caso del tesorero. Presentará sus cuentas en un plazo de 40 días tras dejar el cargo y dispondrá de 30 días para pagar si debiera algo y el mismo plazo en caso de que las cuentas fueran a su favor.

### 10. Arrendamiento de viveres

Cada año se arrendarán los vinos, aceite dulce de ballena y otros mantenimientos que fueren necesarios para la provisión de la villa, dándose las almonedas oportunas y teniendo que depositar los rematantes los citados productos en las casas concejiles o en las inmediaciones de la Plaza.

### 11. Corridas de toros

Dentro de las fiestas de Nuestra Señora de la Asunción en agosto, celebradas desde tiempo inmemorial, se harán corridas de toros en la plaza que hay junto a la iglesia de San Millán o junto a la puerta de la casa concejil de Arguruzeaga, junto a otros festejos musicales también habituales.

### 12. Plantación de árboles.

Debido al cuidado que se debe observar en lo referente a las plantaciones de robles y castaños existentes en los términos públicos para el servicio de navíos de la Corona, cada vecino y morador tendrá que plantar lo que ordenase el regimiento, con cuidado de no perjudicar el pasto para el ganado.

### 13. Audiencias de los alcaldes

El alcalde y su teniente harán sus audiencias públicas en las casas concejiles todos los viernes entre las 10 y las 11 de la mañana, o bien a las 4 de la tarde, con la vara de justicia y una vestimenta decente. Junto al alcalde y su teniente acudiré el jurado ejecutor, encargado de hacer cumplir las penas, quien gozará de un salario de 12 ducados anuales para estos menesteres.

### 14. Labor de los regidores

Para regular el precio de los bastimentos, evitar abusos e intervenir en tiempo de carestías, recibirán juramento de los proveedores, disponiendo de capacidad para castigarlos en caso de que obraren con mala voluntad.

### 15. Hautesleentzako muga

Udal-hauteskundeetan, ofizialak izendatu behar dituzten hautesleek ezin izango dute haien arteko inor aukeratu inolako kargurik betetzeko.

### 16. "Alcabala foránea" izeneko zerga ordaintzea

Diruzainek berehala jo beharko dute zerga-biltzaileengana herrian jasotako errege-alkabalekin; isunak saihestuko dira, baldin eta nahiko diru bildu badute; haiek ordaindu beharko dute beren lana ez betetzearen ondorioz falta dena.

### 17. Pisuak eta neurriak aztertzea

Alkateek eta errejidoreek elikagaien pisuak eta neurriak aztertuko dituzte kargua hartu eta hilabete batera. Elikagaien pisu eta neurrietan aldaketarik balego, elikagaiak zaintzeko arduradunak zigortuko dituzte. Halaber, ostatuera joango dira ibiltariak ondo zerbitzatzen dituzten ikustera.

### 15. Limitación a los electores

Aquellas personas salidas en suerte como electores de oficiales en las elecciones municipales no se podrán elegir entre ellos para ocupar cargo alguno.

### 16. Pago de la alcabala foránea

Los tesoreros acudirán a los recaudadores con las alcabalas reales recogidas en el pueblo con prontitud, evitándose multas, siempre que dispongan de fondos suficientes, corriendo a su cargo lo que resultare de su incumplimiento.

### 17. Reconocimiento de pesas y medidas

En orden a guardar el buen gobierno y la rectitud en el consumo de los alimentos, los alcaldes y regidores visitarán en el plazo de un mes tras su elección las pesas y medidas, condenando a los responsables de su custodia en caso de que hubiesen sido alteradas. Asimismo acudirán regularmente a los mesones para comprobar si se atiende convenientemente a los caminantes.



Garaiko pisuak eta neurriak / Pesas y medidas de época

### 18. Zigorra su-emaileentzat

Mendietan aldizka gertatzen diren suteak direla eta, larre gehiago izateko bereziki otsailetik apirilera otadiak erretzen dituzten artzainek eta larreen jabeek kontu handiz ibili beharko dute. Araua hausten dutenei isuna eta zigorra ezarriko zaie.

### 19. Zuhaitz motzak moztea

Kontzejuaren barrutietako zuhaitzen mozketan desegokia Erregeren ontziolentzako hornikuntza kaltetzen duenez, debekatuta dago zuhaitzak moztea kimatuak izan baino lehen. Bestela, 400 marabediko isuna ezarriko da.

### 20. Alkateek eta ofizialek ordezkoei kausen berri ematea

Kargua utzi ondoren, ebazteke dauden kausa judizialen berri eman-go diete ordezkoei. Horretarako, 30 egun izango dituzte kausa zibilen kasuan eta 20 egun kausa kriminalenean.

### 21. Eskribautza betetzea

Erregimentuari dagokio hutsik dagoen herriko eskribautza betetzeko eskribaua proposatzea. Bertakoek izango dute lehentasuna. Erregimentuak errege-agintarien aurrean aurkeztu beharko du izendapena, berretsita izan dadin.

### 22. Eskribaua erregimentuetara joatea

Urteko erregimentuetara joango da eta baimendutako eskrituren testigantza emango du, balio legala izan dezaten.

### 23. Eskribauaren betebeharra

Erregimentuak agintzen ez badio, ez du gutunik ez paperik zigilatuko. Bestela, soldatarik gabe geratzeaz gain, 3.000 marabediko isuna jasoko du.

### 24. Prokuradoreen eta nuntzioen betebeharra

Hiribilduak izendatutako ordezkariak beren karguak onartu eta agintzen zaien lana beteko dute.

### 25. Ale-hornidura

Edozein ale-mota saltzera hiribildura datozenek kontzejuaren etxean utzi beharko dute alea.

### 26. Ardo-hornidura

Ardoaren alokatzaileek kontzejuaren etxeetan utzi beharko dute zama. Alkateak eta errejidoreek ardoaren kalitatea egiaztatuko dute, eta kalitate txarrekoa baldin bada, errefusatu egingo dute.

### 18. Castigo a los incendiarios

A causa de los incendios regulares que asolan los montes jarales provocados por personas maliciosas, que generalmente quedaban sin castigo, se dispone que en especial en los meses de febrero a abril se extreme el cuidado de los pastores y sus amos que queman los argomales para disponer de más pasto y se mulle y castigue a los infractores.

### 19. Corte de árboles trasmochos

Ante el desorden en el corte de los árboles en términos concejiles, que perjudicaba notablemente el suministro de madera a los astilleros reales, se prohíbe cortar hasta que no se hayan trasmochado, so pena de 400 maravedies.

### 20. Residencia de los alcaldes y oficiales

A la finalización de su cargo, harán residencia ante su sucesor en un plazo de 30 días en el caso de los civiles y de 20 días en el caso de los criminales, es decir, trasladarán a sus sustitutos el estado en que se encontraban las causas judiciales pendientes.

### 21. Presentación de escribanía vacante

Recaerá en el regimiento la propuesta del escribano que ocupase la vacante producida en la escribanía existente en el pueblo, primero entre sus naturales si hubiera quien, presentando el nombramiento ante las autoridades reales para su confirmación.

### 22. Asistencia del escribano

Asistirá a los regimientos anuales, dando testimonio de las escrituras autorizadas de modo que queden con validez legal.

### 23. Obligación del escribano

No sellará carta ni papel alguno sin orden del regimiento, bajo pérdida de salario y de 3.000 maravedies de multa.

### 24. Obligación de los procuradores y nuncios

Aquellas personas nombradas por la villa como sus representantes en sus asuntos aceptarán el cargo y acudirán a la solicitud del negocio encargado.

### 25. Suministro de grano

Las personas que acudiesen a la villa a vender cualquier género de grano estarán obligados a depositarlo en la casa concejil.

### 26. Suministro de vino

Que los arrendadores del vino a la villa depositen su carga en las casas concejiles, siendo verificada su calidad por el alcalde y regidores, rechazándolo en caso de mala calidad.

**27. Ardoa saltzea**

Tabernari eta ostalariak ezin izango dute errematatutako prezioa gainditzen duen ardorik saldu, udalak hala baimendu ezean.

**28. Zorrak barkatzea**

Alkateak eta errejidoreak ezin izango diote inori zorrik barkatu, non eta beren poltsikotik ordaintzen ez badute.

**29. Udal-lanak**

Ondasun publikoak konpondu behar izanez gero, alkateak eta errejidoreak 6 dukat gainditzen ez dituzten lanak hitzartuko dituzte nahi dutenekin. Kopuru hau gainditzen duten lanak, aldiz, udal-bileran onartu beharko dira.

**30. Hitz eskubidea kontzejuaren hauteskundeetan**

Hauk dira kontzejuaren hauteskundeetan hitz eskubiderik izango ez dutenak: ostalariak eta kontzejuaren etxeen, erroten, baserrien eta erremen-terien alokatzaileak, eta orobat alkabalen jasotzaileak eta zordunak. Era honetan, interes publikoak eta pribatuak elkarren aurka egotea saihestuko da.

**31. Frantsesentzako muga**

Hauteskundeetan, dagoeneko kargu publiko bat betetzen duten frantsesek ezin izango dute garrantzi handiagoko beste bat hartu.

**32. Alkate izateko irakurtzen eta idazten jakin beharra**

Idazten eta irakurtzen ez dakiten pertsonak hautatzearen ondorioz sortutako arazo larriak direla eta, hemendik aurrera beharrezkoa izango da baldintza hau betetzea.

**33. Milakoak**

Auzotasun-eskubidea izateko, jabetzan izandako etxearen balioak, gutxienez, 300 dukatekoa izan behar du. Neurri honekin, kargu publikoak betetzen dituzten pertsonak kudeaketa txar bat eginez gero, beren ondasunekin erantzungo dute.

**34. Hiribilduan bizitzea**

Hiribilduan bizi ez direnak ez dira enplegu publikoetan onartuak izango, milako nahikoak izan arren.

**35. Iratzeak moztea**

Sortutako kalteak ikusita, ezin izango dira iratzeak moztu Iraileko Andra Mariaren goizera arte. Bestela, 30 errealeko isuna ezarriko da.

**27. Venta del vino**

Ningún tabernero ni mesonero de la villa podrá vender vino a mayor precio del que hubiere sido rematado, salvo autorización municipal.

**28. Perdón de deudas**

El alcalde y los regidores no podrán perdonar deudas a ninguna persona, so pena de pagarlo de su propio bolsillo.

**29. Obras municipales**

En caso de necesidad de hacer algún reparo en bienes públicos, el alcalde y los regidores podrán concertar obras hasta la cantidad de 6 ducados con las personas que quisieren. Las obras que superen esta cantidad tenían que ser aprobadas en reunión del ayuntamiento.

**30. Voz en las elecciones concejiles**

No tendrán voz en las mismas ni los posaderos ni los arrendadores de las casas concejiles, molinos, caserías y herrerías, así como los recaudadores de las alcabalas ni los deudores a la villa, intentando evitarse de esta manera la colisión de intereses entre lo público y lo privado.

**31. Limitación a los franceses**

En las elecciones de cargohabientes, los franceses que al presente ocupan algún oficio público no podrán tener otro de mayor entidad.

**32. Capacidad de leer y escribir para ser alcalde**

Ante los graves inconvenientes que se derivan de elegir a personas que no saben leer ni escribir, de ahora en adelante tendrán que cumplir este requisito.

**33. Millares**

Para disponer de vecindad, el valor mínimo de la casa en propiedad se estipula en 300 ducados. Con esta medida se pretende que las personas que ocupasen cargos públicos respondieran con sus bienes en caso de una mala gestión durante su mandato.

**34. Residencia**

No serán admitidos a empleos públicos quienes no residan en la villa, aunque tuvieran millares suficientes.

**35. Corte de helechos**

Hasta la mañana de Nuestra Señora de septiembre no se podrán cortar los helechos por los perjuicios que se causan, so pena de 30 reales.

**36. Kapitularren soldata**

Alkateak eta errejidoreek 258 erreal kobratuko dituzte urtero egin-dako lanaren truke.

**37. Kanpoko abereak bazkatzea**

Ez da bere inguruetik 3 legoara dagoen abererik onartuko. Bestela, basozainek abereak harrapatu eta ez dituzte askatuko jabeek isuna -4 erreal buru bakoitzeko- ordaindu arte.

**38. Ahuntzak**

Kontzejuaren mendietan abere hauek egiten dituzten triskantzak dire-la eta, ezin izango dira bertako barrutietan eduki.

**39. Behorrak**

Ahuntzak bezalaxe, kontzejuaren barrutiaren kanpoko behorrek ezin izango dira kontzejuaren lurraldeetan bazkatu.

**36. Salario de los capitulares**

El alcalde y regidores contarán con un salario anual de 258 reales para el desempeño de sus obligaciones.

**37. Pasturación de ganado foráneo**

No se admitirá ganado de fuera de 3 leguas de su contorno, prendiéndose en caso contrario por los guardamontes y no soltándose hasta el pago de la multa por sus propietarios, regulado en 4 reales por cabeza.

**38. Cabras**

Por los daños que estos animales causan en los montes concejiles, se manda que no se permita cabra alguna en sus términos.

**39. Yeguas**

Al igual que las cabras, las yeguas de fuera del término concejil no podrán pas-tar en su territorio.



Carlos III-ren marabediak/Maravedies de Carlos III

**40. Irakaslea**

Umeak ondo hezteko, urtean 30 dukateko soldata duen irakasle bat eduki behar da. Irakasleak jakin beharko du irakurtzen, idazten eta zenbatzen eta gaztelaniaz hitz egiten. Dena den, hobe da probintziakoa izatea kanpotarra baino, beste herrietan bezala, euskaraz ez jakiteak arazoak sortzen baititu irakasle, ikasle eta familien arteko harremanetan.

**41. Lanak aztertzea**

Diruzainak eta erregimentuak izendatutako aditu batek aztertuko dituzte kontzejuaren etxeetan, burdinoletan eta errotetan eta udalarenak diren gainerako eraikin publikoetan egindako konponketak. Diruzainak eta adituak 15 erreál jasoko dituzte egunean; era honetan, azterketa hauek egitera joan ohi den jende andanaren gastu handiak saihestuko dira.

**42. Zarateko bentaren eta Arsulondoko burdinolaren pisuak**

Bi leku hauetako pisuak aztertzeo gastua urtean 60 errealekoa izango da gehienez.

**43. Auzolanean dabilzantzenako bazkaria**

Diruzainak bazkari bat ordainduko die egunero, soldatarik gabe, auzolanean, bideak konpontzen eta bestelako lanak egiten dituzten lagunei. Bakoitzeko 2,5 erreál gastatuko dira.

**44. Auzitan sartzea**

Bidegabeko auzietan sartzea saihesteko, udalaren interesei eragiten dien salaketa bat dagoenean, auzotar kontzejante bat izendatuko da erregearen bi abokaturen edo hirugarren baten irizpena lortzeko, beharrezkoa den informazioa jaso arte.

**45. Parrokiako maiordomoaren mugak**

Erretoreek izendatuta, parrokiako maiordomoak ezin izango du bere kabuz ordezkariarik aukeratu. Udala da urtero ordezkaria hautatzeko arduraduna.

**46. Zabarkeria lanbide publikoak betetzeko orduan**

Edozein kapitularren jokaera txar batengatik hiribildua kaltetuko balitz, eragilea behartuta egongo da kalteak ordaintzera.

**47. Erregimentuaren bozketa**

Bilera deitu eta errepublikaren inguruko gaiak jorratu eta erabakiak hartu ondoren, alkateak eta errejidoreek bozkatu egingo dute bakoitzak bere aldetik. Eskribauak, berriz, behar bezala jasoko du guztia.

**40. Salario del maestro**

Para educar bien a los niños conviene disponer de maestro con un salario anual de 30 ducados, eligiéndose para este puesto persona capaz, que sepa leer, escribir y contar y conozca el idioma castellano, prefiriéndose a los naturales de la provincia antes que a los de fuera, pues al igual que en otras localidades, el desconocimiento del euskara provocaba problemas en la relación maestro-alumnos-familias.

**41. Examen de obras**

Los reparos en las casas concejiles, ferrerías y molinos y resto de edificios públicos pertenecientes al ayuntamiento serán examinados por el tesorero y por un perito nombrado por el regimiento, con salario máximo de 15 reales diarios, evitándose los cuantiosos gastos que se derivan del concurso de gran número de gente a estos exámenes.

**42. Pesas de la venta de Zarate y la ferrería de Arsulondo**

El reconocimiento anual de las pesas de estos dos lugares tendrá como límite de gasto 60 reales.

**43. Comida en auzolanes**

Se pagará por el tesorero una comida cada día a aquellas personas que en auzolan se encarguen de reparos de caminos y otras obras, cuando acudan sin salario, a razón de 2,5 reales por cada uno.

**44. Enablación de pleito**

Para evitar entablar juicios injustos, un vecino concejante nombrado para tal fin acudiré al dictamen de dos abogados reales, o a un tercero hasta disponer de la información oportuna cuando se plantee una denuncia que afecte intereses municipales.

**45. Limitación al mayordomo de la parroquia**

Nombrado por los rectores, no podrá designar sustituto de motu proprio, sino que éste tendrá que ser elegido en ayuntamiento general. Anualmente se procederá a su elección.

**46. Negligencia en el desempeño de oficios públicos**

Si por mala actuación de cualquier capitular la villa fuera perjudicada, el causante estará obligado a pagar el daño sufrido.

**47. Votación en regimiento**

Convocada reunión para tratar asuntos concernientes a la república y tratado y conferido sobre el asunto, el alcalde y los regidores darán sus votos separadamente, tomando constancia de ello el escribano.



**48. Ordezkarriak izendatzea**

Etik alkateak ez errejidoreek ezin izango dituzte jada beren ordezkarriak izendatu, gai ez diren personak izendatzeak hiribildua kaltetzen baitu. Alkateordeak izenda dezake bere ordezkarria, baina gainerakoentzat, erregimentuak hautatuko ditu ordezkoak.

**49. Diruzainari igortzea**

Alkateak edo errejidoreek sinatutako zedula aurkeztu eta ordainketa-gutuna jaso ondoren, zehaztutako kopurua igorriko zaio diruzainari.

**50. Kontuak idaztea**

Edozein partida ordaintzeko edo kobratzeko, igorpen bakoitzaren arrazoi justifikatua idatziko da ondoren kitatzeko.

**51. Zordunak**

Diruzainak eskatu egingo die zordunei hiribilduari zor diotena ordaintzeko. Ordaintzen ez badute, alkateari eta errejidoreei jakinaraziko die, hartu beharreko neurriak har ditzaten.

**52. Ondorengoak kondenatzea**

Kargua uzten duten alkateek eta errejidoreek 3 egun izango dituzte kargua hartzen dutenekiko zorrak kitatzeko. Kaltetuek apelatzeko aukera izango dute.

**53. Agiriak artxiboan gordetzea**

Hiribilduaren agiriak (ordenantzak, errege-zedulak, pribilegioak...) artxiboan gordeko dira. Artxiboaren hiru giltzak alkatearen eta bi errejidoreen artean banatuko dira. Agiriak ez dira bertatik aterako eta aldian-aldian inbentarioa egingo da.

**54. Irainak kontzejuaren bileran**

Alkateak atxilotu egingo ditu kontzejuaren bileretako edozein parte-hartzaile iraintzen dutenak eta zigortu egingo ditu irainaren larritasunaren arabera.

**55. Kargu publikoen bateraezintasuna**

Kargu publiko bat betetzen dutenek ezin izango dute beste bat aldi berean izan.

**56. Prokuradore batzarkideen jarduera Batzarretan**

Batzarretan hiribildua ordezkatzeko hautatu diren prokuradoreek alkateak, errejidoreek eta auzotarrek emandako argibideei jarraiki jardungo dute.

**48. Nominación de sustitutos**

Ni el alcalde ni los regidores podrán nombrar sus sustitutos como se había hecho con anterioridad, pues de la designación de personas no idóneas había salido perjudicada la villa, salvo en el caso del teniente de alcalde. Para el resto se convocará regimiento en el que se nombrarán las personas a sustituir.

**49. Libramiento al tesorero**

Presentada cédula firmada por el alcalde o regidores y recibida carta de pago, se procederá a librar al tesorero la suma apuntada.

**50. Anotación en cuentas**

Para el pago o cobro de cualquier partida, se anotará razón justificada de cada libramiento para su posterior apuntamiento y liquidación.

**51. Deudores**

El tesorero requerirá a los deudores a la villa el pago de lo que debieren, poniendo en conocimiento del alcalde y regidores el caso de impago para que actúen en consecuencia.

**52. Condenación de sucesores**

El alcance que los alcaldes y regidores entrantes hicieren contra los salientes será pagado en el término de 3 días, existiendo la posibilidad de apelar para los agraviados.

**53. Depósito de documentación en el archivo**

La documentación referente a la villa (ordenanzas, cédulas reales, privilegios...) se guardará en el archivo. Las 3 llaves del mismo se repartirán entre el alcalde y los dos regidores, debiéndose impedir que la documentación salga fuera de él y haciéndose inventario periódico de lo depositado.

**54. Injuria en reunión concejil**

El alcalde prenderá a los que en reuniones concejiles injuriasen de obra o de palabra a alguno de los presentes, siendo castigados en función de la gravedad de la injuria.

**55. Incompatibilidad de cargos públicos**

Aquellos que detentaren algún oficio público no podrán disfrutar al mismo tiempo de otro, quedando la tal elección sin ningún valor.

**56. Actuación en Juntas de los procuradores junteros**

El o los procuradores elegidos para representar a la villa en juntas u otros negocios llevará instrucción precisa de su actuación dispuesta por el alcalde, regidores y vecinos en su ayuntamiento general.

**57. Ardoa saltzea**

Gaztelatik edo Nafarroatik ekarritako ardo zuriaren edo beltzaren txikizkako salmenta ezin izango da egin alkateari eta errejidoreei erakutsi aurretik. Hauek kalitatearen arabera finkatuko dute prezioa. Etxe batean ezin izango da ardo zuria eta beltza batera saldu.

**58. Ardoa nahastea**

Ezin izango da ardoa beste batekin nahastu eta ezta ere tasatutakoa baino prezio altuagoan saldu.

**59. Hiribildutik egurra ateratzeko baimena**

Espresuki baimendu ezik, debekatuta dago egurra moztea eta herritik ateratzea. Udalak arautuko ditu kontzejuaren lurretan egin beharreko mozketak.

**60. Ortuetatik barazkiak lapurtzea**

Barazetik zerbak, porruak, tipulak edo beste barazkiren bat edo fruta lehen aldiz lapurtzen duenak balioaren bikoitza ordainduko dio jabeari eta 3 gau pasatuko ditu kartzelan. Bigarren aldiz ostuz gero, zigorra bikoitza izango da.

**61. Ortuetatik egurra lapurtzea**

Barazetik egurra lapurtzen duenak aurreko puntuko zigor bera jasoko du.

**62. Lapurretak sagastietan**

Sagarrak lehen aldiz lapurtzen duenak 20 marabedi ordainduko ditu. Bigarren aldiz lapurtuz gero, 3 gau pasatuko ditu kartzelan eta 300 marabeditako isuna ezarriko zaio.

**63. Mahatsak eta bestelako jakiak lapurtzea**

Mahatsak, gereziak, gingak, mertxikak, pikuak, urrak, intxaurrek, gaztainak, aranak eta antzekoak ebasten dituenak 500 marabedi ordaindu eta 4 gau pasatu beharko ditu atxilotuta. Horrez gain, jabeari eragindako kalteak ordaindu beharko ditu.

**64. Errotariak izendatzea**

Hiribilduak errotaria izendatuko du Alkañiz eta Akezkoako errota publikoetarako, alokatzailea zein den alde batera utzita. Hiribilduak izendapena alda dezake.

**65. Errotak alokatzea**

Ezin izango dira bi errota aldi berean alokatu eta alokatzaile edo errotari batek ezin izango du beste errota baten fidatzaile izan. Horrela, kontsumitzailea kaltetzen duten monopolioak saihesten dira.

**57. Venta de vino**

La venta del vino blanco o tinto que se trajere de Castilla o Navarra no se podrá hacer al por menor hasta mostrarlo al alcalde y regidores para que le pongan precio en función de su calidad. No se podrá vender en una casa juntamente vino tinto y blanco.

**58. Mezcla de vino**

No se podrá mezclar un vino con otro ni venderlo a más precio del tasado.

**59. Licencia para sacar madera fuera de la villa**

Salvo autorización expresa, se prohíbe cortar y sacar madera fuera del pueblo, regulándose las talas y cortes a realizar en los terrenos concejiles en ayuntamiento general.

**60. Hurtos de hortalizas en huertas**

Aquel que robare en huerta berzas, puerros, cebollas u otra hortaliza o fruta pagará al dueño el doble de su precio la primera vez, siendo encarcelado 3 noches, mientras que la segunda vez que incurriere en el mismo delito la pena será doble.

**61. Hurtos de leña en huertas**

El que robe leña en huerta recibirá la misma pena que en el supuesto anterior.

**62. Hurtos en manzanales**

Cada vez que se encontrare a una persona robando manzanas pagará 20 maravedíes por la primera vez. La segunda pasará 3 noches en la cárcel y pagará asimismo 300 maravedíes de multa.

**63. Hurtos en viñas y otros géneros**

El robo de uvas, cerezas, guindas, duraznos, higos, avellanas, nueces, castañas, ciruelas... estará penado con 500 maravedíes y 4 noches de detención, aparte del pago de los daños causados al propietario.

**64. Nombramiento de molineros**

En los molinos públicos de Alkañiz y Akezkoa se nombrará molinero por la villa independientemente de quien fuere su arrendador, pudiendo remover su nombramiento.

**65. Arrendamiento de molinos**

No se podrán arrendar los dos molinos a la vez ni ser fiador un arrendador o molinero del otro molino, intentando evitar monopolios que perjudiquen al consumidor.





Magiolatza (2005)

Joxin Azkue

#### 66. Karguen eta horniduren bateraezintasuna.

Hiribildua ondo gobernatzeko kanpoko produktuak ekarri behar dira. Iruzurrak ekiditeko, kargu publiko bat betetzen dutenek ezin izango dute etxean tabernarik edo harategirik eduki.

#### 67. Etxeak eta eraikinak konpontzea

Etxeak berreraikitzeko zuhaitzen 2.000 ukondo erabiliko dira soilik. Zuhaziti publikoak kalte handiak jasan ditu alderdi hau arautu gabe zegoelako. Beharrezkoa den gainerako egurra erosi egingo da.

#### 66. Incompatibilidad de cargos y bastimentos

Para el buen gobierno de la villa, siendo como es necesario traer productos de fuera, para evitar posibles fraudes se prohíbe que los que detentasen oficio público tengan en su casa taberna o carnicería.

#### 67. Reparos de casas y edificios

Se regula que para la reedificación de casas se dispondrá solamente de hasta 2.000 codos de árboles, puesto que anteriormente se han experimentado grandes daños en el arbolado público por estar esta cuestión sin regular. El resto de madera necesaria se adquirirá por compra.

**68. Zuhaitz motzak saltzea**

Ikatz egiteko barruti publikoan bildutako egurra eta sastrakak hiribilduko plazan egindako jendaurreko enkantean salduko dira, ahalik eta jende gehienak jakin dezan.

**69. Alokairu publikoak**

Halaber, kontzejuaren etxeak, errota eta Zarateko benta jendaurreko 3 enkantetan alokatuko dira. Alokatzailea azkeneko enkantean eskaintza handiena egiten duena izango da.

**70. Sastrakadiak aztertzea**

Azienda larriek eta xeheek sastrakadi moztu berrietan egiten dituzten triskantzak direla eta, basozainek lehen 4 urteetan zaindu beharko dituzte eta bertan dauden abereak harrapatu.

**71. Zuhaitzak zuritzea**

Debekatuta dago landatutako zuhaitzei azala kentzea.

**72. Hesiak kontzejuaren barrutian**

Debekatuta dago kontzejuaren barrutia hesiz ixtea, ondoan lursail pribatu bat izan arren.

**73. Egur-ikatzza**

Ez da ikatzik egingo kontzejuaren mendietan udal-baimenik gabe.

**74. Kontzejuaren barrutian egurra moztea**

Urtebeteko epea dago kontzejuaren barrutietan moztutako egurra jasotzeko.

**75. Sastrakadietan egurra moztea**

Urtarriletik martxora bitartean Arsulondoko burdinolarako edo karo-bi eta sukalde partikularretarako kontzejuaren barrutietan erosi diren egurra eta zuhaitzen hondarrak, gehienez ere, 3 hilabeteen jaso beharko dira. Sastrakak kimuak atera baino lehen moztuko dira.

**76. Karobi eta sukaldeetarako egurra moztea**

Horretarako baimena eskatu beharko zaio udalari.

**77. Gorostia moztea**

Gorostiaren mozketa arautzearren, udalari eskatu beharko zaio baimena eta hark adieraziko du zein parajetan bil daitekeen.

**78. Zuhaitzak birlandatzea**

Haritzak, gaztainondoak, intxaurreondoak eta lizarrak birlandatzeko udal-baimena eskatu beharko da.

**68. Ventas de trasmochos**

La venta de leña y jaros extraída de los términos públicos para hacer carbón se hará en almoneda pública en la plaza de la villa para que tenga conocimiento el mayor número de personas posibles.

**69. Arrendamientos públicos**

Igualmente, el arrendamiento de las casas concejiles, molinos y Venta de Zarate se realizará mediante 3 almonedas públicas, resultando su arrendador de la última de ellas.

**70. Reconocimiento de jarales**

Debido al daño que los ganados mayores y menores causan en los jarales públicos que habían sido recién cortados, se ordena a los guardamontes su reconocimiento asiduamente durante los primeros 4 años, prendiendo al ganado que allí hallaren.

**71. Descortece de árboles**

Se prohíbe descortezar árbol en pie.

**72. Setos en término concejil**

Se prohíbe cercar término concejil aunque sea anexo a finca privada.

**73. Carbón vegetal**

No se hará carbón en los montes concejiles sin licencia municipal.

**74. Corte de madera en término concejil**

Se dispondrá de un año para sacar la madera cortada en términos concejiles.

**75. Corte de madera en jarales**

La leña y despojos de árboles cortados en los términos concejiles para el consumo de la ferrería de Arsulondo o para las cocinas y caleras particulares comprados durante los meses de enero a marzo, se extraerá del sitio en que se hallaren en un plazo máximo de 3 meses, y los jaros antes de que salga el pimpollo.

**76. Corte de madera para cocinas y caleras**

Para estos fines se pedirá licencia municipal.

**77. Corte de acebo**

Dado el desorden observado en este punto, se regula que para su corte precederá autorización municipal y señalamiento de paraje.

**78. Trasplante de árboles**

El trasplante de robles, castaños, nogales y fresnos no se permitirá hacerlo por propia voluntad, sino mediando autorización municipal.



**79. Mendiak**

Itsasontziak eta eraikinak egiteko beharrezkoak direnez, debekatuta dago mendiak lepatzea aditu batek aztertu aurretik.

**80. Gorpuzti Eguna**

Egun hau San Millan parrokian ospatzearen ondoriozko gastuak hiribilduko errenten kontura izango dira, Arguruzeaga kontzejuaren etxe berrian egingo den 3 errealeko bazkaria barne; bazkari honetara joango dira kapitularrak, eskribauak, mosketariak eta ezpata-dantzariak.

**81. Gorpuztiaren zortzigarren eguna**

Asko jota 180 errealeko gastatu ahal izango dira egun garrantzitsu hau ospatzeko.

**82. Alardea**

Alardea 3 urtean behin egingo da eta errenta publikoetatik 450 errealeko gastatuko dira gehienez bolboran eta ardoan.

**83. Ikuskatzaileen soldata**

45 errealeko kobratuko dituzte urtero. Dena den, 7,5 errealeko irabaziko dituzte kontuak ikuskatzen lan egindako aparteko egun bakoitzeko.

**84. Bulda-biltzailearen soldata**

75 errealeko.

**85. Prokuradore batzarkidearen soldata**

300 errealeko jasoko ditu Batzar Nagusietako bileretara 6 eguntan joateko eta 30 errealeko Batzar Partikularretara joan behar duen egun bakoitzeko.

Ordenantzak irakurtzea. Hartzekoaren kontuak eta hiribilduaren errentak jaso eta aztertu baino lehen irakurriko dira.

Jarraian ikusiko dugun moduan, arau zorrotz hauekin, udal ordenantza idatzirik ez izateak ordura arte ekarri zizkion arazoak konpondu nahi zituen Zizurkilek. Aurrerantzean, beraz, izango zuen nora jo zalantzaren bat izanez gero.

**79. Montes bravos**

Por su utilidad para la fábrica de navios y la construcción de edificios, se prohíbe su descabezamiento y trasmocho sin mediar examen de persona autorizada.

**80. Gasto en el Día del Corpus**

Los gastos para la celebración de este día en la parroquia de San Millán se pagarán de las rentas de la villa, incluida la comida que se ofrece en la casa concejil nueva de Arguruzeaga a los capitulares, escribano, mosqueteros y danzantes de espada, a razón de 3 reales por cada uno, tal y como se ha hecho hasta la fecha.

**81. Gasto de la función de la octava del Corpus**

Se autoriza un gasto de hasta 180 reales dada la solemnidad de esta función.

**82. Gasto en el alarde**

Se regula la realización del alarde cada 3 años, pudiendo gastarse de las rentas públicas en pólvora y vino hasta 450 reales.

**83. Salario de los veedores**

Su salario anual será de 45 reales, estipulándose 7,5 reales por cada día extraordinario de ocupación en la veeduría de cuentas.

**84. Salario del colector de la bula**

75 reales.

**85. Salario del procurador juntero**

300 reales para asistir durante 6 días a las sesiones de las Juntas Generales y 30 reales por cada día que tuviere que asistir a las sesiones de las Juntas Particulares.

Lectura de las ordenanzas. Se procederá a su lectura antes de recibir y examinar las cuentas del haber y rentas de la villa.


Como veremos a continuación, esta metódica regulación tenía su fundamento en el intento de solucionar los muchos problemas a los que se había tenido que enfrentar hasta el momento la villa de Zizurkil por no disponer de ordenanzas municipales escritas, ante las que acudir en caso de duda en alguna actuación de índole concejil.

### 1.3. Kontzejuaren jarduerari buruzko alderdi batzuk

Udal ordenantzek ohartarazten zutenek, kontzejuak kausa judicial ugari zituen, eta hauek, hiribilduko gobernuaren energia gehiena xahutzeaz gain, gastu handiak zekartzaten altxor publikoarentzat. Kasuistika askotarikoa zen. Zentzu honetan, Zizurkilgo kontzejuia ia etengabe zebilen auzitan bertako familia boteretsuenetako batekin. San Millandarren leinuaz ari gara, jakina<sup>14</sup>

XV. eta XVI. mendeetan, Zizurkilgo kontzejuak familia honi aurre egin zion, ordura arte izandako lehenetasun sozial eta ekonomikoekin bukatu nahian. Zizurkilgo esanetan, komunitatearen ahultasuna aprobetxatu zuen familiak usurpazioen eta ekintza bortitzen bidez lehenetasun horiek eskuratze-ko. Jakina denez, liskar honen ondorioz, kontzejuia indartu egin zen XVI. mendean, tokiko komunitateen aldeko hainbat epaireder. Ondorioz, San Millan familiak, gainerako Ahaide nagusiek bezalaxe, eraikitzen ari zen gizarte berrian tokia bilatzea beste erremediorik ez zuten. Eta hala, San Millandarrek familia berriekin ahaidetzea erabaki zuten.

Hartara, XVII. mendearen hasieran, Donostiako Okendotarrek inelkartu eta familia honek Lasarten zuen jauregira edo Donostian zituen etxeetara joango dira bizitzera. Alabaina, ahaidetza honek ez zuen ahuldu leinu boteretsu honek Zizurkilekin zuen harreman zuzena. Orain haien ondasunak administratzaileak kudeatzen zituen arren, Zizurkilgo kontzejuaren kontra egiten zuen familiak hiribilduan zituen interesak mehatxatuta ikusten zituenean.



Miguel y Teresa de Okendo y San Millán

### 1.3. Algunos aspectos de la actuación concejil

Una de las cuestiones a las que más energía se dedicaba desde el gobierno de la villa y que por otra parte conllevaba grandes gastos al erario público, de lo que ya se advertía en las ordenanzas municipales, era la atención de las numerosas causas judiciales en las que se veía envuelto el concejo. Su casuística era muy variada. En este sentido, uno de los frentes judiciales que permanecía abierto casi de manera permanente tenía relación con una de las familias más poderosas de Zizurkil. Nos estamos refiriendo, claro está, al linaje de los San Millán<sup>14</sup>.

A lo largo de los siglos XV y XVI el concejo de Zizurkil no había dudado en enfrentarse a este poderoso grupo familiar en un intento de acabar con las preeminencias sociales y económicas que hasta entonces habían disfrutado, que según defendía nuestra villa, eran el resultado de usurpaciones y actuaciones violentas llevadas a cabo en momentos de debilidad comunitaria. Como es conocido, este enfrentamiento se saldó con un fortalecimiento de las posiciones concejiles a lo largo de todo el siglo XVI, a través de numerosas sentencias judiciales favorables a las comunidades locales. A resultas de ello, los San Millán, al igual que el resto de los Parientes Mayores, se vieron impedidos a reubicarse en la nueva sociedad que los actuales tiempos estaban moldeando. En el caso de los San Millán, la vía elegida fue el entronque con las nuevas familias emergentes.

De este modo, a comienzos del siglo XVII se produce el enlace con la familia donostiarra de los Okendo y el traslado de su residencia principal al palacio que esta familia poseía en Lasarte o bien a las casas de la misma en Donostia. A pesar de lo que pudiera parecer, esta unión no supuso una merma en la estrecha relación que este poderoso linaje mantuvo con Zizurkil. Gestionados ahora sus bienes y propiedades a través de la figura del administrador, no dudaron en personarse contra el concejo de Zizurkil cuando creían que se atentaba contra los intereses familiares sitos en la ahora villa.

<sup>14</sup> Leinu honek Zizurkilekin zuen lotura estuaren inguruko datuak jasota daude dagoeneko liburu honetan: MORA, J.C.: *Zizurkilgo Historia...* Okendotarren leinua aztertzeke, ikus ARZAMENDI, I.: *El almirante D. Antonio de Oquendo*. Donostia: Gipuzkoako Edizioen eta Argitalpenen Elkarteak, 1981. Eta orobat, Okendotarrak. Donostia: Donostia Kultura, 2005. / Los datos sobre este linaje y su estrecha relación con Zizurkil han sido ya recogidos en MORA, J.C.: *Zizurkilgo Historia...* Para un análisis del linaje Okendo, véase ARZAMENDI, I.: *El almirante D. Antonio de Oquendo*. San Sebastián: Soc. Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1981. También, Okendotarrak. Donostia: Donostia Kultura, 2005.

Horixe gertatu zen 1678an. Miguel Okendo jeneralak –San Jakueren ordenaren zaldun donostiar-zizurkildarrak– Zizurkilgo kontzejuaren aurkako demanda bat aurkeztu zuen. Haren iritziz, udalak beharrezkoak ez ziren gastuak egiten zituen<sup>15</sup>. Sarasti, Galardi eta Portxeta etxeen eta San Millan Jauregiaren jabe zen Miguel Okendok uste zuen diru publikoaren kudeaketa txar hori bere etxeen errenten kaltetan zela. Izan ere, kontzejuak mailegatutako dirua eskatzen zuen zentsuen bidez, eta zentsuak ordaintzeko hiribilduaren ondasunak salgai jarri eta errentak hipotekatzen ziren. Okendok zioenez, fundamenturik gabeko auzietara bideratzen zuen kontzejuak dirua: “pleitos viciosos que litigan sin fundamento alguno, como al presente tienen con el cura, en que consumen la maior parte de los dichos propios, señalando salarios unos a otros”. Gainera, kausa judicial horiek guztiek herriko etxeak zergapetzeaz gain –diru-bilketak egiten baitziren gastuak ordaindu ahal izateko–, kapitularrei mesede egiten zieten, soldata jasotzen baitzuten lan hauengatik.

Garai hartan Zizurkilek bi auzi zituen hasita Miguel Okendorekin eta honen seme Juan Millan Okendorekin: bata Iruñeko Eliz Auzitegian eta bestea Valladolideko Errege Kantzilertzako epaitegian. Hona azken auzi honen arrazoa: Okendo jeneralak benefiziadun izendatu zuen semea bere familiak babesten zuen San Millango parrokia-elizan, izendapen hauen aurka Zizurkilgo kontzejuaren alde emandako erregearen epai betearazleak urratuta.

Esan dugun bezala, tirabira judicial hauek etengabeko buruhaustea bilakatu ziren udalarentzat. 1698an auzi berri batean murgildu zen Okendo-San Millandarrekin, oraingoan San Millan etxeak Zizurkilen zituen 7 korten neurria eta haren erabilera libre zirela eta<sup>16</sup>. Auzi hau 1703. urtera arte luzatu eta Valladolideko Errege Kantzilertzan bideratu zen. Garaiko azken instantzia judicial honetan auzia irekita izatea garestia zen tartean zeuden alderdientzat, eta are gehiago hainbat urte luzatzen zenean, auzia bideratzen zuten prokuradoreak eta kargu publikoak ordaindu behar ziren eta.

Miguel Okendok sustatutako aurreko auzian ez bezala, oraingoan Zizurkilgo kontzejua izango da demanda aurkeztuko duena. Zizurkilek auzitara eramango ditu San Millan etxearen jabeak: Azpeitiako Jose

Así sucedió en 1678. El general don Miguel de Okendo, caballero de la Orden de Santiago y vecino de Donostia y Zizurkil, interpuso demanda contra el concejo de Zizurkil a causa de los gastos superfluos en que, según su opinión, incurria el ayuntamiento<sup>15</sup>. Miguel de Okendo, dueño de las casas de Sarasti, Galardi y Portxeta, y por supuesto, del palacio de San Millán, creía que esta mala gestión del dinero público iba en menoscabo de las rentas de sus casas. En concreto, los gastos a los que se refiere tenían que ver con el recurso concejil a pedir dinero prestado por medio de censos, para cuyo pago se ponían en venta los bienes de la villa y se hipotecaban sus rentas, dinero que se destinaba a “pleitos viciosos que litigan sin fundamento alguno, como al presente tienen con el cura, en que consumen la maior parte de los dichos propios, señalando salarios unos a otros”. En su creencia, tantas causas judiciales terminaban por gravar a las propias casas del pueblo, entre las que se hacían derramas o repartimientos para recaudar fondos con que financiar esta incesante apuesta por la vía judicial, de la que por cierto, Miguel de Okendo apuntaba favorecía a los capitulares de la villa al cobrar salario por ocuparse de estos asuntos.

Cabe señalar que en estas fechas Zizurkil tenía abiertos dos pleitos con don Miguel de Okendo y con su hijo, Juan Millán de Okendo, uno en el Tribunal Eclesiástico de Pamplona y otro en la audiencia de la Real Chancillería de Valladolid; este último en razón del nombramiento que hizo el general Okendo en su hijo de un beneficio en la iglesia parroquial de San Millán, de la que su familia era patrona, contraviniendo reales ejecutorias que habían sido libradas a favor del concejo de Zizurkil contra estas prácticas designativas.

Tras esta declaración, Amasa-Villabona se comprometió a pagar cualquier perjuicio derivado de su nueva obra, instando a Zizurkil a que nombrara peritos para reconocer el paraje, siendo designados para este fin Ignacio de Aldako y José Antonio de Arzadun, ambos vecinos de Hernani. Estos declararon que dejar el peñasco tal y como estaba al presente era perjudicial para las dos partes, por no ser capaz la apertura existente de dejar pasar todas las aguas y el pósito del canal ser de poca profundidad. Su recomendación final era la de eliminar la peña. Una vez más desconocemos cómo terminó este expediente, aunque pensamos que la resolución no sería favorable a las pretensiones de Zizurkil, teniendo en cuenta el dictamen anterior.

Para acabar con este breve repaso a las actuaciones concejiles tendentes a la defensa de lo que sus próceres consideraban el bien común, queremos presentar una demanda en la que nuevamente se vio inmerso el concejo de Zizurkil, en este caso a causa de la prohibición de vender vino, aguardiente y mistela en la casa de Barrenetxea, propia de José Antonio de Lejaristi, por estar en lugar peligroso, ya que lindaba con Villabona, encontrándose por tanto lejos de la jurisdicción del alcalde de Zizurkil. Esta circunstancia motivaba, según el concejo, que se hiciese burla continua de los alcaldes y que no se atuviesen a los horarios de cierre, produciéndose toda una serie de escándalos públicos<sup>22</sup>.

El peso de la voz cantante de la parte contraria la lleva Juan Bautista de Elizondo, inquilino de la casa de Barrenetxea. En su declaración manifiesta cómo en los últimos años los arrendadores e inquilinos de la citada casa habían vendido vinos y licores sin embarazo. En su caso declara que había entrado por inquilino para los próximos 8 años, con la pretensión de proseguir con la venta de vino y aguardiente. Señala también que esta casa servía de posada, en la que se daba vino a los viandantes. Frente al intento del alcalde, Ignacio Antonio de Ameztói, de prohibir la venta de vino, aguardiente y mistela, dice Elizondo que en caso de seguir adelante este intento, Zizurkil se hallaría sin otro lugar en el que se despacharan estos productos.

Por su parte, Ignacio Antonio de Ameztói declara que se decidió a tomar esta medida intentando prevenir las malas consecuencias que se podrían dar si conti-

<sup>22</sup> Valladolideko Errege Chancilleriako Artxiboa. A. Zibilak. Zarandona eta Walls. Ahaztuta C 2903/4 / Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Pl. Civiles. Zarandona y Walls. Olvidados C 2903/4



ondorio txarrak. Bertan erraza baitzen autoritateari iseka egitea. Gaineratu zuenez, aspaldi ez zen Zizurkilen pattarra eta mistela txikizka saltzen, etxe bakar batean saltzea kaltegarria izan zitekeelako auzotarrantzat. Hala ere, aitortu zuenez, bazekien erabaki hau ez zela betetzen. Barrenetxea etxeak ezkutuan saltzen zituen edari horiek, lekuaren urruntasuna baliatuta. Horren berri izan bezain pronto, haien jokaera desegokiaz ohartarazi zituzten maizterrak. ibiltariak ardoa edan nahi bazuten, zubiaren beste aldean, Villabonako kalean zeuden tabernetan har zeza-keten, eta bertan errazagoa zen ordena publikoa kontrolatzea, inguruan etxeak zeudelako. Barrenetxean edariak salduz gero, Villabonako alkatearen autoritateari barre egiten zitzaiola uste zuen Ameztok, izan ere, honek ez zuen eskumenik ibaiaren beste aldean. Horregatik, Elizondori isuna jartzeko eskatu zuen, justiziaren aginduak betetzen ikasteko: "que se le haga más dócil y obediente a los mandatos de justicia".

#### 1.4. Udal-kontuak

Udal maiordomoak edo diruzainak ekitaldia bukatzerakoan aurkeztu zituzten udal-kontuen bidez, sarreren eta gastuen kudeaketa eza-gutzen dugu. Altxor publikoaren administrazioaren helburua aurrekontuaren orekari eustea zen. Hala, udalak bildutakoak berdindu edo gainditu behar zuen gastatu beharrekoa, komunitatearen baliabideak gutxituko ez baziren. Horrela, saihestu egiten zen udala zorpetzea eta orobat mailegatutako dirua eskatu, ondasun publikoak saldu edo zorrak kitatzeko auzotarren artean dirua bildu behar izatea. Hauek kontzejuaren autosufizientzia-ahalmena arriskuan jarri eta komunitatean ezinegona sortzen zuten egoerak baitziren. Zentzu honetan, autosufizientzia bermatzeak diru publikoaren kudeaketa eragiten zuen eta baita ere familiaren ondasunen, eta orokorrean, ondasun publikoen administrazioan, Aristoteles filosofo klasikoarengan edo Akinoko Santo Tomas teologoarengan oinarritutako garaiko pentsamendu politikoari jarraiki.

Alabaina, helburu honi eustea zaila zen, edozein aurkako egoerak (uzta txarrek, gerrek...) gastuen eta diru-sarreren arteko oreka ezegonkorra arriskuan jartzen baitzuen.

1731. urteko Zizurkilgo udal-kontuak adibidetzat harturik, diruzainaren apunteetan jasotako partiden antolamendua ikus dezakegu<sup>23</sup>.

nuara la venta de estos licores en un lugar tan apartado, en el que se hacía burla con facilidad de su autoridad. Añade que hacía muchos años que en Zizurkil no se remataba la provisión de aguardiente y mistela por ser nocivo para el vecindario su venta en una sola casa, aunque según sus palabras, bien es verdad que se había tomado solamente providencia verbal de ello. La venta que se ha hecho en esta casa ha sido con ocultación de los alcaldes, valiéndose de su lejanía. Cuando se tuvo noticia, dice que se apercibió a los inquilinos sobre su mal actuar, señalando que si los viandantes querían tomar vino, lo tenían al otro lado del puente, en la calle de Villabona, donde había varias tabernas en las que era posible controlar más fácilmente el orden público por hallarse en medio de un núcleo de casas. Si se permite su venta en Barrenetxea, cree que se burlaría la autoridad del alcalde de Villabona, quien no tenía jurisdicción en la otra parte del río, terminando su alegato solicitando que se multase a Elizondo de modo "que se le haga más dócil y obediente a los mandatos de justicia".

#### 1.4. Las cuentas municipales

Presentadas por el tesorero o mayordomo municipal a la finalización de su ejercicio, suponen una excelente fuente para conocer la manera en que el ayuntamiento gestionaba sus ingresos y gastos. El ideal que regía la administración del erario municipal era la búsqueda del equilibrio presupuestario, es decir, que lo que recaudase el ayuntamiento fuera igual o superior a lo que aquél tenía que pagar, de forma que no menguaran los recursos de la comunidad. De este modo, se evitaba el endeudamiento municipal y con ello, tener que acudir a solicitar dinero prestado, a vender bienes públicos o a realizar repartimientos con fines recaudatorios entre sus vecinos para sufragar las deudas, hechos que ponían en peligro la capacidad de autosuficiencia del concejo y creaban un fuerte malestar en la comunidad. En este sentido, garantizar la autosuficiencia impregnaba no sólo la gestión de la cosa pública sino también la administración de los bienes familiares y en general, públicos, según el pensamiento político de la época, deudor de filósofos clásicos como Aristóteles o de teólogos como Tomás de Aquino.

Sin embargo, este ideal se veía amenazado ante cualquier coyuntura adversa (malas cosechas, guerras...), alterándose el precario equilibrio que a lo largo de los años se intentaba mantener entre gastos e ingresos.

Tomando como ejemplo las cuentas municipales de Zizurkil del año 1731, tenemos la oportunidad de aproximarnos con más detenimiento a la manera en que se organizaban las diferentes partidas recogidas en los apuntes del tesorero<sup>23</sup>.

<sup>23</sup> Zizurkilgo Udal Agiritegia. Sig. 3/1. / Archivo Municipal de Zizurkil. Sig. 3/1.



Udaletxea, Argurutzeta berria

AGG-GAO, I. Ojanguren. OA6748

Diru-sarrerak komunitatearen ondasunek sortutako errentetatik zetozen. Hauek ziren ondasun horiek: kontzejuaren bi etxeak (Arguruzeaga Berria eta Arguruzeaga Zaharra), Zarateko benta, Alturriaga, Legoiaga eta Arsulondoko burdinolak eta Alkañiz eta Akezkoako errotak, eta orobat ikatz egiteko kontzejuko mendietako zuhaitzen salmenta. Ondasun hauez gain, herri-ondasunak zeuden, besteak beste, auzotarrentzako egurrak, iratzeak eta ganaduaren bazkak osatzen zutenak, baina altxor publikoari dirurik ematen ez ziotenak. Izan ere, ondasun hauek erabiltzeagatik ez zen dirurik ordaintzen, kontzejuaren xedapenei jarraiki aprobetxatu egiten ziren, besterik ez.

1731ko kontuek udalaren diru-sarreraren iturburua (kargua) deskribatzen dute. Hona hemen diruzainak urte horretan idatzitakoa:

1. Arguruzeaga Zaharra kontzejuaren etxea alokatzeagatik: 165 erreale
2. Arguruzeaga Berria kontzejuaren etxea alokatzeagatik: 99 erreale
3. Zarateko benta alokatzeagatik: 495 erreale

Así, los ingresos provenían de las rentas producidas por los bienes de la comunidad, llamados de propios. Estos estaban compuestos por las dos casas concejiles (Arguruzeaga Berria y Arguruzeaga Zaharra), la casa-venta de Zarate, las ferrerías de Alturriaga, Legoiaga y Arsulondo y los molinos de Akezkoa y Alkañiz, así como por la venta de madera para carbón extraída de los montes concejiles. Además de éstos, existían los bienes comunales, que eran aquellos que proporcionaban madera, helecho, pasto... a sus vecinos y moradores, pero que no suponían un ingreso en las arcas públicas, puesto que por su utilización no se pagaba sino que se aprovechaban según las disposiciones concejiles.

Las cuentas del citado año de 1731 ilustran sobre el origen de lo que engrasaba el ayuntamiento, denominado cargo. Los apuntamientos realizados por el tesorero ese año y lo ingresado por cada concepto fueron los siguientes:

1. por la renta de la casa concejil Arguruzeaga Zaharra: 165 reales
2. por renta de la casa concejil Arguruzeaga Berria: 99 reales
3. por la renta de la casa-venta de Zarate: 495 reales

4. Altzurriaga errementeria alokatzeagatik: 2.440 erreal
5. Arsulondoko burdinola alokatzeagatik, (olagizona Juan Bautista Agote izan zen urte horretan): 235 erreal
6. Alkañiz eta Akezkoako errotak saltzeagatik: 902 erreal
7. "alcabala foránea" izeneko zerga alokatzeagatik: 66 erreal
8. Agote olagizonari 2.890 zama zur saltzeagatik: 8.670 erreal
9. Juan Ruiz Irraragorri olagizonari 20 zama zur saltzeagatik: 60 erreal
10. Julian Urruzolari 18 zama zur saltzeagatik: 54 erreal
11. Sebastien Gandarias presbiteroari 8 zama zur saltzeagatik: 24 erreal
12. Juan Ibarriari 6 zama zur saltzeagatik: 18 erreal
13. Pedro Aldakori 36 zama zur saltzeagatik: 108 erreal
14. Jose Alzateri 8 zama zur saltzeagatik: 24 erreal
15. Eugenio Leundari 16 zama zur saltzeagatik: 48 erreal
16. Juanes Beldarrain Irazuri enbor bat saltzeagatik: 18 erreal
17. Kontzejuaren mendietan zuhaitzak moztu eta kalteak eragiteagatik, zenbaiti –ez da izenenik ematen– ezarritako isunengatik: 36 erreal
- Zizurkilgo udalak 13.462 erreal bildu zituen 1731. urtean.
- Alabaina, urte horretan kontzejuaren administrazioak izandako gastuak (data) ere zehazten dira:
18. Karguak betetzen dituztenek egindako gastua dela-eta Arguruzeaga Zaharra etxeko ostalariari ordaintzeagatik: 105 erreal
19. Arsulondoko presaren neurketa dela-eta Joaquin Beldarraini ordaintzeagatik: 15 erreal
20. Arsulondoko burdinolan izandako sutearen gastuengatik: 52 erreal
21. Arsulondoko presa neurtzeagatik: 18 erreal
22. Presa neurtu zuten adituen deklarazioa dela-eta Villabona-Amasako eskribauari ordaintzeagatik: 3 erreal
23. Kontzejuaren mendietako egurraren azterketa dela-eta ofizial ikazkina den Mateo Isamendiri ordaintzeagatik: 160 erreal.

4. por la renta de la herrería de Altzurriaga: 2.440 reales
5. por la renta de la herrería de Arsulondo, cuyo ferrón ese año había sido Juan Bautista de Agote: 235 reales
6. por la renta de los molinos de Akezkoa y Alkañiz: 902 reales
7. por la renta de la alcabala foránea: 66 reales
8. por la venta de 2890 cargas de leña al ferrón Agote: 8.670 reales
9. por la venta de 20 cargas de leña a Juan Ruiz de Irraragorri: 60 reales
10. por la venta de 18 cargas de leña a Julián de Urruzola: 54 reales
11. por la venta de 8 cargas de leña a Sebastián de Gandarias, presbítero: 24 reales
12. por la venta de 6 cargas de leña a Juan de Ibarra: 18 reales
13. por la venta de 36 cargas de leña a Pedro de Aldako: 108 reales
14. por la venta de 8 cargas de leña a José de Alzate: 24 reales
15. por la venta de 16 cargas de leña a Eugenio de Leunda: 48 reales
16. por la venta de un madero a Juanes de Beldarrain Irazu: 18 reales
17. por multas por talas y daños en los montes concejiles a diferentes personas, cuyos nombres no se especifican: 36 reales
- De forma que el total de lo ingresado por el ayuntamiento de Zizurkil en 1.731 ascendió a la cantidad de 13.462 reales.
- Frente a esta suma se encontraban los gastos en que incurría la administración del concejo, (data), igualmente detallados minuciosamente en las cuentas de ese año. Estos fueron:
18. por el pago a la mesonera de la casa Arguruzeaga Zaharra debido al gasto hecho por los cargohabientes: 105 reales
19. por medición de la presa de Arsulondo, a Joaquín de Beldarrain: 15 reales
20. por gastos del incendio en la herrería de Arsulondo: 52 reales
21. por medición de la presa de Arsulondo: 18 reales
22. al escribano de Villabona-Amasa por la declaración de los peritos que midieron la presa: 3 reales
23. por el examen de la leña de los montes concejiles, a Mateo de Isamendi, oficial carbonero: 160 reales.

24. Egurraren azterketari buruz aurrekoak egindako deklarazioa dela-eta Zizurkilgo eskribaua den Miguel Antonio San Millani ordaintzeagatik: 3 erreal

25. Altxurriaga etxeko mintegien konponketari buruz Martin Saroberekin hitz egiteko kapitularrek egindako bileraren gastuak ordaintzeagatik: 86 erreal

26. Arsulondoko errotaren pisuen azterketa dela-eta Arguruzeaga Zaharra etxeko ostalariari ordaintzeagatik: 39 erreal

27. Landatze-gastuengatik: 399 erreal

28. Juan Agirre zurginak Arguruzeaga Berria kontzejuaren etxerako egindako aulki eta eserlekuak ordaintzeagatik: 105 erreal

29. Urak eraitsitako Akezkoako errotaren presa konpondu duten hainbat langileri ordaintzeagatik: 215 erreal

30. Presa konpontzeko iltzeengatik: 31 erreal

31. Aurreko presaren konponketa dela-eta ofizial zurginak diren Ignacio eta Jose Etxenagusari eta Julian Beldarrain zurginari ordaintzeagatik: 276 erreal

32. Presa honen konponketan egindako lana dela-eta Gabriel Aldakori ordaintzeagatik: 48 erreal

33. Arrazoi bera dela-eta Gabriel Ostolazari ordaintzeagatik: 45 erreal

34. Arrazoi bera dela-eta Gabriel Sarastiri ordaintzeagatik: 10 erreal

35. Arguruzeaga Zaharra kontzejuaren etxeko iturria konpontzeagatik: 441 erreal

36. Joaquin Beldarrainek Zarateko Bentan sagarrondo batzuk txertatzeagatik: 14 erreal

37. Guruzetako errege-bidea konpontzen aritu ziren 18 langileri ordaintzeagatik: 54 erreal

38. Zuhaitzen inguruko zorrei buruz hitz egiteko Julian Urruzolarekin bildutako kapitularren gastua ostalariari ordaintzeagatik: 15 erreal

39. Herriko mendietan otsoak ehizatzeagatik: 24 erreal

40. Albizturko alkabala-biltzaileari Zizurkilgo alkabalarri dagokiona ordaintzeagatik: 140 erreal

24. al escribano de Zizurkil, Miguel Antonio de San Millán, por la declaración del anterior sobre el examen de leña: 3 reales

25. por los gastos de la reunión de los capitulares con Martín de Sarobe para tratar sobre la composición de los viveros de la casa de Altxurriaga: 86 reales

26. por el pago a la mesonera de Arguruzeaga Zaharra por los gastos del reconocimiento de las pesas del molino de Arsulondo: 39 reales

27. por gastos de plantíos: 399 reales

28. por bancos y asientos para la casa concejil de Arguruzeaga Berria, a Juan de Agirre, carpintero: 105 reales

29. por el gasto de varios peones en componer la presa del molino de Akezkoa, derribada por el agua: 215 reales

30. por los clavos para componer la presa: 31 reales

31. a los oficiales carpinteros Ignacio y José de Etxenagusia por la composición de la presa anterior, y a Julián de Beldarrain, asimismo carpintero: 276 reales

32. a Gabriel de Aldako por su ocupación en el arreglo de esta presa: 48 reales

33. a Gabriel de Ostolaza por lo mismo: 45 reales

34. a Gabriel de Sarasti por lo mismo: 10 reales

35. por el arreglo de la fuente de la casa concejil de Arguruzeaga Zaharra: 441 reales

36. a Joaquín de Beldarrain por injerir unos manzanos en la Venta de Zarate: 14 reales

37. por el arreglo del camino real de Guruzeta, en el que se ocuparon 18 peones: 54 reales

38. al mesonero por el gasto de los capitulares reunidos con Julián de Urruzola para tratar deudas de árboles: 15 reales

39. por caza de lobos en los montes de la localidad: 24 reales

40. al alcabalero de Albiztur por lo correspondiente a la alcabala de Zizurkil: 140 reales





41. Gorpuzti-egunaren gastua ostalariari ordaintzeagatik: 120 erreal  
42. Zinpekoen soldata arruntarengatik: 66 erreal  
43. Kontu-ikuskatzaileen soldata arruntarengatik: 45 erreal  
44. Mendiak aztertzeraz joandako zenbaitek egindako gastua Zarateko bentariari ordaintzeagatik: 24 erreal

41. al mesonero por el gasto del día del Corpus: 120 reales  
42. al jurado por su salario ordinario: 66 reales  
43. a los veedores de cuentas por su salario ordinario: 45 reales  
44. al ventero de Zarate por gastos que allí hicieron varias personas reconociendo montes: 24 reales



Asteasura zihon bide zaharra / Camino viejo hacia Asteasu (1914)

AGG-GAO, I. Ojanguren.OA6755



45. Aizpururen soldata arruntarengatik: 156 erreal
46. Domingo Etxenagusia bulda-biltzailearen soldata arruntarengatik: 60 erreal
47. Hiribilduko kapitularren soldata arruntarengatik: 258 erreal
48. Gorpuzti-egunean jo zuen musikariari ordaintzeagatik: 24 erreal
49. Abuztuko Andra Mariaren jaietan jo zuten musikariak ordaintzeagatik: 213 erreal
50. Diruzainaren soldata arruntarengatik: 77 erreal
51. Hiribilduko batzarkidearen soldatarengatik: 240 erreal
52. Probintziako suen diruzainari Zizurkili dagokiona ordaintzeagatik: 666 erreal
53. Juan Lopez San Millani ordaintzeagatik (irakasle-soldata, zentsu baten interes atzeratuak): 1.719 erreal
54. Arsulondoko burdinolaren presa txikian egindako hargintza-lanengatik: 1.515 erreal
55. Legoiagako burdinolaren presan egindako hargintza-lanengatik: 555 erreal
56. Aipatutako burdinolaren ur-andelaren konponketa dela-eta Juan Bautista Agoteri eta bere ofizialei ordaintzeagatik: 192 erreal
57. Legoiagako burdinolaren zepoa konpontzeagatik: 256 erreal
58. Zentsu baten interesak direla-eta San Bartolomeko mojen komentuari ordaintzeagatik: 555 erreal
59. Zentsu baten interesak direla-eta Jose Mutiori ordaintzeagatik: 33 erreal
60. Zentsu baten interesak direla-eta Ignacio Otazuri ordaintzeagatik: 165 erreal
61. Zentsu baten interesak direla-eta Juan Urrutiaren kapilautzari ordaintzeagatik: 363 erreal
62. Zentsu baten interesak direla-eta Pedro Atorrasagastiri ordaintzeagatik: 198 erreal
63. Zentsu baten interesak direla-eta Juan Antonio Igerategiri ordaintzeagatik: 429 erreal
45. al dicho Aizpuru por su salario ordinario: 156 reales
46. al colector de la bula, Domingo de Etxenagusia, por su salario ordinario: 60 reales
47. a los capitulares de la villa por su salario ordinario: 258 reales
48. al músico por el día del Corpus: 24 reales
49. por los músicos de las fiestas de Nuestra Señora de agosto: 213 reales
50. al tesorero por su salario ordinario: 77 reales
51. al juntero de la villa por su salario: 240 reales
52. al tesorero fogueral de la Provincia por lo que cabe a Zizurkil: 666 reales
53. a Juan López de San Millán, por diversos conceptos (maestro escuela, réditos atrasados de un censo): 1.719 reales
54. por obras de cantería en la presa menor de la ferrería de Arsulondo: 1.515 reales
55. por obras de cantería en la presa de la ferrería de Legoiaga: 555 reales
56. por composición de la anteparas de la citada ferrería, a Juan Bautista de Agote y sus oficiales: 192 reales
57. por arreglo del cepo de la ferrería de Legoiaga: 256 reales
58. por réditos de un censo al convento de monjas de San Bartolomé de Hernani: 555 reales
59. por réditos de un censo a José de Mutio: 33 reales
60. por réditos de un censo a Ignacio de Otazu: 165 reales
61. por réditos de un censo a la capellanía de Juan de Urrutia: 363 reales
62. por réditos de un censo a Pedro de Atorrasagasti: 198 reales
63. por réditos de un censo a Juan Antonio de Igerategi: 429 reales

64. Zentsu baten interesak direla-eta Manuel Sanzi ordaintzeagatik: 198 erreal
65. Zentsu baten interesak direla-eta Tolosako Santa Clara komentuari ordaintzeagatik: 198 erreal
66. Zentsu baten interesak direla-eta Donostiako San Bartolome komentuari ordaintzeagatik: 198 erreal
67. Aipatutako interesak ordaintzeko lanarengatik: 22 erreal
68. Akezkoako errotaren kanalaren konponketa dela-eta Ignacio Iriarte maisu zurginari ordaintzeagatik: 48 erreal
69. Aurreko konponketarako iltzeengatik: 15 erreal
70. Zizurkilgo zenbakizko eskribaua izendatzeko eskrituraren kopia-rengatik eta ondoriozko gastuengatik: 79 erreal
71. Arguruzeagako iturrian egindako hargintza-lanak direla-eta Juan Miguel Gartxori ordaintzeagatik: 1.551 erreal
72. Arguruzeaga Berria kontzejuaren etxeko gela bat atontzeagatik: 75 erreal
73. Arguruzeaga Berria kontzejuaren etxeko sotoan hormatzar berri bat egiteagatik: 50 erreal
74. Kontzejuaren etxe zaharreko iturria konpontzerakoan Juan Ibarrenen baratzean egindako kalteengatik: 33 erreal
75. Burdinolara zepo bat eramateko zahagi bat ardo ostalariari ordaintzeagatik: 92 erreal
76. Hiribilduko Zenbakizko Eskribautza uzteari buruz Errege Kontseiluetako abokatuei galdetzeagatik: 133 erreal
77. Korregimentuan aurreko gaiari buruzko agiri bat eskatzeagatik: 22 erreal
78. Kontu-kitapena dela-eta diruzaina zen Martin Jose Beldarraini ordaintzeagatik: 450 erreal
79. Hainbat langilek eta idik Arguruzeagako iturrira materialak garraiatzeagatik: 36 erreal
80. Eskribauaren izendapena dela-eta kapitularren gastua ostalariari ordaintzeagatik: 10 erreal
64. por réditos de un censo a Manuel Sanz: 198 reales
65. por réditos de un censo al convento de Santa Clara en Tolosa: 198 reales
66. por réditos de un censo al convento de San Bartolomé de Donostia: 198 reales
67. por ocupación en pagar los citados réditos: 22 reales
68. por la composición del canal del molino de Akezkoa, a Ignacio de Iriarte, maestro carpintero: 48 reales
69. por los clavos para el arreglo anterior: 15 reales
70. por copia de escritura de nombramiento de escribano numeral de Zizurkil y gastos derivados: 79 reales
71. por obras de cantería en la fuente de Arguruzeaga, a Juan Miguel de Gartxo: 1.551 reales
72. por composición de un cuarto en la casa concejil de Arguruzeaga Berria: 75 reales
73. por fábrica del paredón nuevo de la bodega de la casa concejil de Arguruzeaga Berria: 50 reales
74. por perjuicio en la huerta de Juan de Ibarra en la casa concejil vieja a causa del arreglo de la fuente: 33 reales
75. al mesonero por un pellejo de vino para la conducción de un cepo a la ferrería: 92 reales
76. por consulta a abogados de los Reales Consejos sobre dejación de escribanía numeral de la villa: 133 reales
77. por saca de despacho en Corregimiento sobre asunto anterior: 22 reales
78. por alcance de cuentas al anterior tesorero, Martín José de Beldarrain: 450 reales
79. por transporte de materiales a la fuente de Arguruzeaga por varios peones y sus bueyes: 36 reales
80. por gasto de los capitulares con la mesonera por nombramiento de escribano: 10 reales

Partida hauen guztien batuketa eginez gero, ikusiko dugu 13.493 errealeko gastatu zituela udalak, beraz, 31 errealeko defizita izan zuen urte horretan. Diru gehiena errota eta burdinolak konpontzen gastatu zen eta orobat aurreko urtetan eskatutako maileguen interesetan. Egoera hauek urtero izaten ziren, eta are larriagoak zailtasun-egoeretan edo eraikin publikoak egin edo konpondu behar zirenean.

Adibide gisa, Arguruzeaga Zaharra kontzejuko etxearen ondoan zeuden udal-instalazioak osatzeko eraiki zen udaletxe berriaren eraikuntza dugu (Arguruzeaga Berria). Horixe aipatzen du 1713ko irailaren 17an Jose Zaldúa zizurkildarrak hiribildua egiten ari den kontzejuko etxe berrira egurra garraiatzeko egindako obligazioak: "que dicha villa está fabricando en la fachada y cercanía de la Arguruzeaga<sup>24</sup>". Enkante publikoan eskaini ondoren, 135 errealeko kopurua finkatu zen. Fidatzaileak Zizurkilgo Juan Larrandobuno, Juan Bautista Legaralde, Gabriel Mutio, Joanes Bengoetxea eta Juan Perez Beldarrain izan ziren.

Lan garrantzitsu honen inguruko datu gehiagorik ez dugun arren, hauxe da agiri horretako baldintzetako bat: Jose Zalduak lana zurez ez hornitzeagatik langileek ezin badute eraikina egin, horren ondoriozko gastuak bere gain hartu beharko ditu. Halaber hauxe hitzartzen da: "los frontales principales de que necesitare dicha obra y su acarreo aya de ser quando más lexos la casa de Pagabuno".

1722ko urtarrilaren 14an Domingo Imazi alokatutako Akezkoako errota udalak zituen zorren seinale da<sup>25</sup>. Behin errota alokairua 76 dukaten truke errematatuta eta adostuta, hiribilduko hartzekodun hauengana jo beharko zuela esan zion Udalak Imazi:

- Donostiako presbiteroa den Juan Irizarrengana, zentsu baten interesengatik 18 dukat zor zaizkiolako
- Hernaniko Agustinen komentuko mojegana, beste zentsu baten errentarengatik 21 dukat eta 5 erreale zor zaizkielako
- Donostiako San Bartolome komentuko mojegana, zentsu baten interesengatik 18 dukat zor zaizkielako
- Tolosako Santa Klara komentuko mojegana, beste zentsu baten interesengatik 9 dukat zor zaizkielako

<sup>24</sup> Asteasuko Udal Agiritegia. E-6-III-66-2. / Archivo Municipal de Asteasu. E-6-III-66-2.

<sup>25</sup> Idem. E-6-III-26-2. / Idem. E-6-III-26-2.

La suma de todas estas partidas asciende en total a 13493 reales, resultando ese año un déficit al ayuntamiento de 31 reales. Como se comprueba, una parte muy importante de los gastos se destina al pago de la composición de los molinos y de las ferrerías, así como a los réditos de los préstamos solicitados en años anteriores, circunstancias que por lo general se repetían año tras año, agravándose como hemos dicho en periodos de dificultad o cuando se tenía que hacer frente a la construcción o reparos de consideración en los edificios públicos.

Sirva como ejemplo la construcción de un nuevo ayuntamiento (casa de Arguruzeaga Berria), que venía a completar las instalaciones municipales que existían en la cercana casa concejil de Arguruzeaga Zaharra. De ello habla la obligación que en 17 de septiembre de 1713 hizo José de Zaldúa, vecino de Zizurkil, para el acarreo de madera con destino al edificio de la nueva casa concejil "que dicha villa está fabricando en la fachada y cercanía de la Arguruzeaga<sup>24</sup>". La cuantía ascendió a 135 reales, tras pujar en almoneda pública realizada por el concejo zizurkildarra, tomando por fiadores a sus convecinos Juan de Larrandobuno, Juan Bautista de Legaralde, Gabriel de Mutio, Joanes de Bengoetxea y Juan Pérez de Beldarrain.

Aunque al respecto de esta importante obra no hemos conseguido localizar más datos, en este documento se precisa entre las condiciones que si por falta de suministro de madera por José de Zaldúa los obreros no pudieran realizar la obra, los gastos que de ello se derivasen correrían a cuenta de éste. Asimismo se estipula que "los frontales principales de que necesitare dicha obra y su acarreo aya de ser quando más lexos la casa de Pagabuno".

El arrendamiento en 14 de enero de 1722 del molino concejil de Akezkoa a favor de Domingo de Imaz, vecino de Zizurkil, ilustra sobre las deudas que lastraban las cuentas públicas<sup>25</sup>. Imaz, una vez rematado y formalizado el alquiler del molino por la cantidad de 76 ducados, recibe instrucciones municipales sobre el destino que debe dar a este dinero, a saber, las personas acreedoras de la villa a las que se debe acudir con esta suma:

- don Juan de Irizar, presbitero de Donostia, a quien se le adeuda 18 ducados por los réditos de un censo
- las monjas del convento de las Agustinas de Hernani, igualmente por 21 ducados y 5 reales provenientes de la renta de otro censo
- las monjas del convento de San Bartolomé de Donostia, por 18 ducados también de réditos de un censo
- las monjas del convento de Santa Clara de Tolosa, por 9 ducados de los intereses de otro censo

- Eta azkenik, Manuela Olozaga tolosarrarengana, 9 dukat zor zaizkiolako

Domingo Imazek ordainketa hauen agiriekin joan beharko zuen Zizurkilgo prokuradore sindikoarengana Eguberri-eguna baino lehen. Sobratzen diren 3 dukat eta erdi horiek sindikoarentzat izango dira. Eskritura honen baldintzen artean ere honakoak daude: 30 libra bolbora ordaindu, Abuztuko Andra Mariaren jaietan egingo den korridarako zezen bat prest eduki eta gari anega bat entregatu jakinarazitako epeetan.

Kontzejuaren etxea ere alokatu behar izan zen 1754ko ekainaren 7an. Egun horretan udalak erabaki zuen Arguruzeaga Berria etxea, ostatu eta taberna barne, Millan Etxenagusiar alokatzea urtero 56 dukaten truke eta 6 urterako. Bildutakoen artean zeuden Gabriel Ameztói alkatea eta Juan Beldarrain eta Juan Bautista Irazu errejidoreak eta beste hainbat auzotar (Gabriel Etxenagusia, Juan Ignacio Larrandobuno, Martín Jose Iturralde, Juan Perez Irraragorri, Ignacio Atxega, Marcos Antonio Lejaristi, Juan Antonio de Añorga, Antonio Beldarrain, Juan Francisco Etxeberria, Sebastian Lizarraga, Pedro Aldako eta Juan Miguel Etxabe). Hauek ziren bete beharreko baldintzak:

- Errematatzaileak 9 egunetan egin beharko du fidantza-eskritura alokairu-kontratua ordaintzeko

- Erramu-arratsaldeetan askariak eskaini eta Abuztuko Andra Mariaren jaietan egingo diren bi zezen-korridak prestatu, kapitularrek agindutakoaren arabera. Zeregin hauen ondoriozko gastuak ordainduko zaizkio

- horrez gain, Gorpuzti-egunean bazkaria prestatu. Mahaikide bakoitzeko 3 erreal kobratuko ditu

- Hiribildua hornitzeko entregatzen zaizkion ardoak saldu beharko ditu bere tabernan. Kapitularrek ardoen kalitatea aztertuko dute. Halaber, hornitzaileei fidantzak eman eta kontuak entregatu beharko ditu

- Arguruzeaga Zaharra etxeko zalditegia erabil dezake gauzez edo egunez iristen diren zelabereentzat eta orobat etxe bereko ganbarako lastoa, zeinetik beti beharrak asetzeko aski egon beharko baitu. Arguruzeaga Berrian, aldiz, ez da lastorik izango, ohe eta lastairetarako izan ezik

- etxeko bi egongela nagusietan eta artxiboan ezin izango du alerik eduki, uneoro egon behar baitira kapitularren eta auzotarren eskura

- y finalmente, doña Manuela de Olozaga, vecina de Tolosa, a quien se le debían 9 ducados sin mayor precisión

Domingo de Imaz tendría que acudir con los recibos de estos pagos al procurador síndico de Zizurkil antes del día de Navidad. Los 3 ducados y medio restantes irán asimismo a manos del síndico ese día. Entre las condiciones de esta escritura figura también la obligación de pagar 30 libras de pólvora, disponer un toro para la corrida de las fiestas de Nuestra Señora de Agosto y entregar una fanega de trigo en los plazos que se le irían comunicando.

La propia casa concejil también es objeto de arrendamiento. Sirva de ejemplo la que tuvo lugar en 7 de junio de 1754. Este día se acuerda en ayuntamiento general, en el que están presentes el alcalde Gabriel de Ameztói y los regidores Juan de Beldarrain y Juan Bautista de Irazu, junto a otros vecinos (Gabriel de Etxenagusia, Juan Ignacio de Larrandobuno, Martín José de Iturralde, Juan Pérez de Irraragorri, Ignacio de Atxega, Marcos Antonio de Lejaristi, Juan Antonio de Añorga, Antonio de Beldarrain, Juan Francisco de Etxeberria, Sebastián de Lizarraga, Pedro de Aldako y Juan Miguel de Etxabe) la entrega en alquiler a Millán de Etxenagusia de la casa concejil de Arguruzeaga Berria, con su taberna y mesón, por 56 ducados anuales y 6 años de plazo, estableciendo una serie de condiciones:

- el rematante hará en el plazo de 9 días escritura de fianza para la paga puntual del contrato de alquiler

- dispondrá las meriendas acostumbradas en la tarde de Ramos, y preparará las dos corridas de toros en la festividad de Nuestra Señora de Agosto, según se le ordene por los capitulares y pagándosele su importe

- además, dispondrá la comida del día del Corpus para los que acudan a la misma, pagándosele 3 reales por cada uno de ellos

- tendrá la obligación de vender en su taberna todos los vinos que se le entreguen para la provisión de la villa, haciéndose el reconocimiento de su calidad por los capitulares, dando fianzas a los proveedores y entregando cuenta de todo

- podrá disponer de la caballeriza de la casa de Arguruzeaga Zaharra para las cabalgaduras que llegaren de día o de noche, y de la paja del desván de la misma casa, que siempre debería estar bien surtido de la misma, sin que pueda tener paja en Arguruzeaga la Nueva, salvo para las camas y jergones

- no podrá tener en las dos salas principales de esta casa ni en su archivo ningún tipo de grano, pues tienen que estar siempre desembarazadas y a disposición de los capitulares y vecinos

- Ogiz, zerealez eta bestelako jakiz hornituko du taberna
- Arguruzeaga Berria etxean beharrezkoa den argia bere kontura izango da neguan gaueko 8ak arte eta udan 9ak arte
- Erraztu egingo ditu bi egongela nagusiak igande eta jaiegunetan. Gainerako gelek ere garbiak egon beharko dute
- Tuterako eta Erriberako ardo apartak Arguruzeaga Zaharrean salduko dira eta Nafarroako gainerako ardoak eta ardo arruntak, berriz, Arguruzeaga Berrian

Bestalde, udalek, aurreko zorrak arintze aldera, askotan eraikitzen zituzten industria tradizionalak (errotak, burdinolak, teileriak), zorpetzeari erantzuteko errenta erregular batzuk eskuratzearren. Helburu horrekin, hain zuzen ere, erabaki zen 1756ko apirilaren 10ean teileria berri bat egitea Zizurkil<sup>26</sup>. Marcos Antonio Lejaristi alkateak, Andres Agirre eta

- hará provisión de pan, cereales y otras viandas necesarias para el mesón
- será a su costa la luz necesaria en la casa concejil de Arguruzeaga Berria hasta las 8 de la noche en invierno y hasta las 9 en verano
- barrerá las dos salas principales todos los domingos y festivos, y el resto de habitaciones tendrán que estar asimismo limpias
- los vinos exquisitos de Tudela y la Ribera se venderán en Arguruzeaga la Vieja, mientras que el resto de Navarra y los ordinarios en la nueva.

Por otra parte, los ayuntamientos, para contrarrestar las deudas anteriores, procederán en muchas ocasiones a la construcción de cierto tipo de industrias tradicionales (molinos, ferrerías, tejerías), destinadas a obtener unas rentas regulares con que hacer frente a su endeudamiento. Precisamente con este objetivo se acuerda en 10 de abril de 1756 la fábrica de una nueva tejería en Zizurkil<sup>26</sup>. Reunidos en ayuntamiento general Marcos Antonio de Lejaristi, alcalde, Andrés de Agirre y Gabriel

<sup>26</sup> Zizurkilgo Udal Agiritegia. Sig. 171.1 / Archivo Municipal de Zizurkil. Sig. 171.1



Telleria aldea (2005)

Joxin Azkue



Gabriel Etxenagusia errejidoreek eta Juan Ignacio Larrandobuno, Ignacio Martín Atxega, Pedro Aldako, Juan Antonio Añorga eta Sebastian Lizarraga auzotarrek, “la maior y más sana parte de los que al presente residen en ella”, bildu eta berretsi egin zuten alkateak eta errejidoreek kontzejuko Akezkozabal barrutian teileria berri bat eraikitzeko Donostian bizi zen Esteban Laxalde frantsesarekin aurretik hartutako erabakia.

Pedro Aldako prest zegoen Iturraldeko bere etxeak Akezkozabaletik gertu zuen lugorri zati bat saltzeko bertan teileria egiteko. Aldakok hiri-bilduari dirua zor zionez –horixe erakusten du udal-diruzain kargua utzi ondoren egindako kontuen kitapenak–, lugorriaren salmenta onartu eta Amasa-Villabonako Juan Lizarraga peritua izendatu zen.

Atal honekin amaitzeko, burdinolak eta errotak mantentzetik etorrirako arazoak adierazten dituzten hiru agiri erakutsi nahi ditugu. Ondasun hauek udaleko diru-kutxentzat diru-sarrera iturri erregularra izan arren, gastu handiak eragiten zituzten mantentze-lanak eta konponketak zirela eta. Gainera, gastu hauek ordaintzeko orduan adostasunik ez zegoenez, kontzejua eta maizterrak auzitan sartzen ziren.

1758an, Arsulondoko burdinolaren maizter Gabriel Ameztok salatu egin zuen Zizurkil hiribildua bertan egin beharreko konponketengatik. Haren ustez, lan hauek udalaren kontura izan behar zuten<sup>27</sup>. Ameztok dio –sei urterako alokatu zuen burdinola eta bi urte zera-matzen bertan– burdinolaren presa gaizki zebilela ura errotan sartu beharrean ibairatu egiten zelako: “de modo que las aguas que se debían introducir en ella pasaban al río”. Eta urik sartzen ez zenez, ezin zen errementerian lanik egin. Egoera honen aurrean, memoria bat aurkeztu zuen udalean, presak zituen zuloak eta arrailak konpontzeko eskatuz. Dirudenez, udalak proposamena onartu eta bi alderdiek aditu bana (Juan Cruz Irazusta eta Pedro Antonio Etxabe) izendatu zituzten presaren akatsak aztertzeko. Azterketaren ondoren, hiribilduak enkan-tean atera zuen aurreikusitako lanen errematea. Juan Ignacio Beldarrain izan zen eskaintzarik hoberena egin zuena, eta ondorioz, adituen aginduak jarraituta konponketak egin zituen. Alabaina, presa konpondu ostean, urak ibaian husten jarraitzen zuen. Alferrikako lana izateaz gain, Gabriel Ameztok kalte larriak jasan zituen burdinolaren egiturazko akatsak eragindako geldialdiengatik. Horiek horrela, konponketa berriak egiteko eskatu zuen bere demandan.

de Etxenagusia, regidores, Juan Ignacio de Larrandobuno, Ignacio Martín de Atxega, Pedro de Aldako, Juan Antonio de Añorga y Sebastián de Lizarraga, “la maior y más sana parte de los que al presente residen en ella”, señalan el acuerdo que habían establecido previamente el alcalde y los regidores con Esteban de Laxalde, francés, residente en Donostia, para construir una tejería nueva en el término concejil de Akezkozabal.

Pedro de Aldako muestra su disposición a vender una porción de terreno baldío que su casa de Iturralde tenía en las cercanías del citado paraje de Akezkozabal para que se levantase allí la tejería. Ante la situación de deudor de Aldako con respecto a la villa tras su paso por la tesorería municipal según el alcance de cuentas que se realizó a la finalización de su cargo, se acuerda admitir la venta del terreno, nombrándose perito a Juan de Lizarraga, alcalde de Amasa-Villabona.

Para finalizar con este apartado queremos mostrar tres documentos que manifiestan varios problemas derivados del mantenimiento de ferrerías y molinos. Estos bienes, si bien fuente regular de ingresos en las arcas municipales, se convertían frecuentemente en motivo de importantes gastos con ocasión de su mantenimiento y reparación. Además, la falta de acuerdo sobre a quién correspondía sufragarlo desembocaba a veces en pleito entre el concejo y los arrendadores de estos bienes.

En 1758, Gabriel de Ameztok, arrendatario de la ferrería de Arsulondo, denunció a la villa de Zizurkil a causa de los reparos que se tenían que realizar en la misma, y que según su opinión, debían correr a cargo del ayuntamiento<sup>27</sup>. Según la acusación de Ameztok, quien se hallaba en el segundo año de un arrendamiento estipulado en seis, la presa de la ferrería estaba defectuosa, “de modo que las aguas que se debían introducir en ella pasaban al río”. Por este motivo de falta de agua, la ferrería dejaba de labrar en muchas ocasiones, perjudicando sus intereses. Ante esta circunstancia, presentó un memorial en el ayuntamiento instando a que se procediese a reparar los agujeros y grietas que había en la presa. Parece que el ayuntamiento aceptó esta propuesta, nombrándose por ambas partes dos peritos para que reconociesen los defectos de la presa (Juan Cruz de Irazusta y Pedro Antonio de Etxabe). En vista de su examen, la villa sacó a concurso el remate de las obras previstas, siendo el mejor postor Juan Ignacio de Beldarrain, quien hizo las obras conforme a los dictados de los peritos. Sin embargo y a pesar de este reparo, las aguas seguían yendo a parar al río, habiendo resultado inútiles las obras y sufriendo graves daños Gabriel de Ameztok por las paradas de la ferrería a causa de los desperfectos casi estructurales en la ferrería, hecho por el que solicita en su demanda ejecutar nuevas obras.

<sup>27</sup> Gipuzkoako Artxibo Orokorra. CO ECI 3656 / Archivo General de Gipuzkoa. CO ECI 3656



Atxulondo burdinolaren aztarnak/Ruinas de la ferrería de Atxulondo (2006)

Joxin Azkue

Eskaera honek banandu egin zuen kontzejua: auzotar batzuek epaiketa jarraitu nahi zuten eta beste batzuek (alkateak, Gabriel Etxenagusiak, Martín Jose Iturralde, Antonio Añorgak, Sebastian Lizarragak, Ignacio Atxegak, Jose Beldarrainek eta Gabriel Elizalde) ez zuten iritzirik eman.

1757an adituek egindako deklarazio bat aurkeztu zen. Ameztoi beste memoria bat aurkeztu zuen presaren ur-andelaren zartadurak konpontzeko. Dirudienez, 1756ko uholdeek irekidurak eta pitzadurak eragin zituzten ur-andelean.

Su petición divide al concejo. Una parte de los vecinos son partidarios de proseguir el juicio, mientras que el alcalde, Gabriel de Etxenagusia, Martín José de Iturralde, Antonio de Añorga, Sebastián de Lizarraga, Ignacio de Atxega, José de Beldarrain y Gabriel de Elizalde se excusaron de tomar parte en este asunto alegando no tener suficientes elementos de juicio para formular su opinión.

Se presenta una declaración de peritos realizada el año de 1757, fecha en la que Ameztoi presentó otro memorial solicitando fueran reparadas las grietas de las anteparas de la presa. A este respecto, parece ser que las graves inundaciones de 1756 provocaron varias aberturas y fisuras en las anteparas no sustanciadas convenientemente.



Ameztok dio –udal-ordenantzek dioten moduan, aurrena abokatu batengana jo gabe– auziarekin jarraitu nahi zuten auzotarrek, eta zehazki Andres Agirre sindiko prokuradore nagusiak, interesen bat zutela gaian. Agirrerri leporatzen zion dirua irabazi nahi izatea gaiaz arduratzeagatik eta eskatutako konpultsek ez zutela ezertarako balio esan ondoren, bere poltsikotik ordaintzeko eskatu zuen. Auzia hemen bukatu bazen ere, demanda honek erakusten du aparteko diru-sarrerak eskuratzeko kargu publiko batzuek kausa judicial batzuetan parte hartzeko izan zezaiketen interesa. Hortik kontzejukarguak lortzearen garrantzia.

Antzekoa da 1765ean Akezkoako errotaren maizterrak ziren Zizurkilgo Jose Irrargarrik eta Juan Bautista Elizondok Zizurkilen aurka aurkeztutako kereila<sup>27</sup>. Urte horretako ekainean izandako uholdeek era-

Ameztok declara que si algunos vecinos decidieron proseguir con el pleito sin acudir antes a un abogado, tal y como precisaban las ordenanzas municipales, era porque podían tener algún interés en el asunto, en especial el síndico procurador general, Andrés de Agirre, a quien acusa de esperar sacar algunos días de salario ocupándose del tema, culpándole además de ser inútiles las compulsas que había pedido, por lo que solicita que las pague de su bolsillo. Aunque este pleito finaliza aquí, esta demanda ilustra el interés que podían tener algunos cargos públicos en tomar parte en causas judiciales que servían para recibir unos ingresos extraordinarios. De ahí la importancia de lograr cargos concejiles.

Similar querrela es la que en 1765 formularon contra la villa de Zizurkil José de Irrargarri y Juan Bautista de Elizondo, vecinos de Zizurkil y arrendadores del molino de Akezkoa<sup>28</sup>. Nuevamente el pleito gira en torno a los desperfectos causados por las

<sup>27</sup> Idem. CO ECI 3883 / Idem. CO ECI 3883



Aezkoerota (2006)

Joxin Azkue

gindako kalteei buruzkoa da auzia. Errota euri-zaparradek presa eram zutenetik, alegia, ekainaren 11tik, geldirik zegoen eta hiru hilabete ziren kalteak konpontzen ez zirela. Gainera, ekainean, uztailean eta abuztuan ateratzen zitzaion errotari etekin gehien. Izan ere, hilabete horietan ehotzen ziren zerealak “pues en los meses restantes del año apenas produce lo suficiente para mantener al molinero y pagar su salario”. Arrazoibide hau alokairuaren urteko errenta (80 dukat) ordaindu ez izana justifikatzeko ez ezik, lan gehien zegoen garaian errota geldirik egoteak eragindako kaltearengatik kopuru horren murriztapena eskatzeko ere erabili zuten.

Dena den, hiribilduak zioen horrelakoetan ez zuela alokairua kobratzeko ohiturarik baina ez zuela kontuan hartzen hilabete horietan lan gehiago edo gutxiago egiten zen. Gainera, hiribilduaren ustez, alea urte osoan zen garestia eta kapitularrek errotaren urteko errenta igotzeko asmoa zuten.

Epaiak, kasu honetan, errota geldirik egon zen denboraren zati proporzionala ordaintzera behartu zuen hiribildua, baina aintzat hartu gabe lan gehiagoko edo gutxiagoko hilabeteak ziren.

Eta bukatzeko, beste auzi bat aipatuko dizuegu. Kasu honetan, gainera, gizakia dugu, eta ez naturaren indarra, presa bat hondatzearen erruduna.

Autoak Zizurkilgo alkate Joaquin Beldarrainen aurrean hasi ziren 1762an<sup>29</sup>. Goiz hartan, alkateak fede eman zuen goizeko sei eta erdietan zenbaitek egindako txikizioen berri izan zuela. Pertsona horiek asmo gaiztokoak zirela dio: “malintencionadas, con poco temor de Dios y sus conciencias y en desprecio de la justicia, han derrivado y despedazado parte de la séptima cruz del Calvario de esta villa y esta misma mañana o de aier acá han derribado también la presa nueva echa esta semana por la noble villa de Amasa-Villabona para su molino de Oracaiztegui en jurisdicción de esta de Cizúrquil, como lo han hecho en otras dos distintas ocasiones anteriores durante el corriente mes y tubieron también la osadía de derribar por dos veces anteriormente parte del antepecho del puente que esta villa tiene cerca de la texería de Ygarza”.

Gertaera hauek argitzeko asmoz, Juan Bautista Jenoa errota-riari hartu zitzaion aitortpena. Honek dio Andres Aldakori entzun ziola

inundaciones, en este caso habidas en junio de ese año. Según su relato, las fuertes lluvias arrastraron la presa del molino, motivo por el que estaba parado desde el día 11 de junio, habiendo pasado ya 3 meses sin que se solucionaran los daños. Señalan asimismo que los meses de junio, julio y agosto era la época que mayor rendimiento se le sacaba al molino, por ser los meses del año dedicados a moler los cereales, “pues en los meses restantes del año apenas produce lo suficiente para mantener al molinero y pagar su salario”. Esta argumentación les sirve para justificar el impago de la renta anual del arrendamiento, cifrada en 80 ducados, y para solicitar la reducción de esta cantidad por el daño causado en función de la pérdida que causaba la citada parada del molino en los meses de mayor trabajo.

La villa en su defensa reconoce la costumbre de no cobrar la parte del arrendamiento en que el molino se hallase parado, pero en cambio dice que no se tenía en cuenta si esos meses eran de mayor o menor labor, señalando a su vez la carestía del grano durante todo el año, circunstancia que estaba haciendo plantearse a los capitulares la necesidad de subir la renta anual del alquiler del molino.

La sentencia en este caso obliga a la villa a pagar la parte proporcional en que el molino se encontró parado, pero sin que debieran tener en cuenta si eran meses de mayor o menor trabajo.

Y finalmente, concluimos con un episodio en el que el causante del deterioro de las presas no es la fuerza de la naturaleza, sino la compleja voluntad humana.

Los autos se inician ante el alcalde de Zizurkil, Joaquín de Beldarrain, en 1762<sup>29</sup>. Esa mañana el alcalde da fe de haber llegado a su noticia cómo a las 6 y media alguna o algunas personas “malintencionadas, con poco temor de Dios y sus conciencias y en desprecio de la justicia, han derrivado y despedazado parte de la séptima cruz del Calvario de esta villa y esta misma mañana o de aier acá han derribado también la presa nueva echa esta semana por la noble villa de Amasa-Villabona para su molino de Oracaiztegui en jurisdicción de esta de Cizúrquil, como lo han hecho en otras dos distintas ocasiones anteriores durante el corriente mes y tubieron también la osadía de derribar por dos veces anteriormente parte del antepecho del puente que esta villa tiene cerca de la texería de Ygarza”.

En la búsqueda de informantes que tuvieran conocimiento sobre estos sucesos, se toma declaración al molinero de Orcaiztegui, Juan Bautista de Jenoa, quien declara que hacía algunos días había escuchado decir a Andrés de Aldako repetidas

<sup>29</sup> Valladolideko Errege Chancilleriako Artxiboa. Auzi Zibilak. Fernando Alonso. Ahaztuta. C 2147/7. / Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Pleitos Civiles. Fernando Alonso. Olvidados. C 2147/7.



behin baino gehiagotan esaten presa hura eraitsiko zuela (“que derribaría la sobredicha presa”) eta azkenean halaxe egin zuen. Dirudienez, Aldakok jendaurrean aipatu zuen presa bota eta beherago eraiki behar zela, aurreko zedarriaren aldaketarekin eta presaren goratzearekin Zizurkilgo interesak kaltetzen zirelako.

Aldako atxilotu zuten eta adingabea zenez (25 urte baino gutxiago zituen), zaindari bat (Juan Bautista de Elizondo) izendatu behar izan zuten. Andres Aldakok presa ez zuela eraitsi deklaratu zuen. Hark zioenez, goiz hartan arrantzan ibili zen Igartzako teilagin frantsesekin. Dena den, botako zuela esan izana aitortu zuen, presa goratzeak bere errotari kalte egiten ziolako. Akezkoako ibilgua Orkaiztegiko errotarantz desbideratuta zegoenez, ibaian behera zegoen bere errotak ur gutxi jasotzen zuen. Akezkoako errotarengatik 30 dukat ordaintzen zituen urtero. Halaber, goiz hartan Arguruzteaga Zaharra kontzejuaren etxean egon zela zioen. Haren ustez, presa eraitsi zutenak teilagin frantsesak izan ziren. Aldako atxilotu eta kartzela publikoan giltzapetu zuten. Alabaina, oraingoan ere ez dakigu auzi hau nola amaitu zen

### 1.5. Kontzejuko hauteskundeak

"Don Manuel Antonio Brochero, primer Rey de Armas de Su Magestad Cathólica, el Señor Don Carlos Tercero, Rey de España, de las Yndias Orientales y Occidentales, Yslas y tierra firme de el Mar Océano, que asisto cerca de su Real persona y su Coronista general, **certifico** en virtud de la Real facultad que tengo aprovada y ratificada por resolución de Su Magestad de diez y seis de noviembre de mil setecientos quarenta y nueve, en que mandó que ninguna otra persona que los Reyes de Armas se intromea en hacer los Entronques, Genealogías ni los demás instrumentos privativos de estos empleos, que las que corresponden a la Villa de Cizurquil, una de las comprendidas en la M.N.M.L. Provincia de Guipúzcoa, son doce piezas de Metal de Artillería en Campo Roxo, las mismas que la Señora Reyna Doña Juana concedió por su Privilegio en Medina del Campo, a veynte y ocho de Febrero de mil quinientos y trece a la referida Provincia, en atención a que los Fixosdalgo, Vecinos y Moradores de ella derrotaron a los Franceses en las Sierras de Velate, tomándoles las doce expresadas Piezas, con que antes avían convatido la Ciudad de Pamplona, y para que los que a la sazón heran y en adelante fuesen, guardasen y acrecentasen su honra. Y para que pueda la referida Villa usar de las expresadas Armas en las partes que la convenga, conforme a el citado Privilegio a que me remito, doy de su pedimento la presente firmada de mi nombre y sellada con el Sello de mis Armas en Madrid, a veinte y cinco de Abril de mil setecientos sesenta y ocho"<sup>38</sup>.

Además, en el mismo documento figura un anexo en el que se indican las casas de Zizurkil que contaban con escudo de armas:

"Nómina de las casas solares y apellidos que hay en esta villa de Cizúrquil como también de las armeras:

<sup>38</sup> Idem, 300,1 /Idem, 300,1



La casa de San Millán Done María, de parientes mayores y patrona de su parroquia, armera. Andía, armera. Andiazabal. Araeta, 3. Andrezqueta. Arizmendi. Berastegui, armera. Azcarate. Yrazu 2, armeras. Larrondobuno. Luzuriaga, armera. Legarralde. Loydi. Yarza. Yturralde. Otazu. Pagamuño. Zaldúa, 2."

La casa de San Millán Done María, de parientes mayores y patrona de su parroquia, armera. Andía, armera. Andiazabal. Araeta, 3. Andrezqueta. Arizmendi. Berastegui, armera. Azcarate. Yrazu 2, armeras. Larrondobuno. Luzuriaga, armera. Legarralde. Loydi. Yarza. Yturralde. Otazu. Pagamuño. Zaldúa, 2."



Hiribilduaren armariaren ziurtagiria/Certificación del escudo de armas de la Villa (1768). ZUA, 300,1






# 2.

## Hiribilduaren ekonomia

La economía de la villa



## 2. HIRIBILDUAREN EKONOMIA

Zizurkilgo egungo orografiari begiratu bat eginez gero, abeltzaintzarako baldintza apartak dituela ohartuko gara. Zentzu honetan, Aro Modernoan, orografiak, luraren ezaugarriak eta klimatologiak ez ziren egokiak Europako labore nagusiak ziren zerealak edo mahatsondoak ereiteko. Alabaina, inguru hauetako herrien kasuan, laborantzan espezializatuta ez egoteak nekazaritza-produkzioa bultzatu zituen herritarrek, familiek kontsumitzeko elikagai nahikoak lortzeko besterik ez bazen ere. Zizurkilgo lurren nekazaritza-etekina mugatua zen arren, **abeltzaintzak** arinduko zuen hein handi batean garai hartako elikadura-eskasia eta oso paper garrantzitsua bete zuen ekonomia modernoan eta ondoren ere. Dena den, abeltzaintzak udal-ordenantzetan zuen arautze eskasak ez zuen inolaz ere islatzen familiaren ekonomian zuen garrantzia, agian ondasun pribatuak zirelako eta kontzejuaren barrutietan abereak bazkatzen zirenean soilik jasotzen zelako ordenantzetan.

Nolanahi ere, aziendak haragia edo bestelako produktuak (esnea, gurina, gazta, mamia, larrua) emateaz gain, lurra goldatzeko eta gurdirako erabiltzen zen nekazaritza-ustiaketan. Halaber, nekazaritza-mota hartan nahitaezkoa zen simaurra ematen zuen. Eta azkenik, diru-sarrera bat zen, merkatuan hainbat nekazaritza-produktu lortzea ahalbidetzen zuena. Izan ere, produktu hauekin eta familia bakoitzak ekoiztutakoekin etxeko kide guztiek behar zuten elikagai-kopurua lortzen zen<sup>39</sup>.

Baserrietan zegoen abere garrantzitsuena behia zen. Esaterako, behi batek hamar ardik ematen zuten esne eta simaur kopuru bera ematen zuen<sup>40</sup>, eta esnea, haragia, larrua eta ongarria emateaz gain, lurra iraultzeko eta gurdi-abere gisa erabiltzen zen.

Behi baten balioari buruzko adibide bat dugu 1517an Juan Iturralde zizurkildarrak eta Juan Goikoetxea nafarrak Villabonako Juan Barrenaren eta Juan Perez Apaetzexaren kontra jarritako demanda<sup>41</sup>. Auzi-jartzaileek diote beren behiak beti bezala ari zirela bazkatzen Amasako mendian –“sierra de Amasa”–. Lau behi

## 2. LA ECONOMIA DE LA VILLA

Un vistazo a la orografía actual de Zizurkil sirve para ponernos sobre aviso de las excelentes condiciones que reúne su terreno para la práctica de las actividades ganaderas. En este sentido, ni la orografía, ni la composición de su suelo, ni la climatología favorecían el sembrado de cereal o vid, principales cultivos de Europa durante la Edad Moderna. Sin embargo, la escasa especialización en los cultivos por estas latitudes llevaba a la población a dedicar gran parte de sus esfuerzos a la producción agrícola, intentando conseguir, a pesar de los rendimientos limitados de la agricultura en terrenos como el que ocupa Zizurkil, alimentos suficientes para el consumo familiar. Debido a las dificultades de las labores agrícolas, el recurso a la **ganadería** paliará en buena medida el déficit alimentario. Su papel en la economía moderna y aún bastante después, fue de gran importancia. La escasa regulación de la que es objeto la práctica ganadera en las ordenanzas municipales creemos que no manifiesta exactamente el destacado lugar que ocupaba en la economía familiar. Quizás esto fuera debido a que se trataba de bienes privados, cuya relación con la comunidad se limitaba al momento del pastoreo en términos concejiles, espacio que por el contrario si entraba en la esfera de interés vecinal y por tanto, aparecía recogido en las citadas ordenanzas.

Sea como fuere, el conjunto de la cabaña proporcionaba alimento en forma de carne o de productos derivados de los animales (leche, mantequilla, queso, cuajada, pieles). También era fuente de energía en la explotación campesina como fuerza de labor y de tiro. Asimismo aportaba estiércol, fertilizante fundamental en aquel tipo de agricultura. Y finalmente, suponía una vía de ingreso de dinero que permitía lograr en el mercado una serie de productos agrícolas que venían a completar los producidos en la propia unidad productiva familiar, hasta lograr alcanzar el volumen de alimentos necesarios para el conjunto de los integrantes de la casa<sup>39</sup>.

Un breve repaso a la composición de las cabañas domésticas obliga a comenzar citando al ganado vacuno, pues era el elemento animal más importante en estos tiempos. Se estima que una vaca proporcionaba una cantidad de leche y de estiércol similar a la de diez ovejas<sup>40</sup>. De ellas se obtenía leche, carne, piel y abono, amén de ser empleadas como animal de tracción y de labor.

Un ejemplo temprano de valoración de una vaca nos lo proporciona la demanda que en 1517 interpusieron el vecino zizurkildarra Juan de Iturralde y Juan de Goikoetxea, navarro, contra Juan de Barrena, Juan Pérez de Apaetzexa y consortes, vecinos de Villabona, a quienes acusaban de haber matado y comido una vaca de su propiedad<sup>41</sup>.

<sup>39</sup> A. ARIZCUN CELA: *Economía y sociedad en un Valle pirenaico del Antiguo Régimen. Baztán 1600-1841*. Iruñea. Nafarroako Gobernu. Hezkuntza eta Kultura Saila. Vianako Printzea Erakundea, 1988 (221-222). /A. ARIZCUN CELA: *Economía y sociedad en un Valle pirenaico del Antiguo Régimen. Baztán 1600-1841*. Pamplona. Gobierno de Navarra. Departamento de Educación y Cultura. Institución Príncipe de Viana, 1988 (221-222).

<sup>40</sup> S. VAN BATH: *Historia agraria de Europa Occidental, 500-1850*. Bartzelona: Peninsula, 1978 (268). /S. VAN BATH: *Historia agraria de Europa Occidental, 500-1850*. Barcelona: Peninsula, 1978 (268).

<sup>41</sup> Valladolideko Errege Chancilleriako Artxiboa. *Registro de Reales Ejecutorias*. C 323/15. /Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. *Registro de Reales Ejecutorias*. C 323/15.





Berastegi (1974)

Bartolomé Auzmendi

ziren eta horietako bat zehatz-mehatz deskribatu zuten ("de color amarillo, hosca o negra en las narices"). 4.000 marabedi balio zuten eta erditzeko zorian zegoen. Behi hau hiltzea leporatu zieten, hain zuzen: "la mataron fragosamente e la llevaron e comieron e fizieron della lo que quisieron".

Juan Barrenak eta Juan Perez Apaezetxeak, aldiz, demandaren balioa ukatu zuten. Izan ere, haien ustez, Iturraldek eta Goikoetxeak ez zuten ezer erreklamatzeko eskubiderik Villabonakoak eta Amasakoak ez zirelako. Behi horiek bazkatzen ziren larreak komunalak ziren, eta partikularrek alokatzen zituztenez, eskubidea zuten gainerako abereak harrapatzeko.

Gipuzkoako korrejidore Luis Palenciak lehen auzialdian emandako epaia –gerora Kantzilitza berretsi zuena– auzi-jartzaileen aldekoa izan zen, eta behi bat ematera edo bere balioa (4 dukat) ordaintzera behartu zituen villabonatarak.

Behiei, zekorrei eta idiei buruz hitz egiten duten agiri asko daude eta neketsua izango litzateke denak aipatzea. Agiri hauek salerosketari edo

Según relatan los demandantes, tenían sus vacas paciendo en la "sierra de Amasa", actividad que por otro lado realizaban tradicionalmente. En concreto, se trataba de 4 vacas, una de las cuales se detalla con toda precisión ("de color amarillo, hosca o negra en las narices", valorada en 4.000 mrs., que se encontraba a punto de parir). Precisamente sobre la muerte de esta vaca recae la acusación, ya que dicen que "la mataron fragosamente e la llevaron e comieron e fizieron della lo que quisieron".

Por su parte, Juan de Barrena y Juan Pérez de Apaezetxea niegan validez a la demanda, pues en su opinión Iturralde y Goikoetxea no tenían derecho a reclamar nada, al no ser vecinos de Villabona ni de Amasa. Los prados en los que pastaban estas vacas aseguran que eran comunales, arrendándose a particulares, teniendo por tanto derecho para prender al resto de ganado.

La sentencia, pronunciada en primera instancia por el corregidor de Gipuzkoa, Luis de Palencia, fue confirmada en Chancillería, resultó favorable a los demandantes, a los que se obliga a restituir la vaca o bien su valor (4 ducados).

Los documentos que hablan sobre vacas, novillos y bueyes son muy numerosos y una relación de los mismos sería demasiado prolija. Aluden

abereak ez ordaintzeagatik edo egoera txarrean entregatzeagatik hasitako auziei buruzkoak dira.

Idia ere askotan azaltzen da agirietan. Beste leku batzuetan nekazaritza-lanetarako zaldiak eta mandoak erabiltzen zituzten bitartean, Zizurkilen eta Gipuzkoan oro har idia baliatzen zuten. Zaldiak eta mandoak azkarragoak ziren, baina Zizurkilgo lursailak txikiak zirenez, abantaila horrek ez zuen hainbesteko garrantzirik. Horrez gain, idiek gutxiago jaten zuten eta aski zuten larreetan bazkatzearekin. Zaldiek eta mandoek, aldiz, nekazaritza garatuagoa zen lekuetan berezkoak ziren beste labore batzuk (oloa) behar zituzten.

Beste abere garrantzitsu bat ardia dugu. Esneaz eta haragiaz gain, artilea ematen zuen. Familiak berak kontsumitzeko edo saltzeko, artilea oinarritzko ehuna zen lihoarekin batera. Askok dira hasieran artzaintza-ohiturei eta ondoren udal ordenantzei muzin eginez Zizurkilen harrapatutako ardien kasuak. Halaxe gertatu zen 1749an.

Urte horretan, Antonio Elizondo eta Sebastian Lizardi basozainek Juan Martin Larrandobunok 52 ardi entregatu zizkiela jakinarazi zuten. Larrandobunok bere etxeko larreetan atzemandako ardiak garai hartan Asteasuko Konporta baserrian bizi zen Amezketako bizilagun batenak zirelako susmoa zuen<sup>42</sup>.

Gertaera honen berri izan ondoren, Asteasuko Juan Millan Zabala Zizurkilgo udaletxera joan zen, Amezketako Juan Altunak zaintzen zituen 85 buruko artaldeak zuela esatera. Egun horretan, goizeko zortziak inguru zirenean, bere artaldea Zizurkilgo zelai batean bazkatzen ari zela, Larrandobunok ardi dezente atzeman eta kontzejuaren etxera eraman zituen. Haren ustez, egunsentitik gauera arte artaldeak edozein barrutitan bazkatzeko baimena ematen zuten probintziako foruen kontra zihonan bahiketa hau.

Arrazoibide honen kontra, hiribilduaren arabera, Larrandobunok abere horiek harrapatzeko eskubidea zuen, izan ere, 1718. urteaz geroztik debekatuta zegoen beste hiribilduetako eta lekuetako azienda bai kontzejuaren barrutietan bai esparru partikularretan bazkatzea. Gainera, kontzejuaren esanetan, probintziako forua herri bakoitzeko aziendaz ari zen: "de donde los dueños fueren vecinos o moradores, pues éstos como contribuyentes con sus personas y vienes en las nece-

por lo general a su compra-venta o a pleitos por impago o por el mal estado en que se entregan.

El buey también aparece reiteradamente en la documentación manejada. Frente a otros lugares en los que las labores agrícolas eran realizadas por caballos y mulos, en Zizurkil y en Gipuzkoa en general, el buey desempeñaba frecuentemente esta labor. Si caballos y mulos ofrecen mayor rapidez en la ejecución de estas tareas, cualidad importante cuando había que arar y labrar grandes cantidades de terreno, la pequeña extensión de las propiedades locales reducía el efecto de esta ventaja comparativa. A esto hay que sumar que el buey requería un volumen menor de alimentación, pudiéndose sustentar de pastos naturales, mientras que el caballo y el mulo necesitaban complementos cultivados (avena), más propio de zonas con una agricultura más potente y desarrollada.

Otro animal con una importancia notable era la oveja. Junto a la leche y la carne, proporcionaba lana, destinada a la venta o al propio consumo familiar, materia que coexistía con el lino como tejido básico. Presente en un buen número de caseríos de la localidad, son relativamente abundantes los casos de prendarias de ovejas en la localidad por incumplimiento de las prácticas de pastoreo según el uso y la costumbre primero, y de las ordenanzas municipales después. Así sucedió en 1749.

En esta fecha, los guardamontes Antonio de Elizondo y Sebastián de Lizardi dan cuenta de que Juan Martín de Larrandobuno les acababa de entregar 52 ovejas asegurando haberlas prendido en jurisdicción de su casa de Larrandobuno, recordando serían de algún vecino de Amezketa que se acogía al presente en la casa Konporta de Asteasu<sup>42</sup>.

Tras esta noticia se presenta en el ayuntamiento de Zizurkil Juan Millán de Zabala, vecino de Asteasu, quien informa cómo tenía un rebaño de ovejas compuesto por 85 cabezas cuidadas por su pastor, Juan de Altuna, vecino de Amezketa. Señala que ese día, alrededor de las 8 de la mañana, hallándose pastando este rebaño en un campo libre de Zizurkil, Larrandobuno había cogido muchas de ellas, llevándolas hasta la casa concejil, donde al presente estaban depositadas. En su opinión, esta prendaria era contraria a los fueros provinciales, que permitían pastar de sol a sol a los rebaños en cualquier término.

Contra esta pretensión, la villa de Zizurkil plantea que los animales habían sido tomados con adecuación a derecho, pues desde 1718 se había prohibido que tanto en los términos concejiles como en particulares pastasen ganados de otras villas y lugares. Además, manifiesta en su defensa que el fuero de la provincia debía entenderse para el ganado de cada localidad "de donde los dueños fueren vecinos o moradores, pues

<sup>42</sup> Gipuzkoako Artxibo Orokorra, CO LCI 2730 / Archivo General de Gipuzkoa, CO LCI 2730

sidades de sus respectivas repúblicas, allí es donde se les concede sus franquezas".

Zabalak zioen Altunarekin zituela erdi bana aipatutako ardiak. Altunak Zabalak Zizurkilen zuen Berastegi etxean gordetzen zituen gauean, baina batzuetan bere barrutian edo Konporta etxearen larreetan geratzen ziren bazkatzen. Zabalaren deklarazioa entzun ondoren, Zizurkilgo justiziak Larrandobunoren alde emango du epaia, kontuan hartu gabe iragandako urtearen abendutik artaldea partikular batzuen lurretan arazorik gabe bazkatu zela.

Negua pasatzeko utzitako zenbait ardi eta antxume galtzeagatik 1762an Zizurkilgo Pedro Ignacio Aialdek Asteasuko Leon Lizasoren kontra jarritako demandak erakusten du ohitura hau zabaldua zegoela herriko jabe nagusien artean<sup>43</sup>. Hain zuzen, Aialderen arabera, honek 78 ardi eta antxume eman eta Lizasok 53 besterik ez zizkion itzuli hurrengo udaberrian. Buru bakoitzak 6 erreal balio zuela kalkulatu gero, kaltea 150 errealakoa zen. Eta horixe da arrakastarik gabe denbora luzez eskatu zion ordaina. Aialdek zioen adostu zutela abelbururen bat zenduz gero, seinaleren bat (belarria, larrua) entregatuko ziola zertaz hil zen jakiteko, baina Lizasok ez zion seinalerik eman, eta ondorioz, ez zekien abereak hilda zeuden ala ez.

Lizasok bere defentsan zioen 16 buru gaixotasunak jota hil zirela, berak inolako errurik izan gabe, eta gainerakoak zaintzeagatik, zilarrezko erreal bat kobratzea zegokiola buru bakoitzeko. Halaber, Lizasoren esanetan gaixotasunarengatik hiltzen zirenak Pedro Ignacio Aialderen kontura izango zirela hitzartu zuten eta erreklamatzeko zituen abereetatik 6 ardi auzi-jartzai-leak berak eraman zituela etxera jateko. Ardiak eta antxumeak Bulano base-riaren otalurretan bazkatzen aritu ziren denbora horretan guztian.

Adunako Juan Elizondoren deklarazioak ez zuen Aialde leku onean uzten. Elizondok zioen Aialderen etxera joan zenean arkumeak erostera, buru batzuk ikusi zituela ordurako janda eta karobian. Era berean, ohartu zen inguruan bazkatzen ari ziren ardi batzuk gaixorik zeudela, eta gainerako azienda kutsatuta egon zitekeela ikusirik, ardirik ez erostea erabaki zuen.

Ahuntzak, haragi eta esne dezente ekoiztu arren, etengabeko arazoturri ziren udaletako eta probintzietako agintarientzat. Mendi eta zuhaiz-

éstos como contribuyentes con sus personas y bienes en las necesidades de sus respectivas repúblicas, allí es donde se les concede sus franquezas".

A pesar de la declaración de Zabala, en la que indicaba que tenía a media ganancia y pérdida con Altuna las referidas 85 ovejas, que se acogían guardadas por este último en la casa de Berastegi, propia de Zabala y sita en Zizurkil, a donde se retiraban de noche salvo en alguna ocasión en que quedaban pastando en su término o en el de la casa de Konporta, la justicia de Zizurkil falla a favor de la prendaria hecha por Larrandobuno, sin que el reconocimiento de que desde diciembre del año pasado el rebaño hubiera pastado en tierras de varios particulares sin oposición alguna se tuviera en cuenta.

La demanda que interpuso en 1762 Pedro Ignacio de Aialde, vecino de Zizurkil, contra León de Lizaso, que lo era de Asteasu, a causa de la pérdida de varios corderos y cabritos que le había entregado para pasar el invierno ayuda a conocer lo común que era entre los principales propietarios de la localidad este tipo de prácticas<sup>43</sup>. En concreto, relata cómo le entregó 78 corderos y cabritos, mientras que Lizaso le devolvió en la primavera siguiente tan sólo 53. Calcula que a razón de 6 reales por cabeza, el perjuicio ascendía a 150 reales, solicitada su paga sin éxito durante bastante tiempo. Añade que tenían acordado que cuando muriera algún animal se le entregaría alguna señal para saber de qué había muerto (oreja, corambre). En cambio, Lizaso no le llevó ninguna señal, por lo que no sabía si habían muerto o no.

En su defensa Lizaso dice que 16 de los animales murieron por enfermedad, sin que tuviera culpa alguna de ello, y que además, por el cuidado del resto le correspondía cobrar 1 real de plata por cabeza. Precisa también que estaba estipulado que los que muriesen por enfermedad correrían a cuenta de Pedro Ignacio de Aialde, dando cuenta asimismo que 6 de los corderos que éste reclamaba se los había llevado a su casa para comer el propio demandante. Describe que los corderos y cabritos estuvieron pastando todo este tiempo en los eriales de la casa de Bulano.

La declaración de Juan de Elizondo, vecino de Aduna, no deja bien parado a Aialde. Aquel testifica que había ido a casa de Aialde a comprar corderos, viendo cómo algunas cabezas estaban ya consumidas y depositadas en la calera de la casa. Según sus palabras, pudo comprobar también que algunos corderos que estaban pastando en los alrededores se hallaban infeccionados, decidiendo no realizar la compra al recelar que el resto del ganado estuviera igualmente contagiado.

Las cabras, productoras asimismo de carne y leche en cantidad apreciable, suponían para los rectores municipales y provinciales una fuente de problemas constante. El daño

<sup>43</sup> Idem, CO MCI 3746 /Idem, CO MCI 3746

tietan egiten zituzten txikizioen ondorioz –zurezko landareak, zuhaitzen hostoak, zerealak... jaten zituzten–, xedapen asko finkatu, eta azkenean, udal-ordenantzen 38. puntuan jasotzen den debekua ezarri zen: “por los daños que estos animales causan en los montes concejiles, se manda que no se permita cabra alguna en sus términos”. Erabaki honek baliabide urriak zituzten familiei kalte egin zien bereziki; ahuntzak zaintzea eta mantentzea merkea zenez, abere garrantzitsua zen diru asko ez zutenentzat. Ahuntzek zuten bazkatzeko askatasuna murrizten zuten udalen eta probintzien irizpenek egonezina eragin zuten ekonomia xumeetan, arau berri hauekin haragi eta esne iturri garrantzitsu batez gabetzen zituzten eta.

Arestian esan dugu Zizurkilgo orografia ez zela egokiena **nekazaritarako**. Hala eta guztiz ere, honek ez du esan nahi zerealen eta beste landare batzuen laborantza jarduera ekonomiko nabarmena ez zenik. Kontuan hartu behar da betiere baserrian bertan kontsumitzeko ogia eta beste elikagai batzuk lortzera zegoela zuzenduta, batzuetan, familia gutxi batzuek soberan zutena saltzen bazuten ere.

Garia ereiten zen batez ere. Mendebaldeko tradizio kulturalari esker leku garrantzitsua zuen zereal honek elikaduran. Ogia egiteko eta elizaren zergak (hamarrenak, hasikinak) eta baserrien alokairuak ordaintzeko, biztanleak eta auzotarrak behartuta zeuden zereal hau ereiteko eremu handi samar bat izatera.

XVI. mendearen bukaeran eta hurrengo mendearen hasieran gure lurretan artoa sartu arte, garia zen laborerik nagusia, eta ondotik, artatxikia eta zekalea. Baina artoa ereiteko lursail gero eta handiagoek Kantauriko erlaitz guztian nekazaritza-iraultza txiki bat ekarri zuten berekin. Ekoizpena handitu egin zen eta aldatketak ekarri zituen lurra lantzeko sisteman, bertako nekazaritza eta abeltzaintzako orekan eta erabilitako teknologian. Honela, laia erabiltzen hasi zen, lurraren aireztapena hobetu eta ongarria birmoldatzen laguntzen zuelako<sup>44</sup>.

Gariarekin edo artatxikiarekin alderatuz gero, artoak honako abantailak zituen, besteak beste: lurraldearen baldintza klimatiko hezeetara hobeto egokitzen zen, gizakiarentzako eta animalientzako jakia zen, etekin handiagoa ematen zuen (bi edo hiru aldiz gehiago) eta lurraren aza-

que causaban en los montes y arbolados, al alimentarse de vegetales leñosos, hojas de árboles, cereales... hacia recaer sobre su cuidado numerosas disposiciones que desembocaron en la prohibición recogida en el punto 38 de las ordenanzas municipales (“por los daños que estos animales causan en los montes concejiles, se manda que no se permita cabra alguna en sus términos”). Este hecho perjudicaba en especial la economía de aquellas familias e individuos con menos recursos, pues el poco coste de su cuidado y mantenimiento hacía de las cabras un animal importante para los menos pudientes. Sin llegar a caer en una lucha entre pobres y ricos, los dictámenes municipales y provinciales que recortaban la libertad en el pasto de estos animales provocaban malestar en las economías más humildes, al ser desprovistas de una importante fuente de leche y carne.

Hemos indicado páginas atrás que la orografía de Zizurkil no se prestaba a la dedicación preferente de sus tierras a la **agricultura**. Sin embargo, esto no significa que el cultivo de cereales y de otras plantas no supusiera una actividad económica destacada, siempre debiendo tenerse presente que el laboreo del campo estaba enfocado generalmente a la obtención de pan y otros alimentos para el consumo en el propio caserío, salvo en el caso de aquellas pocas familias que dispusieran de un pequeño sobrante para la venta tras satisfacer sus necesidades.

El principal cultivo era el trigo. La tradición cultural de Occidente otorgaba a este cereal un papel señalado en la alimentación. La fabricación de pan de trigo para el consumo y el pago en esta especie de los tributos religiosos (diezmos, primicias) y de los alquileres de las casas, obligaba a los vecinos y moradores a dedicar una buena parte de la superficie cultivable a este cereal.

Hasta la introducción en nuestras tierras del maíz, circunstancia que tuvo lugar a finales del siglo XVI y principios de la siguiente centuria, la principal producción de los campos era por tanto de trigo y en menor medida, de mijo y centeno. Pero la puesta en cultivo de parcelas cada vez mayores de maíz trajo consigo una pequeña revolución agrícola en toda la cornisa cantábrica, dados los incrementos productivos que aportó este cereal así como por las transformaciones que introdujo en el sistema de cultivos, en el equilibrio agropecuario de la zona e incluso en la propia tecnología utilizada, la laya, que permitía un mejor aireamiento de los suelos, facilitando la recomposición de los elementos fertilizantes<sup>44</sup>.

Entre las ventajas del maíz frente al trigo o el mijo están su mejor adaptabilidad a las condiciones climáticas húmedas del territorio; su doble utilización como alimento humano y animal, que permite optimizar su uso; su mayor rendimiento, estimado en dos o tres veces superior; y un menor agotamiento de la capa más superficial de la tierra por tener rái-

<sup>44</sup> P. FERNANDEZ ALBALADEJO: *La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa, 1766-1833: cambio económico e historia*. Madrid: Akal, 1975 (86). /P. FERNANDEZ ALBALADEJO: *La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa, 1766-1833: cambio económico e historia*. Madrid: Akal, 1975 (86).



leko geruzan gutxiago eragiten zuen erroak sakonagoak zirelako. Desabantailen artean aipatu behar da taloak ez duela gariak beste bizi-gai, eta lurra gehiago irauli behar denez, ongarri gehiago behar dela<sup>45</sup>.

Artoaren etekina handiagoa zela eta lurrari hobeto egokitzen zela ikusirik, XVII. mendeko bigarren erdialdetik aurrera laborantzak gora egin eta baserri berriak eraikiko dira landare berri hau landatzetik sortutako onura ekonomikoak eskuratzearen.

Alderdi honi lotuta, XVIII. mendearen hasieratik hasi ziren Gipuzkoako justizia auzitegiak kausa judizialak barra-barra jasotzen, jabeek beren ondasunetatik etekin handiagoak eskuratzeko nahiak bultzatuta. Artoarekin ereindako lursailen hedapenak diru-sarrera handiagoak lortzeko aukera ematen zien. Horretarako, alokairuko kontratuen eskriturak berrikusi behar zituzten alokairuen epeak murrizteko. Izan ere, lurra lantzeko eta baserri batean bizitzeko errenta handiagoak ordaintzeko prest zeuden familia eta gizabanako gehiago zeuden. Alabaina, maizterrak ez ziren isilik geratu nagusien portaera horren aurrean.

Honela, 1740an Mendigain baserriaren maizterra zen Zizurkilgo Gabriel Ostolazak baserri horren jabe Juan Beldarrain salatu zuen bidegabeki bota nahi zuelako<sup>46</sup>. Ostolazak esan zuen bere kereilan, 1736an adostu zutela errentamendu-eskitura bat 9 urterako. Gero, Beldarrainek beste maizter bat hartu nahi zuen hitzartutako denbora amaitu baino lehen urtean 6 dukaten truke.

Juan Beldarrainek maizter berriarekin egin zuen eskitura berria aurkeztu eta 3 egun eman zizkion Gabriel Ostolazari baserriatik alde egin eta giltzak itzultzeko. Haren esanetan, 29 dukat zor zizkiolako indargabetu zuen errentamendu-kontratua. Ostolazak erantzun zuen esanez ez ziola ezer zor eta gainera ez zuela elkartu nahi izan berarekin eta eskribauarekin kontuak egiteko. Korregimentuko Auzitegiaren epaia Gabriel Ostolazaren aldekoa izan zen, eta hari esker, Mendigain baserrian jarraitu ahal izan zuen maizter.

Antzeko zerbait gertatu zen 1761ean Erretenbarrendi baserrian, 40 urtez maizter izandako Juan Bautista Irazuk baserri horren jabe Miguel Antonio San Millanen kontra jarritako demandan. San

ces más profundas. En su debe hay que señalar el menor poder alimenticio del talo o del pan de maíz frente al trigo y la necesidad de remover más profundamente la tierra en las labores de arado, necesitándose por tanto de un mayor abono<sup>45</sup>.

Una vez comprobado el mayor rendimiento del maíz y su mejor adaptación a la tierra, desde la segunda mitad del siglo XVII se asiste a un incremento de la superficie cultivada y a la fundación de nuevos caseríos que responden al deseo de obtener beneficios económicos derivados del cultivo de esta nueva planta.

En relación con este aspecto, desde principios del siglo XVIII comienzan a inundarse los tribunales de justicia guipuzcoanos de multitud de causas judiciales motivadas por el deseo de los propietarios de lograr una mayor rentabilidad en sus propiedades. La expansión de la tierra cultivada gracias a la introducción del maíz les otorgaba la posibilidad de conseguir mayores ingresos. Para ello necesitaban revisar las escrituras de los contratos de alquiler que hasta entonces tenían con sus inquilinos al objeto de acortar los plazos de los arrendamientos, pues había un mayor número de familias e individuos dispuestos a trabajar en el campo, así como a pagar mayores rentas en los alquileres por establecerse en un caserío. Sin embargo, los antiguos arrendatarios no mantendrán una actitud pasiva ante la nueva conducta de sus amos.

Así, en 1740 asistimos a la denuncia formulada por Gabriel de Ostolaza, vecino de Zizurkil e inquilino en la casería de Mendigain, contra Juan de Beldarrain, propietario de la misma, a quien acusa de querer echarle ilegalmente de su arrendamiento<sup>46</sup>. Ostolaza precisa en su querrela que en 1736 habían establecido una escritura de alquiler de dicha casería por un plazo de 9 años. Ahora, Beldarrain pretendía poner otro inquilino sin que hubiera finalizado el tiempo estipulado y pagando su parte anualmente la renta acordada, que era de 6 ducados.

Mientras, Juan de Beldarrain presenta la nueva escritura de arrendamiento que había realizado con el nuevo colono, dando 3 días a Gabriel de Ostolaza para que abandonara su casería y le devolviera las llaves. Dice que había dado este paso porque éste le debía 29 ducados, motivo suficiente para cancelar el arrendamiento. Ostolaza se defiende alegando que no le debía nada y declarando que no se había querido juntar con él y con el escribano para ajustar las cuentas pendientes. El fallo del Tribunal del Corregimiento es favorable a Gabriel de Ostolaza, quien proseguirá en el arrendamiento de la casería de Mendigain.

En el mismo sentido se puede interpretar la demanda que en 1761 Juan Bautista de Irazu, inquilino en la casería Erretenbarrendi durante los últimos 40 años, hizo contra

<sup>45</sup> A. ARIZCUN CELA: *Economía y sociedad...* (208.or. eta hurrengoak) / A. ARIZCUN CELA: *Economía y sociedad...* (208 y sigs.)

<sup>46</sup> Gipuzkoako Artxibo Orokorra, CO ECI 2722 / Archivo General de Gipuzkoa, CO ECI 2722



Zizurkil (1966)

Bartolomé Auzmendi

Millanek bota egin zuen Irazu baserriko zuhaitzei kalte handia egin ziela argudiatuz<sup>47</sup>. Honen aurrean, Irazuk alegatu zuen urte horietan guztietan etxean nahiz lurretan hobekuntzak besterik ez zituela egin: “cuidándolos y gobernándolos bien, haciendo caleras”. Haren testigantza bermatzeko Juan Beldarrainek bi haberen “dos vigas principales que están tomadas sobre piedra labrada y recalzadas para precisa subsistencia” eta harri eta karezko pareta baten eta beste hainbat hormaren konponketaren berri eman zuen. Lurretan, berriz, ura isurtzeko ubideak egin, hesiak jarri eta zuhaitzak landatu zituen barruti guztian.

Miguel Antonio San Millanek, bere aldetik, bi lekuko eraman zituen: Francisco Antonio Olarreaga eta Jose Olarreaga, biak San Millanen Irizibar baserriko maizterrak; bada, hauek aitortu zuten, Juan Bautista Irazuk zuhaitzen hostaila aziendarentzat moztu eta

Miguel Antonio de San Millán, su propietario, pues éste le había despedido aduciendo que había causado graves daños en los árboles pertenecientes a esta casería<sup>47</sup>. Ante esto, Irazu alegó que en todos estos años había hecho muchas mejoras tanto en el propio edificio como en los terrenos anexos “cuidándolos y gobernándolos bien, haciendo caleras”. Para avalar su testimonio llama a declarar a Juan de Beldarrain, quien señala que las mejoras que había realizado Irazu eran el reparo de “dos vigas principales que están tomadas sobre piedra labrada y recalzadas para precisa subsistencia”, una pared de cal y canto y ciertos reparos de pared en diferentes puntos de la casería, mientras que en los pertenecidos había ejecutado canales y acequias para que corriesen las aguas y no se quedasen estancadas, levantado vallados y habiendo poblado de árboles todo el término.

Por su parte, Miguel Antonio de San Millán avalaba su pretensión con la declaración de dos testigos, ambos inquilinos en su casería de Irizibar, Francisco Antonio de Olarreaga y José de Olarreaga, quienes depusieron que Juan Bautista de Irazu había hecho cortes de hojas en los árboles para el ganado y había cortado por el

<sup>47</sup> Idem, CO LCI 3178 / Idem, CO LCI 3178

hainbat sagarrondo oinarritik ebaki zituen etxera eramateko, baserri inguruko zuhaitzia desagerrarazteraino.

Eta azkenik, ondasunetatik errenta handiagoak lortzea bilatzen zuen jokabide honen beste adibide bat dugu Zizurkilgo Larrandobuno eta Altziturri baserrien jabe zen Tolosako Martin Manuel Larrandobunorena eta honen maizterrak ziren Jose eta Martin Asencio Mujikarena<sup>48</sup>. 1779an Larrandobunok Mujikatarrak salatu zituen, alde zurretik baserria utzi behar zutela jakinarazi arren, ez zirelako joaten. Larrandobunok zioen ordaindutako errenta txikia zela eta ez zituztela lurrak behar bezala landu.

Jose Mujikak, berriz, Altziturrin zeramaten denboran (6 urte), ondo zaindu eta hobekuntzak egin zituztela. Gainera, oraindik 3 urte falta ziren Maria Ignacia Gandariasekin –Juan Martin Larrandobunoren alarguna eta Martin Manuel Larrandobuno auzi-jartzailearen ama zen– hitzartutako alokairuaren epea amaitzeko. Azken honi aurpegiatzen zioten egin nahi zuena ilegal zela, errentamendua igotzen saiatu zelako. Mujikatarrak saiakera horren aurka agertu ziren, hartu zutenean baino hobeto zegoelako baserria; karobi bat egin, lur guztiak ongarritu eta landu, horma berriak eraiki eta sagarrondoak landatu zituzten.

pie manzanos para llevarlos a su casa, hechos que suponían la pérdida del arbolado existente en el término del caserío.

Y finalmente, un nuevo ejemplo de este tipo de actuación cuyo objetivo era obtener mayores rentas de las propiedades es el que protagonizaron en 1779 Martín Manuel de Larrandobuno, vecino de Tolosa y dueño de las caserías de Larrandobuno y Altziturri en Zizurkil, y José y Martín Asencio de Mujika, arrendadores de esta última casa<sup>48</sup>. En concreto, Larrandobuno denuncia a los Mujika porque habiéndoles notificado con antelación suficiente su despido del arrendamiento de la citada casería por ser escasa la renta que pagaban y por no haber cultivado como debían sus tierras y campos, éstos se negaban a abandonar la casa.

José de Mujika basa su postura en que durante el tiempo que llevaban como inquilinos en Altziturri (6 años), la habían cuidado bien y habían realizado mejoras, quedándose al presente 3 años para acabar el plazo del alquiler que establecieron con María Ignacia de Gandarias, viuda de Juan Martín de Larrandobuno y madre del demandante, Martín Manuel de Larrandobuno. A éste le recriminan que su pretensión era ilegal, dando cuenta de que había intentado un aumento de la renta que pagaban por el arrendamiento de la casa, a lo que ambos se opusieron porque el conjunto de la casería se hallaba en mejor estado que cuando la recibieron. Habían construido una calera y abonado y cultivado todas las tierras, erigiendo nuevas paredes y plantando nuevos manzanos.

<sup>48</sup> Idem, CO ECI 4298/ Idem, CO ECI 4298



Erretenbarrendi (1974)

Bartolomé Auzmendi



Kasu honetan, korrejidoreak jabearen interesen aldeko auzia eman eta 9 eguneko epea finkatu zuen Mujikatarrek etxea uzteko.

Bestalde, baratzeak –lur-eremu txiki bat hartu arren– osagarri garrantzitsua ziren familiaren ekonomian. Bertan ekoiztutako produktuak egun landatutakoan antzekoak ziren eta soberakina saldu egiten zen.

Sagarrondoek ere paper garrantzitsua zuten. Gehien edaten zen edaria, hau da, sagardoa egiten zen sagarrekin. Baserri bakoitzak baserrian bertan egin eta kontsumitzen zuen horretarako sagarrondoak zituenean. Hala ere, uzta irregularrak zirenean, familia batzuek erosi egin behar izaten zuten edari hau.

Gaztainondoek ere funtzio garrantzitsua zuten giza-elikaduran. Zerealaren uzta-sasoia txarrak zirenean, urteko gabeziak hein batean bete eta goseak eragindako gaixotasunen ondorioak leuntzen zituzten.

Gainerako lurra iralekua, otadia, bazkalekua eta basoa zen.

Jarraian aurkeztuko dugun adibideak agerian uzten du labore-lurra prestatzeari ematen zizaien garrantzi handia. Hala, lurraren egokitzape-

En este caso la sentencia del corregidor es favorable a los intereses del propietario, ordenando que en un plazo de 9 días los Mujika abandonaran la casa.

Por otra parte, los huertos, a pesar de disponer de una superficie de pequeño tamaño sobre el total del pertenecido de los caseríos, suponían un complemento importante en la economía familiar. Los productos que se obtenían en ellos eran similares a los plantados en la actualidad. El excedente familiar se destinaba a la venta.

También los manzanos tenían un papel fundamental. Proporcionaban la bebida de mayor consumo y más popular, la sidra, siendo habitual que cada caserío produjera y consumiera su propia sidra cuando disponía de manzanales para ello. Sin embargo, la irregularidad de las cosechas obligaba a las familias algunos años a la compra de esta bebida.

Los castaños también tenían un uso importante en la alimentación humana, aumentando su importancia en aquellos periodos de malas cosechas de cereal, cubriendo en parte las carencias alimenticias del año y suavizando los efectos de las enfermedades provocadas por el hambre.

El resto de suelo se encontraba dedicado a helechales, argoma, tierra de pasto y bosque.

La importancia que se daba a la preparación de las tierras de cultivo se pone de manifiesto en el ejemplo que a continuación presentamos. Así, el acondiciona-



Altziturri (1974)

Bartolomé Auzmendi



na nabaria da Zizurkilgo Anton Beñaran Berastegiren aurka Asteasuko Juanes Elorrietak eta Cristobal Zabalak 1549an jarri zuten demandan. Auzi-jartzaileek salatu zituzten Beñaranek egindako heriotza-mehatxuak, eta gure ustez inportanteena dena, beren lurrak ureztatzeko ubide-zortasunaren jabetza. Beñaranek, gainera, puskatu egin zituen ubideak eta gandola<sup>49</sup>.

Elorrietak eta Zabalak korrejidorearen aurrean egindako apelazioak –honek Beñarani eman zion arrazoia eta bereizi gabe jotzen zuen asteasuartzat eta zizurkildartzat– Valladolideko Errege Kantzilertzan bukatu zuen, eta bertan aurkeztu zituzten, aurrerago ikusiko dugun moduan, kontuan hartu ziren alegazioak.

Elorrietak, Zabalak eta beste asteasuar batzuek argudiatu zuten auziaren xede zen erreka beti pasatu zela beren barrutietatik eta haiek eta beren arbasoek beti erabili zutelara. Auzi-jartzaileek demanda jarri zuten Berastegi baserriitik Berastegi eta Legarralde deitutako ibaiertzerara jaisten zen erreka erabili nahi zutelako beren lurrak ureztatzeko. Izan ere, ura igarotzeko ubideak irekita zeudela, beti egin omen zuten horrela. Anton Beñaranek, hala ere, ustiapen zahar bat kendu zien eta ubideak berriz irekiz gero akabatuko zituela esan: “el dicho maese Antón, armado de muchas armas offensibas y defensibas, en espeçial con espada y rodela, fue a las dichas açequias y por fuerça y contra la boluntad de nosotros quebró y çegó aquellas y la presa donde se toma el agoa”,

Beñaranek bere burua zuritzen zuen esanez ur hori Berastegi etxearen lursailak ureztatzeko erabiltzen zela. Ur horrek haren barrutian bat egiten zuten 5 errekatari zuten jatorria. Erreka horiek guztiak Urrestiko Basajaundegi mendian, Anton Beñaranen lursailetan, eta llozagako etxeen ondoan sortzen ziren. Soberan zegoen ura, berriz, isurtzen uzten zen, beheago zeuden lurren jabeek –alegia, auzi-jartzaileek– erabiltzeko. Halaber, Beñaranek zioen beste batzuetan arbasoek ura eramateko baimena eskatu zutelara ibaian behera zeuden lur horiek ureztatu ahal izateko. Armatuta azaltzearen akusazioari buruz, hasieran armarik gabe joan zela esan zuen, baina ikusi zuenean aurkakoak baleztak eta beste arma batzuk zituztela eta Zabalak heriotza-mehatxuak egin zituzkiola, etxera abiatu eta ezpata eta erredola hartu zituela. Azkenik, baina, urarekiko zortasunik zegoenik ukatu egin zuen.

miento del terreno queda patente a lo largo de la demanda que pusieron Juanes de Elorrieta y Cristóbal de Zabala, vecinos de Asteasu, contra Antón de Beñaran y Berastegi, vecino de Zizurkil (1549). En su acusación, denuncian las jactancias e injurias de muerte que les había proferido Beñaran, y lo que a nuestro juicio es más importante, la posesión de servidumbre de paso de agua para regar tierras de los demandantes, cuyas acequias y albañal habían quedado rotas por el acusado<sup>49</sup>.

La apelación de Elorrieta y Zabala ante el corregidor, quien había fallado en primera instancia a favor de Beñaran, a quien se califica indistintamente de vecino de Asteasu y de Zizurkil, eleva su denuncia hasta la Real Chancillería de Valladolid, instancia en la que presentan sus alegaciones, que adelantamos, fueron tenidas en cuenta.

Elorrieta, Zabala y otros vecinos de Asteasu adujeron que el arroyo y agua sobre el que versa el pleito siempre había corrido por sus términos, habiendo sido aprovechado por ellos y sus antepasados. En concreto, el objeto de la demanda se centra en el libre uso que los demandantes para regar sus tierras hacían del arroyo que bajaba de la casería Berastegi hacia la ribera llamada Berastegi y Legarralde. En sus declaraciones manifiestan que siempre lo habían hecho así, teniendo las acequias abiertas para que pasase el agua. Sin embargo, “el dicho maese Antón, armado de muchas armas offensibas y defensibas, en espeçial con espada y rodela, fue a las dichas açequias y por fuerça y contra la boluntad de nosotros quebró y çegó aquellas y la presa donde se toma el agoa”, despojándoles de un aprovechamiento antiguo, amenazándoles que si volvían a abrirlas, les mataría.

En cambio, Beñaran en su declaración asegura en primer lugar que el agua litigiosa se utilizaba para regar los campos y heredades de la casa de Berastegi. Este agua provenía de 5 arroyos que convergían en su término, todos nacidos en el monte Basajaundegi, en heredades de Antón de Beñaran, de Urresti y junto a las casas de llozaga. El agua que sobraba, señala que se largaba, usándose por los dueños de las tierras que estaban más abajo, es decir, las propias de los demandantes. Asimismo precisa que otras veces los antepasados habían solicitado licencia para llevar el agua con que regar esas tierras situadas aguas abajo. En cuanto a la acusación de que si acudió armado a cerrar las acequias, declara que en primer lugar fue sin armas, encontrándose a los adversos con ballestas y otros instrumentos, por lo que fue a su casa y tomó una espada y rodela para su defensa, siendo amenazado de muerte por Zabala. Finalmente, niega que existiera servidumbre alguna respecto al agua.

<sup>49</sup> Valladolideko Errege Chancilleriako Artxiboa. Auzi Zibilak. Varela. *Fenecidos*, C401/1./ Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Pleitos Civiles. Varela. *Fenecidos*, C401/1.

Agiriak dio Beñaranen onibarra “handia” zela eta bitan zatitua zegoela: bata Berastegi Zelaia zen eta besteak Legarralde Zelaia zuen izena eta liskarraren xede den ura bien erditik pasatzen zen. Ureztapena txandaka egiten zen: urte batean onibar bat eta beste batean bestea. Aitzitik, Elorrietak ibaian behera zuen onibarra 20 aldiz txikiagoa zen.

Labore-lurrak zabaltzeko interesak, onura partikularrak ekarri arren, askotan eragiten zituen liskarrak, beti zegoelako kalteturen bat. Horixe da Martin Manuel Larrandobuno tolosarrak eta zizurkildarrak Juan Antonio Bengoetxea zizurkildarraren eta Azpeitiako Joaquin Agirre Porce San Millango markesaren kontra 1791n jarri zuen demandan gertatu zena. Lehena Arrieta etxearen jabea zen eta bigarrena San Millango markesaren jauregiaren maizterra. Demanda Larrandobunoren Arrieta baserria eta San Millango markesaren lurrak bereizten zituzten bi zedarri jartzeari buruzkoa zen.


Larrandobunok zioen San Millango jauregiaren ondoan zuen Arrieta baserria handitzen saiatu zela 1791n eta kondekoratutako pertsona baten bidez (“por mediación de persona condecorada”) proposatu ziola markesari aurkeztutako txostenak aztertzea. Markesa hasieran mesfidati agertu zen arren, azkenean Zizurkilgo Ignacio Antonio Ameztouri eman zioten mandatua perituak baliatze-

En el documento se describe la heredad de Beñaran “como grande” y partida en dos: una se llama Berastegi Zelaia y la otra Legarralde Zelaia, pasando por medio de ellas el agua en litigio. Se explica el procedimiento de regadío, un año para una de las heredades y otro para la otra, pues un año descansa una y otro, otra. En cambio, la heredad de Elorrieta, propia de uno de los demandantes y situada aguas abajo, se describe como 20 veces más pequeña.

El interés por ampliar las tierras de cultivo, con todo los beneficios particulares que traía consigo, terminaba en muchas ocasiones en juicios, pues frente a un beneficiario, siempre se encontraba quien saliera perjudicado por esta operación. En este sentido se puede interpretar la demanda que en 1791 interpuso Martín Manuel de Larrandobuno, dueño de la casa de Arrieta y vecino de Tolosa y Zizurkil, contra Juan Antonio de Bengoetxea, colono del palacio del marqués de San Millán, vecino de Zizurkil, y contra el propio marqués, Joaquín de Agirre y Porcel, vecino de Azpeitia, sobre la reposición de dos mojones que limitaban la casa de Arrieta, propia de Larrandobuno, con tierras del marqués de San Millán.

Larrandobuno relata en su declaración cómo intentó ampliar el edificio de su casería llamada Arrieta, contigua al palacio de San Millán, en 1791, proponiendo al marqués “por mediación de persona condecorada” que estudiase los informes presentados. Según Larrandobuno, éste al principio se mostró reticente a su propuesta, aunque se comisionó finalmente a Ignacio Antonio de Ameztoui, vecino de

<sup>50</sup> Idem, Pleitos Civiles. Masas. Olvidados, C1118/2./ Idem, Pleitos Civiles. Masas. Olvidados, C1118/2.



Auziaren planoa/Plano del juicio ARCHV, Pleitos Civiles. Masas. Olvidados, C1118/2

ko. Honela, bi peritu arduratu ziren 4 mugarri jartzeaz eta Zizurkilgo Juan Bautista San Millan eskribauari egindakoa jakinarazteaz.

Dena den, auzi-jartzailearen esanetan, egun batzuk beranduago, jauregiaren maizter Juan Antonio Bengoetxeak perituek jarritako bi mugarriak kendu zituen eta adituen azterlanaren arabera esleitutako lurrak murriztu.

Dirudienez, Lur-eremuari buruzko tirabira hauek aspalditik zetozen. Zizurkilgo Pedro Balerdik –Larrandobunok aurkeztutako lekukoak– adierazitakoaren arabera, 1789an bi alderdiak saiatu ziren bakoitzari zegozkion lurrak finkatzen, eta horretarako, azkenean onartu ez ziren 4 mugarri jarri ziren.

Juan Antonio Bengoetxea akusatuak, Zizurkilen jaio eta bizi, eta 42 urte zituenak, adierazi zuen Larrandobunok Arrieta baserria handitzeko harria metatu eta markesaren lurretan zeuden mugarriak kendu zituela bere nagusia zen markesaren aginduz.

Joaquin Agirre Porcelek, berriz, argudiatu zuen Larrandobunok harenak ziren lurrak hartu zituela; alegia, adituak nahasi eta harena zen lur batean mugarriak jartzera bultzatu zituela. Haren hitzetan, adituek eskumenak bereizten ziren lekuan banatu behar zituzten lurrak, hau da, Asteasura begira. Eta gaineratu zuenez, denek zekiten markesaren lurra zein zen: “la parte donde fijaron los mojones y toda su circunferencia, comenzando del palacio, siguiendo hasta la hermita de San Miguel, según va el camino, es perteneciente al marqués”. Horrez gain, Arrieta baserria markesaren lurretan zegoen kokatuta eta Larrandobunok urtero oilo bat eman behar izaten zion markesari enfitesiarengatik.

Beste kasu askotan bezalaxe, oraingoan ere ez dugu epaiaren berri.

Aurreko orrialdeetan abeltzaintzaren eta nekazaritzaren inguruko informazioa eta testigantzak jaso baditugu ere, ez dugu pentsatu behar zizurkildarrek bi jarduera hauetan soilik aritzen zirenik. Ohikoa zen familiarentzako elikagaiak bermatzeko beharrezkoak ziren diru-sarrerak osatzeko hainbat jarduera bateragarri egitea. Esaterako, normala zen hargin, zurgin edo olagizon bat nekazaritzan edo abeltzaintzan aritzea, edo alderantziz, artzainek edo nekazariak burdinoletan, salgaiak garraiatzen edo beste ogibide batean lan egitea.

Zizurkil, para que se valiese de peritos a satisfacción de las partes. Así, dos peritos se encargaron de fijar 4 mojones, dando declaración de su actuación ante el escribano de Zizurkil, Juan Bautista de San Millán.

Sin embargo, tal y como relata el demandante, días después, el colono del palacio, Juan Antonio de Bengoetxea, arrancó los dos mojones fijados por los peritos, de lo que resultaba grave perjuicio a su parte al ver reducido el terreno adjudicado en el peritaje.

